

arteka



**TXINA, IRAULTZA
BATEN AZKEN HATSA**

GEDAR

— **E**z da nahikoa Txinan
ekonomia kapitalistak
bizirauten duela esatearekin.

Prozesu sozialistaren subjektua aztertzea ere beharrezkoa da, bere estrategia eta ikuspegi politikoak ebazteko. Horretarako, bere programa aztertu behar da, baina baita bere garapen historikoa ere. Horrek ahalbidetuko digu, existitzen denaz gaindi, existiarazi nahi dena ulertzea. Ez baikaitu komunista egiten dagoeneko eginda dagoenak, egin nahi dugunak baizik. Hots, emaitza ez da borondatea determinatzen duena, ezta norbera definitzen duena ere; kontrara, emaitzarekiko dugun jarrerak eta gure egiten dugun estrategiak egiten du hori.

Edukia

6

10

30

48

60

EDITORIALA

Arteka

XX. mendeko porrotaz

ERREPORTAJEA

Eneko Carrión

Dragoiaren erraietan

KOIUNTURA POLITIKOA

Jose Castillo

Xi Jinpingen hirugarren agintaldia: Txinaren bide zalantzagarria mundu mailako hegemoniarantz

ERREPORTAJEA

Mikel Bartolomé

Munduaren fabrika izatetik, mundu-mailako potentzia izatera: Txinaren emergentzia ekoizpen globalaren polo eta eragile geopolitiko gisa

ERREPORTAJEA

Miguel García

Iraultza Kultural Proletario Handiaz

XX. mendeko porrotaz

Editoriala

Prozesu sozialistaren zailtasunak agerikoak dira XX. mendeko esperientziei begiratzen badiegu. Eta ez soilik, ezta bereziki ere, mugimenduaren izaera praktikoak muga praktikoak aurkitzen dituelako gainditu nahi duen gizarte kapitalistan eta bere indar antolatuetan. Kontrara, prozesuaren beraren ulerkeran aurkitu ditu zailtasunik handienak, hau da, mugimendu praktikoak bere buruaz sortu duen ideian. Izan ere, ezintasun praktikoak muga fisiko agerikoa bada ere, muga hori gainditzea ezinezko egiten da mugimendurekiko dugun ideia okerra bada.

Hori agerikoa da askok joan den mendeko esperientziak kategoria desberdinen arabera errefusatzan dituztenean: burokratikoa eta autoritarioa batzuek, beste batzuek zuzenean ez-komunista edota modernizazio atzeratu gisa definitu dute Urriko Iraultzarekin hasitako ibilbidea. Asko liburuetan babestu dira prozesu politiko bati kategoria teoriko desberdinen arabera uko egiteko; jantzia omen den horrek, oparoa eta anitza izan zen prozesua teoriaren ulerkera sinplista batekin ezabatzen du historiatic, jakin gabe bere burua eta esku artean duen teoria hori direla euren burua historiatic kanpo utzi dutenak.

Jakina, garrantzitsua da (ez hain) iraganeko prozesuen porrota aztertzea. Baina porrotaren ulerkerak berak eraman gaitzake oraindik ere porrotean murgilduta egotera. Bada dioenik prozesu horiek langile klasearen subjektu iraultzaile izaera faltsua

**Garrantzitsua da
(ez hain) iraganeko
prozesuen porrota
aztertzea. Baina
porrotaren ulerkerak
berak eraman
gaitzake oraindik
ere porrotean
murgilduta egotera**

agerian utzi zutela, hor nonbait langile klasea sistema kapitalista erreproduzitzeko gai baino ez zelako izan. Eta hori partzialki zuzena bada ere, langile klasea ez baita ezinbestean iraultzaile, klase borroka estrategia komunistaren garapenerako bitarteko gisa eta langile klasea subjektu komunistaren gorputz sozial gisa ukatzera daramaten ondorioak erabat apolitikoak eta indargabeak dira.

Ondorio horiek modernizazio atzeratuaren teoriari dagozkio, zeina prozesuen azken emaitzan sostengatzen den, ebidentzian, alegia, prozesu politikoaren nondik norakoak aztertzeari uko eginez. Hain zuzen ere, huts egin zutelako ondorioztatzen dira kapital metaketa prozesu gisa. Baina halakorik ebazten duenak porrotean sakontzen du, prozesu politikoaren hausnarketa bertan behera uzten duelako, sozialismoaren aldeko borroka ezinezko eginez edo berau Kapitalaren gaineko langile kontrol soilera kondenatuz. Kontua ez da, beraz, gertatu zena soilik, baizik eta gertatutakotik ondorio politikoak ateratzea, prozesu sozialista indartzeko edo bere aurka egiteko.

Azken batean, teoria horien arabera ezin da sozialismoaren eraikuntzaren porrotaz hitz egin, ez zelako sozialismoa eraiki. Alegia, porrotaz hitz egiteko saiakera bat egon behar da, baina saiakera bera analisitik kanpo uzten da, azken emaitzak determinatzen omen baitu hasierako borondatea: *ez zen sozialismoa eraiki = ez zen sozialismoa eraiki nahi*. Horregatik, ez dira irakaskuntza positiboa dakarten esperientzia historikoak, bazterrean utzi beharreko esperientziak baizik, komunismoaren historiari lotuta ez egoteagatik, antza.

Edonola ere, ekuazioaren lehenengo aldea –ez zen sozialismoa eraiki– gatazkatsua da. Izan ere, berdindu egiten du sozialismoaren eraikuntza eza sistema kapitalistaren biziraupenarekin. Prozesu sozialistaz ari garenean, baina, sinplekeria hori saihesteaz ere ari gara. Izan ere, *sozialismoa = komunismoa* ulerkerak ontzat ematen badugu, *prozesu sozialista = proletalgoaren diktadura = trantsizio fasea* ez-sozialistatzat edo ez-komunistatzat jotzea okerra da; are gehiago, sozialismoaren eraikuntza gisa ez ulertzea okerra da. Alta, sistema kapitalista bere

oinarrietatik ezabatu ez izanak ez du prozesuaren izaera sozialista ukatzen, ezinbestean. Hala balitz, sozialismoaren eraikuntza ez litzateke klase borrokaren emaitza, gatazkarena, positiboki ematen den errezeta baten sukalde lana baizik, zeina politikatik harago legokeen. Horretara dator hain justu langile klasea subjektu iraultzailearen gorputz sozial gisa ukatzea, zeina politikaren ukazioaren adierazpena baino ez den.

Sistema kapitalistaren biziraupenak XX. mendeko prozesu iraultzaileen oztopoak eta kontraesanak azaltzen ditu, baita gizarte horietan izaten ziren gatazkak ere. Baina biziraupen horrek eta sortutako gatazka politikoei agerian uzten dute prozesu sozialistaren hedapena. Azken batean, gizarte kapitalistaren biziraupenaren (ekonomikoa) eta estrategia sozialistaren (politikoa) arteko gatazkak eta banaketak/autonomiak ezaugarritzen dute XX. mendeko prozesu sozialista (eta bere azken porrota).

Elkarri sinetsarazi nahi izan dioten printzipio kooperatibista ez datza inolako balore etiko gorenetan. Kontrara, ekoizpen praktika kapitalistari, berau eztitzeko asmoz atxikitutako trikimailu ideologikoa da printzipio kooperatibista, eta bere benetako funtzioarekin egin du talka orain

Politikaren eta ekonomiaren arteko banatze gatazkatsu hori gaur egun ere baliagarria da guretzat, iraultza eta bere zereginak ezaugarritzeko. Banaketa, ordea, porrota gertatu denean soilik burutzen da. Izan ere, une horretan, politika iraultzaileak galdu du bere justifikazioa. Jada ez da mundua eraldatzeko politika, bere eraldatze ezaren hilotza baizik.

Sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa estrategia sozialistaren oinarria da. Bere garapenak gaitasun politikoen garapena esan nahi du, izan ere, subjektu komunistaren eraikuntza eraikuntza ekonomikoa da

Banaketa analitiko horren emaitza dira, alde batetik, XX. mendeko prozesuak iraultza politiko gisa ezaugarritzea eta, bestetik, ondorioztatzea hori horrela izan zela herrialde horietan ez zelako sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa gauzatu. Alabaina, aipatu bezala, banaketa analitiko hori gertatu zen prozesu erreale baten ondorioa da (eta komuniston ikuspegitik gertatzen da; izan ere, banatu zirenak ekoizpen modu kapitalista eta berau gainditzeko aukerak, hots, estrategia sozialista, izan ziren); ez, ordea, eraikuntza ekonomikoa eta politikaren artean dagoen banaketa errealearen emaitza.

Bestela esanda, sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa estrategia sozialistaren oinarria da. Bere garapenak gaitasun politikoen garapena esan nahi du, izan ere, subjektu komunistaren eraikuntza eraikuntza ekonomikoa da. Biak gauza bera dira, eta haien arteko banaketa, politikaren eta ekonomiaren (sistemaren) artekoa, soilik da posible bien arteko izaera antagonikoa gertatzen bada, politika sozialista eta ekoizpen modu kapitalista (potentzia politiko antolatutako gisa) badira aurrez aurre borrokan ari direnak.

Hala, ekoizpen-harreman kapitalistekin amaitu ez izanak, hau da, sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa eskala jakin batean hedatu eta finkatu ez izanak, ez du esan nahi prozesu horiek sozialistak ez zirenik ezta epai zalantzagarrien bidez komunisten analisitik kanpo kokatuak izan behar direnik ere.

Aipatutakoengatik, zenbaki honetan Txinako prozesuaren azterketa egitea izan dugu helburu, txikia izanagatik ere, hainbat esparru lantzen dituen. Azterketa horrek, baina, estrategia politikoa du erdigunean. Izan ere, prozesu politikoen analisisiaz gainera, estrategia ekonomikoak agerian uzten duena Txinaren eta Alderdi Komunistaren izaera politikoa da. Azken batean, analisi ekonomikoak subjektu-formaren analisisa dakar berekin, hau da, subjektu hori potentzia politiko gisa ekoizten duten zimenduen analisisa, baita helburu duen eraikuntza sozialarena ere.

Ez da nahikoa Txinan ekonomia kapitalistak bizirauten duela esatearekin. Prozesu sozialistaren subjektua aztertzea ere beharrezkoa da, bere estrategia eta ikuspegi politikoak ebazteko. Horretarako, bere programa aztertu behar da, baina baita bere garapen historikoa ere. Horrek ahalbidetuko digu, existitzen denaz gainera, existiarazi nahi dena ulertzea. Ez baikaitu komunista egiten dagoeneko eginda dagoenak, egin nahi dugunak baizik. Hots, emaitza ez da borondatea determinatzen duena, ezta norbera definitzen duena ere; kontrara, emaitzarekiko dugun jarrerak eta gure egiten dugun estrategiak egiten du hori. ●

ERREPORTAJEA

DRAGOIAREN ERRAIETAN

Testua — **Eneko Carrión**

Irudia — **Zoe Martikorena**





Txina ezagutzen ez duenak ez du mundua ezagutzen. Txina lehen mailako nazioarteko aktore bilakatu da. Mendebaldeko propagandak ezin du gure begirada lausotu mundua zuzentzen duten harreman politiko eta ekonomikoen sistema konplexua aztertu eta ulertzeko garaian.

Mundua trantsizioan dago:
Mendebaldearen hegemonia (estatubatuar)
unipolarraren eredutik beste eredu
batera igarotzen ari gara, zeinetan
botere ekonomikoaren beste ardatz
batzuk egongo diren, Latinoamerika,
Afrika edo Asia-Pazifikokoan. Kontua da
ea Txina bilakatuko den hegemonia
berri horren erreferente. Kanpora
begira duen proiektzioa aztertu aurretik,
beharrezkoa zaigu Asiako erraldoiaren
barrenek nola funtzionatzen duten
ulertzea. Horixe da erreportaje honen
helburua; espazioak eta gaitasunek
mugatuta badago ere, hurbilpen gisa
baliagarria izango dela espero dut.

1) NOLA IRITSI GARA HONAINO?

Txina ez da gauetik goize-
ra iritsi potentzia izatera.
Asiako erraldoiak azter-
tzea merezi duen eralda-
keta bat izan du; izan ere,
hainbat hamarkadatan hazkunde tasa
handiak izan ditu, bizi maila areagotu
du eta landa eremuko gizarte tradizio-
nal izatetik gizarte industrial moderno
izatera igaro da. Hau dena hobeto uler-
tzeko, ezinbestekoa zaigu atzera begi-
ratzea, Maoren Txinaren azken urtee-
tara, hain zuzen ere.

Aurrerako Jauzi Handiaren (1958-1961) emaitza txarren eta Iraultza Kul-
turalak (1966-1976) sortutako arazo-
en eraginez, Deng Xiaoping, Liu Shaoqi,
Peng Zhen eta beste batzuek osaturi-
ko sektore «pragmatikoenak» gero eta
indar handiagoa hartu zuen Txinako
Alderdi Komunistaren Komite Zen-
tralean. Garai hartan, ekonomiaren
norabidea aldatzeko oinarriak ezarri
ziren. Horretarako, alfabetatzea sus-
tatu zen, bai eta bizi kalitatea hobe-
tzea, azpiegituren eraikuntza, lurralde
kohesioa eta estatu enpresen sorrera
ere. Nabarmenezkoa da bizi itxaro-
pena 1949an 35 urtekoa izatetik 66
urtekoa izatera igaro zela 1978an. Ba-
zirudien arren Lemazain Handiaren
ondorengoa Hua Guofeng izango zela,
barne lehien ondorioz, azkenean Deng
Xiaopingek hartu zuen bere gain eta-
pa berriaren lidertza. 1978tik aurrera,
apustua argia zen: txinatar ezaugarri-
dun sozialismoa. Garai hori «errefor-
ma eta irekiera» aldi gisa ezagutzen
da. Dengen hitzek oso ondo definitzen
dute hastear zen garai berria: «Berdin
dio katua beltza edo zuria izan, arra-
toiak ehizatzen baditu» (Sichuan pro-
bintziako esaera zaharra). Gobernuak
erlaxatu egin zituen plangintza ekono-
miko zentralari loturiko legeak, tokiko
plangintza malguago baten mesedetan.
Horrek sistema ekonomikoen dualta-
suna eragin zuen: aldi berean zeuden
Gobernuak finkatutako prezioak eta
modu askean flotatzen zutenak; zen-
bait sektore, hala nola nekazaritza eta
industria, liberalizatu egin ziren eta,

bitartean, beste batzuk, industria as-
tuna kasu, babestu egin ziren. Politi-
ka eta ekonomia ulertzeko modu hori
«iraultza pragmatikoa» izenez ezagu-
tzen da; praktikan dago oinarrituta, eta
ez hainbeste teorian. Kontuan hartu
beharra dago historikoki tradizio ho-
rrek eragin handia izan duela txinata-
rren pentsatzeko eran.

Deng buru izan zenetik Xi Jinping
boterera iritsi arte beste bi presiden-
te izan ditu herrialdeak; bi horiek ere
lehenengoak ezarritako bidetik jarrai-
tu dute, nahiz eta fase bakoitzak bere
ezaugarri bereizgarriak izan. Agintal-
diak bost urtekoak ziren, eta behin bai-
no ezin zen errepikatu -Xi Jinping
arau hori aldatu zuen 2018. urtean-.
Hona hemen liderrak: Deng Xiaoping
(1978-1993), Jiang Zemin (1993-2003)
eta Hu Jintao (2003-2012). Deng agin-
tariaren iritziz -Lemazain Txikia ize-
nez ere ezaguna-, beharrezkoa zen
lehenik eta behin zenbait pertsona
aberastu zitezen uztea, horrek ekono-
mia dinamizatu eta, hala, ongizate ko-
lektiboa hobetze aldera. Horixe adie-
razten dute haren hitzek: «Pobrezia ez
da sozialismoa, aberatsa izatea loria-
tsua da». Boterean egonkortu eta Al-
derdian zilegitasuna lortu ahal izateko,
tokiko zenbait agintariren autonomia
onartu behar izan zuen -Xi Jinping
autonomia hori indargabetu du, bere
politika birzentralizatzailearen bidez-.
Hortik aurrera, erreforma politiko eta
ekonomikoko prozesu bat abiatu zen,
betiere Alderdiaren begirada eta kon-
trol zorrotzaren pean. Ziklo berriaren
irekiera aurreko akatsekiko haustura
gisa agertu behar zen, baina Maoren
figurari eraso egin gabe, babes sozial
zabala baitzuen. Horretarako, Iraultza
Kulturaleko zenbait figura garrantzitsu
epaitu zituzten.

Dengek hasitako modernizazioak
lau zutabe hauek izan zituen: nekaza-
ritza, industria, defentsa nazionala, eta
zientzia nahiz teknologia. 1978. urtean,
ekonomia pixkanaka irekitzera bidera-
tutako prozesu bat hasi zen, proba eta
errore sistema batean oinarrituta; ha-
la, neurri oso zehatzak ezarri ziren es-

***Dengen hitzek oso
ondo definitzen
dute hastear zen
garai berria:
«Berdin dio katua
beltza edo zuria
izan, arratoiak
ehizatzen baditu»***



parru oso konkretuetan eta, haien eraginkortasuna egiaztatzean, gainerako esparruetara zabaldu ziren. Eman zen lehen pausoetako bat lehen sektorea suspertzea izan zen. Landa eremuko komunak ezabatu ziren, eta lurrak nekazarien artean banatu, iraupen luzeko kontratuen bidez; hala, lurraren gaineko jabetza pribatua hedatu zen. Kontratu horiei «erantzukizun familiarreko ekoizpeneko kontratuak» zeritzen: familiek, kolektibitateari zerga bat ordaindu ondoren, lursail osoa administrazio zezaketen, eta bertatik diru sarre-
rak eskuratu. Emaitzak adierazgarriak izan ziren: produktibitateak gora egin zuen, eta horrek ekoizpen osoa biderkatu zuen, baita familien diru sarrerak areagotu ere. Helburua argia zen: eskulan merkea baliatzea teknologiaren inportazioa finantzatzeko soberakinak lortu ahal izateko. Horri inbertsioan oinarritutako garapena esaten zaio; beste eredu mota bat kontsumoan oinarritutakoa litzateke (soldata altuak ezartzea, kapital inbertsioa areagotu behar izateko). 1980an, zona ekonomiko bereziak ireki ziren atzerriko inbertsioa erakartzeko; izan ere, atzerriko inbertsio horren bitartez, transferentzia teknologikoa, dibisak jasotzea eta enpresak administratzeko eta antolatze-
ko modu modernoak praktikan jartzea lortuko zen. Landa eremuko soberako eskulana «herriko eta hiri-ko enpresa» izenekoetan txertatu zen; hain zuzen ere, enpresa horiei esker, ekonomia dinamizatzea lortu zen. Exodo horrek hirigintzako eta lurralde antolakuntzako zenbait prozesu martxan jartzeko beharra ekarri zuen eta, hala, Txina tradizionalaren itxura aldatzen hasi zen. Aipatzekoa da 1988ko Enpresa Legeak nolabaiteko autonomia eman ziela enpresei, esaterako kontratazioetan eta kaleratzeetan. Horrekin batera, «lana janariaren truk» programa sortu zen, landa eremutik zetorren soberako eskulana xurgatzeko eta, era horretan, askotariko azpiegiturak eraikitze-
ko eskulana izateko. Liberalizazio prozesuak murriztu egin zuen «burdinazko arroz katilu»^[1] izenez ezaguna zen babes so-

zialeko sarea (prestazio sozialak, etxebizitzarako laguntzak, etab.).

Aurrerago, 1990ko hamarkadan, erreforma ekonomikoko prozesuarekin jarraitu zuten, finantza sektorean azpimarra jarrita. Estatu enpresa ugari pribatizatu, itxi edo fusionatu egin ziren. Prozesu horren bitartez, mugak ireki zituzten, kanpoko inbertsio handiagoak jaso ahal izateko; besteak beste, *joint venture* izenekoak –Txinako eta atzerriko kapitaldun enpresa egiturak– sortzeko aukera ireki zen. Dena dela, kreditua beti egon da Estatuaren kontrolpean, neurri handi batean; hala, Estatuak mailegu merkeak eskaini izan dizkie Txinako talde industrial handiei, besteak beste azpiegituren arlokoiei, higiezinaren sustatzaileei eta probintzia zein udalerrietako gobernuei (azkenaldian higiezinaren burbuilarekin izandako arazoak ulertzen lagun diezaguke horrek). Urte horietan, aldaketa bat hautematen hasi zen politika ekonomikoan: balio erantsi txikiko merkantziak esportatzen zituen ekonomia bat izatetik, teknologia modu intentsiboan erabiltzen zuen ekonomia bat izatera igaro zen. Hala ere, hamarkada luzez kanpoko eskarian izandako aldaketen aurrean oso aldakorra izan da. Herrialde esportatzailea zen heinean, atzerriko herrialdeek krisiak izatean murriztu egiten zuten produktuen erosketa; hori konpentsatzeko, inbertsioak egin ziren azpiegiturretan eta etxebizitzetan.

2000. urtean, Txina Munduko Merkataritza Antolakundean (MMA) sartu zen; ordurako, gainditua zuen merkataritza defizita. Yuana debaluatze (hari balioa galarazteko) politika bat aplikatu zen, Txinako salgaiak gainerakoak baino merkeagoak izan zitezen (bitartean, industriaren produktibitateak hazten jarraitzen zuen); horri esker, esportazioak asko handitu ziren. 1978 eta 2005 artean, batez besteko hazkunde tasa % 9,7koa izan zen, inoiz ikusitako hazkunderik txundigarrienetakoa^[2].

Ekonomia irekitzeko prozesuarekin batera, hainbat erreforma egin ziren, bai Estatuan, bai Alderdian. 1978 aurretik, administrazioa eta Alderdia bat

ziren, funtsean; alabaina, erreforma administratiboak bereizi egin zituen, administrazioaren eraginkortasuna hobetzeko helburuz. 1978. urtetik aurrera, administrazioko langileak hautatzeko prozesua profesionalizatu egin zen eta, egun, 50 milioi kide inguru ditu. Erreforma administratibo horiek erakundeak modernizatu zituzten; horren adierazle da 1992an unibertsitate ikasketak zituzten funtzionarioak % 30 izatetik 2007an % 86 izatera igaro izana. Administrazioan gora egiteko prozesua irizpide meritukratikoetan oinarritzen da; hau da, beharrezkoa da oinarritzeko postuan esperientzia zabala eta emaitza onak izatea postuz igo ahal izateko (kontaktuak ere lagungarriak dira).

Gizartearen hezurdura osatzen zuten printzipio sozialistak baztertua, Alderdiaren zilegitasun iturri nagusia desarrollismoa eta modernizazioa bihurtu dira; hau da, aberastasuna sortzeko eta bizi kalitatea hobetzeko gaitasuna, izaera nazionalistako beste aldarrikapen eta eskakizun batzuekin batera. Esanguratsua da Txinako Alderdi Komunistak ia ez duela klase borroka aipatzen azken hamarkadetakoa dokumentuetan; hain zuzen ere, dokumentu zaharragotan baino ezin ditugu aipamen horiek aurkitu. Horrek espezializazio maila altua ekarri du eta, horrekin, instituzioen despolitizazio nabarmena gertatu da. Bereizketak bereizketa, Alderdiak koadroak gainbegiratzen jarraitzen du, eta erabaki handiak haren esku daude.

1982an onartu zen Konstituzioak aldaketa handia ekarri zuen, honako hauek ezartzen baitzuen: greba egiteko eta *dazibao* izeneko kartelak erabiliz Alderdia kritikatzeko debekua (Iraultza Kulturean ohikoak ziren kartel handiak ziren), sezesio debekua, goi karguen agintaldia mugatzea, jabetza pribatua eskubide gisa ezartzea (jabetza indibidual gisa definitu arren), eta merkatua liberalizatzeko politikaei atea irekitzea. Aldaketa ekonomikoek aldaketa politikoak eta teorikoak ekarri zituzten, Jiang Zemin (1993-

2003) ordezkaritza hirukoitzaren politikak erakusten duen moduan. Teoria horren arabera, Txinako Alderdi Komunistaren teoria, lerroa, programa, jarraibideak, politikak eta lana bat etorri behar dira, ahaleginaren bitartez, ekoizpen indarren garapenerako arauekin; izan ere, garapen horrekin, etengabe hobetuko da Txinako herriaren bizi maila. Bestalde, beharrezkoa da kultura sozialista nazional, zientifiko eta herrikoi bat garatzea, modernizazioari, munduari eta etorkizunari begiratzen diona. Bukatzeko, herriaren oinarritzko interesak aintzat hartu behar dira, abiapuntu eta helmuga baitira, eta Txinako herriari aukera eman behar zaio etengabe onura ekonomiko, politiko eta kulturalak lortzeko, gizar-tearen etengabeko garapena eta aurre-rapena oinarri hartuta.

Norabide horrek atea ireki zuen enpresariet eta gerenteek eztabaidarako eta kritikarako tokia izan zezaten Estatutaren barruan, betiere Alderdiaren zentraltasuna onartzen bazuten. Txinako Alderdi Komunistak ezarri zuen enpresari pribatuak ere langileak zirela eta, beraz, Alderdiko kide izan zitezkeela. Horri esker, teknologia enpresetako buru batzuk Herri Batzar Nazionalako kide dira (Txinako Parlamentuko kide, alegia), hala nola Xiaomi enpresako buru Lei Jun, eta beste batzuk, hala nola Alibaba enpresaren fundatzaile Jack Ma, Alderdiko kide dira. 2013an, Txinako enpresarien % 40 inguru Alderdiko kide ziren; hala ere, militantziako kideak nagusiki erdiko klasekoak dira.

Deng Xiaopingek hasitako erreforma politika, dengismo izenez ezaguna, agorpen zantzuak agertzen hasi zen; beharrezkoa zen kontsumoaren kaltetan gaininbertsioan oinarritzen zen eredua aldatzen hastea. Bukatua zen irekitze eta modernizazio fasea. «Garai berrian» sartzeko unea zen. Orduan agertu zen Xi Jinping.


2) XI JINPINGEN TXINA

Ulertu behar dugu Txinako Alderdi komunista ez dela erakunde estanko, monolitiko eta guztiz hermetiko bat; alderantziz, bere barnean hainbat fakzio aurki ditzakegu, ikuspegi eta posizio politiko desberdinekin. Erreforme bidea ireki zitzaientetik, hiru fakzio nagusi aipa daitezke:

Alde batetik, Shanghaiko taldea, Jiang Zemin figurari lotua. Talde hori elitistatzat hartua da. Beste alde batetik, Hu Jintaoekin (XX. kongresuan kanporatua izan zen) bat datozen gazte komunisten lerroa dugu. Bukatzeko, Xi Jinpingen presio-talde politikoa dugu, Jiang Zemin estuki lotua, egungo idazkari nagusia babestu baitzuen.

2012an Xi boterera iristeak aldaketa handia eragin zuen: erreforma eta irekitze fasea bukatu, eta «garai berria» hasi zen. Zenbait pertsona aberastu ondoren, hazkundearen onurarik jaso ez duten sektoreak kontuan hartzeko garaia iritsi zen. Alderdiak izan beharreko rolaren gaineko zalantzen aurrean, Xik bere rola (eta idazkari nagusiarena) indartu du Estatuko politikaren ardatz nagusi gisa. Alderdiaren gaur egungo rol nagusia herrialdeari egonkortasun politikoa eta soziala ematean datza. Kide bakoitzak organo

Txinako Alderdi Komunistaren egitura



Iturria: <https://spain-china-foundation.org/100-anos-pcc/>

legegilean eta exekutiboan zer kargu izango duen erabakitzeko eskumena dauka. Hala ere, eztabaida eta gidalekroen aplikazio asko estatu organoetan gauzatzen dira. Alderdiaren Komite Zentralaren osaera argazki argigarria izan daiteke sektore bakoitzak Alderdiaren politiketan duen pisua zein den jakiteko. Alderdiak 376 kide ditu: 205 titularrak dira, eta 171 ordezkioak. Titularren artean, honako hau da osaera: % 12, Alderdiko goi kargudunak; % 28 Gobernu kideak; % 8 estatu enpresa handiak; % 20, Askapenerako Herri Armadako kideak; eta % 30 probintzia administrazioetako liderrak.

Organo exekutiboak aurrean dituen arazo nagusiak honako hauek dira: eraginkorra ez den garapen ekonomikoa, ingurumen inpaktua eta gizarte zerbitzu desgokiak. Hazkunde azkarrek desparekotasun handiak eragin ditu herritarren artean, baita landa eremuaren eta hirien artean ere. Herrialdeko % 1 aberatsena aberastasun osoaren % 30 ingururen jabe da; duela zenbait urte, % 20 ingururen jabe zen. Hala ere, egindako aurrerapenak aipagarriak dira: Credit Suisse-aren 2022ko txostenaren arabera, Txinako batez besteko herritarra Europako batez besteko herritarra baino aberatsagoa zen 2021ean^[2].

Kanpaina arrakastatsuenetarikoa bat ustelkeriaren kontrakoa izan da; horren bitartez, herritarrek instituzioetan duten konfiantza hobetu da eta, aldi berean, Xik paretik kendu ditu balizko arerio politikoak. Beste kanpaina handi bat muturreko pobrezia desagerrarazteko kanpaina izan da; Hamahirugarren Bosturteko Planean, tresna anitz txertatu zituen pobrezia desagerrarazteko. Kanpaina sorta horren emaitza ikusgarria izan da: Txinak 700 milioi pertsona pobreziatik ateratzea lortu du. Maila guztietan nahikoa oparoa den ekonomia bat (*xikang* gizartea) izateko helburua lortuta, orain herrialde sozialista moderno bat lortzeko garaia da, desparekotasunak murriztuta (baina ez desagerrarazita).

Helburuak lortzearekin batera, normalean, kanpaina ideologiko eta kulturalak ere martxan jartzen dira, instituzioekiko konfiantza eta, bereziki, Alderdiarekikoa, sendotzeko, politikaren ardatz nagusi gisa. Leloak eta kanpainak erabiltzea Txinako tradizio politikoaren parte izan da eta, azken hamarkadetan, printzipio sozialistak alde batera uztean, kohesio sozialerako eta egonkortasunerako elementu gisa balio izan dute. 2020tik hona aukeraturako leloa «oparotasun komuna» izan da; estatu komunikabideen arabera, helburua pastelaren tamaina handitzea da, gerora, instituzio arrazionalen bitartez, modu egokian banatzeko. Guztiz definituta dagoen bide orri bat ez bada ere, honako atal hauetan bana dezakegu:

1. Zerbitzuak hobetzea, batez ere hezkuntzari, etxebizitzari eta osasun arretari loturikoak.
2. Gutxien dutenen erosahalmena handitzea, erdiko klase indartsu bat eraikitzeko
3. Aberastasuna hobeto banatzea lurraldeen artean.

Hori guztia garapen orokorra bilatzen duen estrategiaren barruan kokatu behar dugu; hala, xedea da erdiko klase kontsumista handiago bat izatea eta, aldi berean, giza kapitala hobetzea, balio erantsi handiagoa duten salgaien ekoizpenean oinarritutako garapen ekonomikoa lortzeko. Oliba formako hazkundera deritzo horri (pobre gutxi, erdiko klase handia eta aberats gutxi). Helburu horrekin, herrialdeak mende hasieratik batez beste % 16 handitu du I+G-ko inbertsioa dirua; zehazki, inbertsio hori BPGaren % 2,44 izatera iritsi zen 2021ean. I+G-ko inbertsioaren zatirik handiena, % 75 inguru, izaera pribatukoa da. Horrekin batera, ezin ahatz dezakegu 500 milioi pertsonak baino gehiagok landa eremuan bizitzen jarraitzen dutela eta hori erronka handia dela herrialdea modernizatzeko. Hori dela-eta, baliabide ekonomiko handiak inbertitu di-

Oliba formako hazkundera deritzo horri (pobre gutxi, erdiko klase handia eta aberats gutxi)



ra merkataritza elektroniko digitalean, ekoizpenaren mekanizazioan eta landa eremuko turismoaren sustapenean, besteak beste.

Bestalde, Txina beste sektore baten buru jartzen ari da: eraldaketa ekologikoa. 2012ko Alderdiaren kongresuan, garapen ekologikoa txinatar erako sozialismoaren bost zutabeetako bat izendatu zuten; horrek argi uzten du apustua benetan serioa dela. 2020an, herrialdeak kontsumitzen duen energiaren % 28,8 iturri berriztagarrietatik etorri zen. Helburua da 2025ean % 33ra iristea. Herrialdearen apustu energetikoaren beste zutabe bat energia nuklearra da; hain zuzen ere, % 500 hazi da energia mota hori 2010etik. Txina buru jarri da auto elektrikoaren ekoizpenean (mundu osoko salmenta guztien erdia baino gehiago) eta litiozko baterien ekoizpenean (munduko ekoizpenaren % 74). Horregatik du hainbesteko garrantzia lur arraroen sektoreak (hala deitzen zaio eraldaketa digital eta berderako ezinbestekoak diren 17 elementu kimikoen sektoreari); Txinak % 50-60ko merkatu kuota lortu du meatzaritzan, eta % 80koa

prozesamenduan. Aldaketa berde hori ekoizpen sektoretik haratago hedatzen da; hala, asmoa da dimentsio ekologikoa bizitzaren ia esparru guztietan integratzea. Horretarako, martxan jarri dira basoberritzeko proiektu masiboak (Gobiko basamortu inguruan, esaterako), baita hiri belakien proiektuak ere (hezeguneak eta urari eutsi eta ura gordetzen duten materialak ezartzea).

Egungo Txinari buruzko ideia orokor bat egin ondoren, azter dezagun sakonago bere ekonomiak nola funtzionatzen duen.

2.1 Asiako erraldoiaren motorra

Atal honetan, Txinako ekonomiaren funtsezko zenbait kontu azalduko dira, hala nola Estatuak ekonomiari dagokionez duen rola eta ikuskera, bai eta bertan eragiteko eta hura zuzentzeko mekanismo nagusiak ere. Hala ere, aztertuko dira estatu sektorearen garrantzia eta ekoizpen unitateetan eragiteko erabiltzen dituen mekanismoak. Bukatzeko, eskulana sektoreka nola banatzen den eta enplegurik gabeko eskulanaren egoera eta bilakaera aztertuko dira.

2.1.1 Alderdia, Estatuak eta norabide ekonomikoa

Alderdiak eta Estatuak merkatuarekin eta enpresekin duten harremana konplexua da, baina Xiren adierazpen honek argi laburbiltzen du haren ikuspuntua:

«Aztertu behar dugu nola jar dezakegun praktikan Kapitalaren rol positiboa merkatu ekonomia sozialista baten baldintzetan, eta, bitartean, kapitalaren rol negatiboa eraginkorki kontrolatu. Ezin diegu kapitalaren harrapakariei ausarkeriaz jokatzeko utzi, baina, aldi berean, aukera guztiak eskaini behar dizkiogu Kapitalak ekoizpen faktore gisa duen funtzioari».

Horretarako, Estatuak zuzendari ekonomikoen funtzioa betetzen du. Aitortzen den arren azken hamarkadetan sektore publikoaren parte hartzea murriztu egin dela –kualitatiboki eta kuantitatiboki–, eragile nagusia izaten jarraitzen du aldagai askotan, izan zuzenean –jabetzaren bitartez–, izan zeharka –pizgarrien edo finantzaketaren bitartez, funtsezko hornitzaile eta/edo bezero bilakatuta, politika fiskalen bidez eta abar–. Hala ere, sektore pu-



***Enpresa gehienen
barruan, Alderdi
Komunistaren
zelula bat dago,
baita txinatarrak
ez diren
subsidiarioetan ere***

blikoaren garrantzia ez da soilik kualitatiboa; izan ere, hainbat autorek adierazten dute sektore publikoaren parte hartze txiki batek ere aukera ematen diola Estatuari (nagusiki kapital pribatua duen) enpresa bat kontrolatzeko. Hau da, sektore pribatuak, oso dinamikoa eta esanguratsua izan arren, jabetza publikoaren eta Estatuaren politika ugarien eragina jasaten du –nagusiki, finantzaketan eta dibisetarako sarbidean–; gainera, haren egitura korporatiboan eta erabakiak hartzeko unean ere hautematen da eragin hori. Horri Alderdiaren rola gehitu behar zaio. Enpresa gehienek barruan, Alderdi Komunistaren zelula bat dago, baita txinatarrak ez diren subsidiarioetan ere. Lehenago esan dudanez, exekutibo asko Alderdiko kideak dira, hala estatu enpresetan nola bestelakoetan. Curtis J. Milhaupt eta Wenton Zheng juristek emandako datuen arabera (189 P), 100 enpresa pribatu nagusitatik 95etan, eta Interneteko 10 enpresa nagusietatik 8tan, fundatzaileak edo kontrolatzaileak Alderdi Estatuko erakunde zentralak edo toki erakundeetako kide dira edo izan dira. Horrek argi erakusten du zer saretze zabala dagoen indarrean Estatuak eta, haren atzean, Alderdiak, prozesu ekonomikoan gainean nolabaiteko kontrola izateko^[3].

Txinako garapenaren tresna nagusienetako bat bosturteko planak izan dira. 1953an hasi ziren Txinako bosturteko plan horiek hainbat mugimendu ekonomiko eta sozialen oinarriak jarri dituzte, hala nola Aurrerako Jauzi Handia, Iraultza Kulturala eta Mao ondorengo «erreforma eta irekiera» garaia». Plan horiek, egun «plan ildoak» (*guihuagangyao*) izenez deituak, ez dira nahitaez aplikatzen, baizik eta Txinako Gobernuaren ustez orientazio gisa balio dute eta etorkizuneko hazkunde eta garapenerako esanguratsuak diren arazo sozial eta ekonomikoak identifikatzen laguntzen dute. Hau da, Gobernuak aplikatu nahi dituen politiken gida moduan funtzionatzen dute. Adibiderik esanguratsuen BPGaren hazkundeari dagokiona da: Gobernu

zentralak urte hasieran ezartzen du, helburu sozial eta politiko batzuk oinarri hartuta. Horrek inbertsio eredu arriskutsua sortu du; izan ere, garrantzia duena ez da zertan inbertitzen den, baizik eta inbertsio horiek hazkunde kuotak betetzeko balio ote duten. Tokiko gobernuek pizgarri hori jasotzen dute eta, hala, estatu bankuek

azpiegitura, industria eta eraikuntzako proiektuak finantzatzen dituzte, maila horretara iristeko helburuarekin soil-soilik.

Jarraian ageri den taulak azken bi planen alderdi orokorrak laburbiltzen ditu (hurrengoa martxan dago jada), tresna hauen eraginkortasuna hobeto ulertze aldera^[4].

Garapen planaren izena	Helburu nagusiak	Helburu teknologikoak	Programa teknologikoak	Programaren ezaugarriak
XII. Bosturteko Plana "Txinako Herri Errepublikako garapen ekonomiko eta sozial nazionalerako zirraborratutako hamabigarren bosturteko plana" (2011-2015).	Hazkunde eredu aldaketza, kanpoko eskaerarekiko edota kanpoko kapitalarekiko gehiegizko mende-kotasunik izan gabe, lau ardatz nagusirekin: berregituraketa ekonomikoa, erreforma industrial, errentaren banaketa eta ingurumena.	Goi mailako teknologiararen bidezko industrializazioa babestea, berrikuntza sustatuko duen ekonomia batekin batera. Gailu elektronikoe-tan, zirkuitu integratuetan eta ikerketa aeroespazialean, itsasoko ikerketan eta nanoteknologia inbertitzea.	Made in China 2025 programa (2015).	Herrialdea potentzia teknologiko indartsu bilakatzea. Txinak atzerriko teknologia-rekiko duen mende-kotasuna murriztea eta bere berrikuntza propioetan inbertitzea, maila nazional-lean zein nazioarte-koan lehiazteko gai izango diren enpresa txinatarrak sortze aldera.
XIII. Bosturteko Plana "Txinako Herri Errepublikako garapen ekonomiko eta sozial nazionalerako hamahirugarren bosturteko plana" (2016-2020).	"Nahikoa oparoen den gizarte" bat eraikitzea.	"Berrikuntza nazio" bilakatzea 2020. urterako.	Megaproiektuak egiten jarraitzea.	Honako arlo hauetan sakontzea: nanoteknologia, gama altuko mikrotxip generikoak, hegazkinak, bioteknologia eta farmako berriak
			Adimen Artifiziala Garatzeko Plana (2017)	Txinako hainbat eskualdetan kokatuta egongo diren ekin-tzailetza teknologiko-koko 17 zentro dira; zentro horiek enpresa handien babesa izango dute, hala nola Huawei, Alibaba eta Baidu enpresena."-Silicon Valley" erako zentroak sortzea hitz-ematen du Beijing, Shanghai, Shenzhen eta beste hiri batzuetan.

Iturria: Beltrán (2020)

2.1.2 Enpresa sektorearen bilakaera eta egungo egoera

Orokorrean Estatuak ekonomian jokatzen duen rola ikusi ondoren, arretaz aztertu behar dugu Estatuak nola zuzentzen eta orientatzen dituen enpresak, bai bere kontrol zuzenaren pean dauden enpresen kasuan, bai haietan eragiteko zeharkako neurriak erabiltzen dituenean. Jarraian ageri den grafikoak modu sintetikoan laburtzen ditu estatu enpresen sektoreko erreformak.

2003an, Estatuaren aktiboak gainbegiratu eta administratzeko estatu batzordea (SASAC) sortu zen, Estatuaren izenean jarduteko, eta Estatuaren enpresa ez finantzarioak finantzatu eta arautzeko. 2006an, Txinaren lidertzak hiru multzotan bereizi zituen industria estrategikoak, eta Estatuaren aktiboen esleipena egokitu zuen. Horren atzean zegoen ideia zen Estatuak kontrol osoa izan behar zuela segurtasun nazionalerako eta ekonomia nazionalaren muinerako funtsezkoak diren industria giltzarrien gainean, ekonomiaren zutabe diren eta garapen ekonomiko nazionalarekin lotura estrategikoak dituzten industrietan kontrol zorrotza mantendu ahal izateko eta gainerako industrietan beharrezko eragina edukitzen jarraitzeko^[5].

1) Industria giltzarriak: defentsa, elektrizitatea, petrolioak, gasa, telekomunikazioak, ikatza, itsasoko garraioa, aireko garraioa eta trenbideak.

2) Industria zutabeak: automobilgintza, industria kimikoa, eraikuntza, elektronika, ekipoen fabrikazioa, metal ez ferrosoak, prospekzioa, altzairua eta teknologia.

3) Industria arruntak: nekazaritza, sendagaiak, higiezinak, turismoa, inbertsioa, zerbitzu profesionalak, merkataritza orokorra eta manufaktura orokorra.

Txinako enpresak hiru talde handitan sailkatzen dira: Txinan fundatutako enpresak, Hong Kong, Macao eta Taiwango inbertsioak dituzten enpresak, eta atzerriko inbertsioak dituz-

Estatu enpresetan egindako erreformen kronologia

2003 – 2013

Estatu kapitalaren kudeaketa

- Estatu-agentzia berria sortzen da, SASAC, estatuaren enpresa ez-finantzarioak operatu eta erregulatzen dituen.
- SASACek industria estrategikoetan kontzentratzen du estatuaren kapitala, hau da, segurtasun nazionalari loturik dauden eta ekonomia nazionalaren nukleoa osatzen duten industrietan; horretarako, estatu enpresa handien arteko fusioak eta erosketak sustatzen ditu.

1993 – 1997

Estatu enpresa handiak kontsolidatzea

Txinako Gobernuak estatu sektorea erreformatzen ahalegintzen da, Ohandiekin gelditu eta txikiak uzten dituen; horiek esan nahi du industria giltzarri eta estrategikoetako estatu enpresa handien gaineko kontrolari eusten diola eta, bitartean, estatu enpresa txikiak fusionatu, saldu edo itxi egiten dituela.

1978 – 1992

Estatu enpresen korporatibizazioa

- Txinak merkatu ekonomia sozialistaren kontzeptua sortu zuen 1992an, merkatu ekonomian jabetza publikoa gailentzean oinarritzen dena.
- Gobernu korporatibo modernoaren akzioen eta kontzeptuen sistema txertatzen da; horretarako, kontrol mekanismoak erabiltzen dira akziodunen bileretan, zuzendaritza batzordeetan eta gerenteen artean.

1998 – 2002

Boterea deszentralizatzea

- Gobernuak estatu enpresetan dituen funtzioak murrizteko prozesua hasten du Txinak, hiru fase hauetan:
- Estatu-enpresen autonomia operatiboa areagotzea (1978-1984).
 - Kontratu erantzukizunaren sistema txertatzea (1984-1989).
 - Jabetza eta gerentzia banatzea (1989-1992).

Iturria: China Briefing

ten enpresak. Estatu enpresak gobernu zentral batek sorturiko enpresak dira; hala ere, estatu enpresek barne hartzen dituzte, halaber, tokiko gobernuek kontrolatzen dituzten edo tokiko gobernuen inbertsioak dituzten enpresak. Oro har, hiru estatu enpresa mota daude:

a) Oso-osorik Estatuaren jabetzakoak diren enpresak (*state owned enterprises*, SOE) edo sektore publikoak % 100ean finantzatuak, zeinetan aktiboen % 100 Estatuaren jabetzakoak diren. Oro har, trenbideak, ura, gasa, elektrizitatea eta aireportuak kontrolatzen dituzten sektoreetan.

b) Estatuaren *holding*ak. Enpresa horietan, sektore publikoa da akzioen gehiengoaren jabea. Ondorioz, Estatuak eskubidea du erabaki garrantzitsuak kontrolatu eta/edo kudeatzeko. Besteak beste, baliabide naturalen, elektronikaren eta automobilen sektoreak daude talde honetan.

c) Estatuaren jabetzakoak diren akzioak dituzten enpresak, zeinetan sektore publikoak formalki ez duen erabakimenik.

Jarraian ageri den taula Txinako Gobernuak argitaratzen duen txostenetik (*statistical yearbook*) aterata dago. Txosten horretan, herrialdearen gizarteari eta ekonomiari buruzko datu ugari ageri dira; taula honetan, zehazki, 2017an erregistroan inskribatuta zeuden enpresen kopurua eta mota adierazten da^[6].

Pribatu gisa ezagutzen den sektorean (horrek ez du esan nahi beste sektore batzuetan kapital pribaturik ez dagoenik) inskribatutako enpresen kopuru osoa aztertuz gero, ikusiko dugu osotasunaren zatirik handiena hartzen dutela enpresa horiek, hain zuzen ere, % 79 inguru. Horrek ez du esan nahi sektore pribatua sektorerik garrantzitsuena denik; izan ere, gorago esan dudanez, sektore estrategiko ugari SASACen kontrolpean daude. 2022an, sektore publikoaren jabetza PBGaren % 40 ingurukoa zen, beheranzko joera batekin. Guztiz publikoak diren enpresak (*state owned enterprises*) guztizkoaren % 0,007 dira –Hong Kong, Macao eta Taiwango funtsak eta atzerriko funtsak dituzten enpresen antzeko ehunekoa–. Gainera, bazkide nagusia Estatua den enpresak (*state holding*) enpresa guztien % 0,18 dira. Estatu sektoreak oraindik ere pisu handia du BPGarekiko, baina sektore pribatua da enplegatzaile nagusia. 2018an, hiriguneetan, enpresa pribatuek 383 milioi langile zituzten; aldiz, enpresa «ez pribatuek» (*non private*) 168 milioi langile izan zituzten. Aldaketa argia izan da: Txina gai izan da egiten zituen inportazioak ordeztzeko egokiak ziren herrialdeko hornitzaileetan inbertsio handia eginez; horri esker, atzerriko herrialdeekiko mendekotasuna murriztu du, eta ekonomia nazional indartsua garatu.

**2018an, 48
enpresa nazional
Global Fortune
500 zerrendan,
hots, munduko
500 enpresa
garrantzitsuenen
zerrendan,
agertu ziren**

Enpresa-entitateen kopurua, erregistro estatusaren arabera (2017)

Enpresa kopurua	Kapital nazionalen enpresak	Estatuaren jabetzako enpresak	Jabetza kolektiboko enpresak	Enpresa kooperatiboak	Jabekidetzak	Erantzuzkizun mugatuko sozietatea	Akzio-korporazio mugatua	Pribatuak	Hong Kong, Macao eta Taiwaneko kapitaldun enpresak	Kanpoko inbertsioa duten enpresak
18.097.689	17.830.471	133.223	155.641	62.350	16.550	2.368.950	151.259	14.368.860	130.214	136.997

Iturria: China Statistical Yearbook 2019


Txinako Alderdi Komunistaren XIX. Kongresu Nazionalan, Xik erreforma berriak hitzeman zituen, estatu enpresak «indartsuagoak, hobeak eta handiagoak» izan zitezen eta «mundu mailan lehiatzeko gai ziren enpresa global» bilaka zitezen. 2018an, 48 enpresa nazional Global Fortune 500 zerrendan, hots, munduko 500 enpresa garrantzitsuenen zerrendan, agertu ziren; hau da, 2017an beste, baina 2003an baino sei gehiago. Hori lortzeko, Gobernu estatuko sektorea pixkanaka erreformatzeko neurri sorta bat sustatzen ari da, esaterako «Acción 200» izenekoa. Helburua ez da soilik teknologia ekoizle handia izatea, baizik eta lehen indar gisa kokatzea, teknologia berriak patentatuz eta enpresa gehienak mugituko diren estandar eta irizpide teknikoak eta zientifikoak ezarritik, adibidez, 6G sektorean.

2.1.3 Ekoizpen egitura eta enplegua

Bukatzeko, beharrezkoa da Txinako ekonomiaren sektore nagusiak eza-gutzea, bai eta sektoreek izan duten bilakaera eza-gutzea ere. Azpimarratu beharra dago landa eremuak izugarriko garrantzia izaten jarraitzen duela: 2018an, eskuragarri zegoen eskulana-ren % 44 inguru enplegatu zuen; hau da, 341 milioi langile inguru. Jarraian ageri den grafikoak ekonomiaren hiru sektoreen bilakaera erakusten du. BPGa etengabe hazi da, sektore industrialak % 40tik gorako pisua izaten jarraitu du, nekazaritza sektoreak murriztu egin du BPGarekiko zuen pisua, eta zerbitzuen sektoreak hazten jarraitu du, bai eta sektore industrialak gaintu ere. Ondorioz, ikus dezake-gunez, Txinak ekonomia garatuen oso antzeko egitura du, bai sektoreei dagokionez, bai enpleguari dagokionez, jarraian ikusiko dugun eran.

Bestalde, langabeziari erreparatzen badiogu, aldaketa nabarmen bat hautemango dugu. Sozialismoaren pean ohikoa zen bizi osorako enpleguaren ikuspegia errotik aldatu da. Gaur egun, produktibitateari eta lehiari lo-

Txinaren egitura produktiboa 1978 eta 2017 artean (BPGaren %)



Iturria: Pérez, A. (2019)

		1978	1985	1990	1995	2000	2005	2010	2015
Langabezia-tasa (%)	Txina	4,9	1,8	2,4	3	3,3	4,5	4,5	4,6
	Japonia	2,1	2,5	2,1	3,2	4,7	4,4	5,1	3,4
	AEB	6,4	7,1	6,8	5,7	4,0	5,1	9,6	5,3
	EB			8,6	10,8	9,3	8,9	9,5	9,3

Iturria: Pérez, A. (2019)

**Langabeziari
erreparatzen
badiogu, aldaketa
nabarmen bat
hautemango dugu**

turiko irizpideak dira nagusi. Eskulan merkeak (nahiz eta kostuak gora egin duen) oraindik ere aukera ematen dio lan soberakin handiak harrapatu eta landa eremuko enpresetako eta estatu enpresetako biztanleria desplazatuari lana eskaintzeko, bai eta urtez urte lan merkatuan txertatzen den lan indar geroz eta handiagoari lana eskaintzeko ere^[7].

2.2 Egitura militarra

2015etik aurrera, Txinak hainbat erreforma gauzatu ditu egitura militarra aldatu eta egungo erronketara egokitzeko. Ikusi besterik ez dago gas-tu militarra bikoiztu egin dela 2012tik 2021era; hala, 670 milioi yuanekoa izatetik 1350 milioi yuanekoa izatera igaro da. Lehenago aipatu den ustelkeriaren aurkako kanpainak eragin aipagarria izan zuen armadan; hain zuzen ere, legez kanpoko praktikak ezabatu ziren, eta Xirengandik hurbil zeuden sektoreak indartu. Erreformen helburuak argiak dira: Alderdiak Askapenerako Herri Armadaren gainean duen kontrola indartzea eta armada modernizatzea, lekuan bertan batailak irabazteko. Edozein unetan estatu kolpe bat edo koloretako iraultza bat gerta litekeen usteak Alderdia armada motzean lotuta eduki nahi izatera bultzatzen du. Horrekin batera, mundu mailako tentsio militarren gorakadaren eraginez, Txinak garrantzi handia ematen dio arlo militarri; horren adierazle da 2020ko Komite Zentralean arlo militarra ezarri izana egiturazko ardatz gisa, ia-ia Estatuaren eta Alderdiaren maila berean. 2035erako, defentsa nazionalaren eta Indar Armaturen modernizazioa burututa izan nahi dute; hau da, «Askapenerako Herri Armada guztiz eraldatu, mundu mailako gudaroste bat izan dadin XXI. mende erdialderako»^[8].

2035erako, defentsa nazionalaren eta Indar Armaturen modernizazioa burututa izan nahi dute; hau da, «Askapenerako Herri Armada guztiz eraldatu, mundu mailako gudaroste bat izan dadin XXI. mende erdialderako»

2.3 LURRALDEAREN ARLOKO ERRONKAK

Politika deszentralizatu batetik joera zentralizatzaileago batera igarotzeak hainbat barne arazo eragin ditu, Txina herrialde zabala eta konplexua baita. Txinako politika estuki lotuta egon da handitasun historikoaren ideiarekin, zeina mende batez lapurtua izan baitzen, Opioaren Gerretan izandako porrotaren eta Japoniaren okupazioaren eraginez. Horren ondorioz, errelato horrek ez du funtzio kohesionatzaile hutsa izan, baizik eta barne politikaren gidari ere izan da beste etnia eta mugimendu sezesionista batzuen aurrean. Honela banatzen da herrialdea administratiboki: 22 probintzia, 5 eskualde autonomo, 4 munizipalitate eta 2 administrazio berezi (ikus mapa). Horiek autonomia maila desberdina dute, betiere «Txina bakarraren» ideia pean. Gaur egun, Alderdiarekiko eta estatu instituzioekiko dagoen konfiantza murriztu lezaketen erronka sorta zabala du aurrean. Ondorioz, funtsezkotzat jotzen da guztiak modu egokian kudeatzea. Atal honetan, kasurik nagusienak aipatuko ditut, labur, kasu bakoitza azaltzeak dudana baino toki handiagoa hartuko bailuke^[8].



Txinako Herri Errepublikak: Banaketa administratiboak eta lurralde gatazkak



2.3.1 Taiwan

2012an, Xi boterera iritsi zenean, harremanak unerik onenetako batean zeuden, 1992ko adostasunaren bidetik. Kontuan hartu beharra dago nazioarteko norgehiagoka baten aurrean gaudela, non benetako Txina gisa aitortua izatea borrokatzen duen herrialdeak. Alde batetik, Txinako Herri Errepublikak (Txina kontinentalak) dago, eta, bestetik, Txinako Errepublika (Taiwan). Balantza argi eta garbi Txina kontinentalaren aldera lerratu da; izan ere, 2022an 181 herrialdek aitortzen zuten Herri Errepublikak, Taiwan aitortzen zuten 14 herrialdeen aldean. Gauzak aldatuz joan dira; gizarteak gero eta gehiago identifikatzen da «soilik taiwandar» gisa (% 60 baino gehiago 2021ean) eta, horrek, Alderdi Progresista Demokratikoaren gorakada ekarri du. Dena dela, independentzia aldarrikatzearen aldekoak % 25 ingurukoak dira; beste sektore batzuek *status quo*a era mugagabeaz luzatzea proposatzen dute, eta beste batzuk aurrerago erabakitzearen alde ageri dira. Horrek estutasunak ekarri dizkio Gobernuari, 2049rako herrialdea bateratuta egongo zela ezarri baitzuen (iraultza sozialistaren mendeurrenaren urtea), hori baita «amets txinatarrak» betetzeko urtea. Helburu hori marra gorria da; izan ere, umiliazioz beteriko mende baten ondoren, aldarrikapen nagusietakoak lurralderik ez galtzea eta «Txina bakarraren» inguruko batasuna dira. Helburu hori ez lortzeak Alderdiak ezarritako helburu nagusietako bati uko egitea esan nahiko luke; ez dirudi hori onartzeko prest dagoenik, biztanleriaren arreta handi

baten babesa galtzea ekarriko bailuke. Gainera, kontuan hartu beharra dago Taiwan erdieroaleen munduko ekoizlerik handienetako bat dela; horrek berebiziko garrantzia du gaur egungo munduan. Helburua da atxikitzea bide baketsuen bitartez gauzatzea; izan ere, inbasio militar batek barne arazo larriak eragin ditzake. Hala ere, independentzia aldarrikatuz gero, Txinak argi utzi du tropak bidaltzeko prest dagoela. Horri AEBren balizko esku hartzea gehitu behar zaio, babes finantzario eta militar zabala eskaini baitio Taiwan 1949ko gerra zibilean Kuomintang garaitua izan zenetik eta uhartean ezartzea erabaki zuenetik. Esku-hartze hori ez da ideia zoroa; Biden presidentek berak adierazi zuen horretarako prest zegoela. Datorren urtean hautakundeak egongo dira uhartean; ondorioz, aukera asko daude gatazka hau berriz ere lehen planoan agertzeko.

2.3.2 Hong Kong

Taiwan bezalaxe, Hong Kong «herrialde bat, bi sistema» ereduaren parte da, zeinetan kapitalismoa toki zehatz batzuetan martxan dagoen baina gainerako guztia sozialismo gisa definitzen den. Gobernu ereduaren oinarrian autogobernura-ko gaitasun handia da-

go, eta horren erakusle da erakunde, konstituzio, moneta, lege sistema edota pasaporte propioak dituztela. Hala ere, Konstituzioaren 45. eta 68. artikuluek arazo handiak eragin dituzte; artikuluhoriek, hain zuzen ere, Legegintza Kontseiluaren eta buru exekutiboaren hautaketa nola egin behar den zehazten dute, sufragio unibertsalaren bidez. Eztabaida negoziatuetatik inposiziara igaro da; izan ere, huts egin zuen 2017ko Pekineko erreformak aukera emango luke Gobernu zentralaren kontrako hautagaiak kentzeko. Hain zuzen ere, hor dago eztabaida: Pekinen aldeko sektoreek Hong Kongen gaineko nolabaiteko kontrola izaten jarraitu nahi duten bitartean, «demokrata» gisa izendatzen den sektoreak sufragio unibertsal bidezko hautaketa Gobernu zentralaren injerentziarik gabe gauza dadila nahi du. Horrek eta hiriak bizi duen krisi sozialak testuinguru arriskutsua sortu dute. Bizitzaren kostu altuak –batez ere etxebizitzarenak–, lan baldintza txarrek eta soldatak izozteak atsekabe giroa eragin dute. Elementu horiek guztiek sektore demokrata



erradikalizatzea ekarri dute; sektore horren barruan, indarkeriarik ezaren kontrako eta autodeterminazioaren aldeko posturak dituen korrante lokalistik indarra hartu du. 2019an, Estradizio Legea ezartzea proposatu zenean, protestek joera erradikalagoa hartu zuten eta mobilizazio sozial handia egon zen; horren ondorioz, Gobernu zentralak atzera egin zuen. Pandemia betean, Gobernuak Segurtasun Lege berria onetsi zuen; lege horrek barne hartzen zituen, besteak beste, terrorismoa, sezesioa, subertsioa eta atzerriko indarrekin kolusioa. Horrekin batera, Gobernu zentralari eskumena ematen zitzaion zenbait kasuren gaineko jurisdikzioa bere egiteko, tokiko auzitegien gainetik. Gobernuak, bere estrategiari jarraikiz, beste urrats bat egitea eta beste hauteskunde lege bat ezartzea erabaki zuen, « Hong Kong abertzaleek gobernatzen dutela» bermatzeko.

2.3.3 Tibet

Lurralde hau eta Xinjiang, besteak beste, herrialdetik deskonektatuta egon dira, eta horrek, historikoki, nolabaiteko autonomia eman die gobernu forma desberdinak ezartzeko. Landa eremuko komunak desagertu zirenean –komunak eskualde horren batasun ekonomiko eta sozialaren zutabea ziren–, jende asko langabezia kronikoan harrapatuta geratu zen 1978tik aurrera. Deszentralizazio politikarekin, Gobernu komunistaren aurka altxatu ziren zenbait sektore (latak, Tibeten, edo mulak, Xinjiangen) berriz ere boterean jarri ziren, hau da, aristokrazia feudala berriz ere boterera itzuli zen. Aldaketa horren eraginez, partikularitasun etnikoa klase elkartasunari gailendu zitzaion berriz ere. Separatismoaren beldurra monje budisten monasterioetatik dator; hala ere, gaur egungo dalai lama (lamaisten edo Tibeteko budisten figura nagusia) Txina barruan autonomia gehiago izatea proposatzen du. Hala ere, disidentzia adierazpenak ez dira askotan sinetsarazi nahi izaten diguten bezain



handiak. Fenomenorik aipagarriena monjeen immolazioa da; 2008 eta 2018 artean, 155 monje immolatu dira, gehienak gizarte maila apaletakoak. Gazteen artean etorkizun espektatiba txikiak izateak monasterioko bizitza besarkatzera bultzatu ditu haietako asko, familientzat karga ez izate aldera. Gobernu zentralak zenbait neurri jarri ditu martxan egoera ekonomikoa eta soziala hobetzeko, eta, hala eskualdea egonkortzeko. Horrekin bat, ezin du gu alde batera utzi lurralde honek ur hornidurarako duen garrantzia; hain zuzen ere, ura funtsezkoa da bai energiaren sektorerako, bai kontsumorako. Lurralde honen gaineko kontrolak posizio hidrohegemonikoan kokatzen du Txina zona horretan; izan ere, Asiako ibaien iturburu nagusiak kontrolatzen ditu.

2.3.4 Xinjiang

Txinako eskualderik handiena da, eta herrialdearen ipar-ekialdean dago kokatuta. Biztanleriaren gehiengoa (% 45 inguru) *uigur* etniakoa da, eta biztanleriaren % 40 inguru, berriz, *han* etniakoa, Txinan nagusi den etniakoa, alegia. 1930 eta 1940ko hamarkadetan gatazken eta sezesio saiakeren foku izan zen eskualde hau Xinjiango Uigur Eskualde Autonomo izendatu zuten 1949an komunistek gairatu zutenean. Txinari dakarkion balizko arriskua ulertzeko elementu giltzarrietako bat mugimendu islamista erradikala da: 1989an, uigur fundamentalistek Ekialdeko Turkestango Mugimendu Islamikoa sortu zuten, Xinjiang eta inguruko herrialdeak barne hartuko zituen estatu islamiko bat sortzeko helburuz. Bitxia da NBEk erakunde terrorista gisa sailkatu zuela 2020an, baina AEBk izaera hori kendu zion. AEBren txotxongiloek Txinak gauzatu dituen terrorismoaren aurkako politikak erabili dituzte Txinaren izen ona zikintzeko arma gisa, hala nola kontrol polizial eta soziala edo hezkuntza eta enplegua sustatzeko programak. Apustua argia izan da: Txina uigurren aurkako genozidioa gauzatzen ari dela

sinestartzea, adibidez adierazita esterilizazio politikak sustatzen ari zirela, nahiz eta seme-alaba bakarraren politika ez zaien aplikatu Txinako 55 etnia minoritarioei.

2.4 Zero COVID politika

Zero COVID politikaren helburua birusari hedatzen ez uztea zen; izan ere, egoera deskontrolatuz gero, osasun sistema kolapsatu egingo zen. Osasun Batzorde Nazionalak emandako datuen arabera, pandemiaren lehen bi urteetan, mundu osoan egon diren kutsatzeen % 0,1 soilik jakinarazi ditu Txinak, nahiz eta bertako biztanleria mundu osokoaren % 20 izan. Txinako BPGaren hazkunde tasa % 2,3koa izan zen 2020an, eta % 8,1ekoa 2021ean. Orain arte, COVID-19aren aurkako gerra Xiren Gobernuaren zutabeetako bat eta harrotasun nazionalerako arrazoi izan da; ondorioz, birusarekin bizitzera igarotzea trantsizio konplexua da. Egon litezkeen agerraldiak erronka handia dira, eta hori modu egokian ez kudeatzeak herritarrek Txinako Alderdi Komunistarengan duten konfiantza higatu dezake.

ONDORIOAK

Guztiak oso polita dirudi Txinari buruz hitz egiten denean: itxuraz mugarik ez duen hazkunde, muturreko pobrezia desagerraraztea, *win-win* kontzeptuan oinarritutako kanpo politika, hegemonista ez den pentsamoldea... Niri zertxobait eszeptikoagoa izatea tokatzen zait; izan ere, beti da errazagoa onbera izatea kontuak nahi-ko ondo doazen eta ekonomiak hazten jarraitzen duen bitartean, baina hori aldatu egin daiteke datozen urteetan. Harry, X. Wu ekonomialariaren esanetan, Txinaren produktibitatea ez da 1990ko hamarkadatik hobetu. Hazkunde makinaren eta langileek kopurua handitzean oinarritu da, gauza gehiago ekoitzi ahal izateko –hazkunde estentsiboan, alegia–. Baina dagoeneko trabak aurkitzen ari da lanaren indar produktiboa areagotzeko, hau da, lan gutxiagorekin gehiago ekoizteko. Hori

da ekonomia nagusiek, garapen maila jakin batera iristean, pairatzen duten gaitzetako bat eta, dirudienez, Txina ez da salbuespena. Horrek eta azken urteotan izugarri handitu den zorraz arazo larriak eragin ditzakete herrialdearen ekonomian eta gizartearen. Jaio-tza tasaren beherakada edo gazteen langabezia prozesu horren adierazle dira. Oraingoz ez du lortu bere hazkunde barne kontsumoan oinarritzea, nahiz eta hori aldatzen saiatzen ari den. Hala ere, era horretako aldaketek zailtasun handiak dakartzate; izan ere, askorentzat onuragarria den eredu batean aldaketa instituzionalak egitea eskatzen dute^[9]. Hazkunde motelduko balitz, (hori iragartzen du Nazioarteko Diru Funttsak) edo atzeraldi bat egongo balitz, murriztu egingo lirateke hobe-kuntzak bizi kalitatean, eta garapena frenatuko litzateke; horrek barne politika astindu lezake. Hori gertatuko balitz, baliteke jarrera agresiboago bat ikustea (nahiz eta, batzuen ustez, Txinaren pentsamolde politikoa horrelakoa ez izan) bere barne politikan (Taiwanekiko, esaterako) eta bere kanpo politikan (mundu mailako tentsio militarren gorakadari dagokionez). Adi egon beharko dugu. ●



ERREFERENTZIAK

- [1] Barros, M. & Garcia, J.R. (2003). *El área económica china*
- [2] Claudio, G. (2009). *China, 30 años de crecimiento económico*
- [3] García, J.A. (2022). *China. Amenaza o esperanza*. Akal
- [3] Milhaupt, C. & Wenton, Z. (2015). *Beyond Ownership: State Capitalism and Chinese Firm*.
- [4] Beltrán, L. (2020). *China tecnológica. Del atraso a la vanguardia*
- [5] Zhang, Y. (2019) *China y la reforma de las empresas estatales*. Obtenido de: <https://www.china-briefing.com/news/china-y-las-reformas-de-las-empresas-estatales-que-significa-la-ultima-ronda-de-reformas-para-el-mercado/>
- [6] China Statistical Yearbook 2019. Obtenido de: <http://www.stats.gov.cn/tjsj/ndsj/2019/indexeh.htm>
- [7] Dussel, E. (2022). *La «omnipresencia» del sector público de China y su relación con América Latina y el Caribe*
- [8] Sierra, A. & Marrades, A. (1997). *La nueva era de China. Descifrando la guerra*
- [9] Pettis, M. & Klein, M. (2021). *Las guerras comerciales son guerras de clases*. Capitan Swing



Xi Jinpingen hirugarren agintaldia: Txinaren bide zalantzagarria mundu mailako hegemoniarantz

Testua — **Jose Castillo**

Joan den 2022ko urrian, Txinako Alderdi Komunistak bere XX. Kongresu Nazionala egin zuen, Xi Jinpingen hirugarren agintaldia berresteko helburuz. Horrek Txinako agintari lider nagusiari Alderdiko idazkari nagusi moduan bere agintaldia luzatzea ahalbidetu dio. Tradizioz, Mao Zedong hil ondoren Alderdia berregituratu zenetik, kargu hori bete izan dutenek bi agintaldi egin dituzte. Barne-mailako berregituraketa egiteko ez ezik, Txinako Alderdi Komunistaren XX. Kongresuak balio izan du agintari txinatar gorenak Txinak potentzia moduan, Estatu Batuekin lehiatuz, mundu mailako hegemonia geopolitikoa lortzera bidean bete beharreko estrategia definitzeko ere. Kontuan hartu behar da 2022an bertan Txina «erronka sistemiko» moduan definitu zuela NATOk. Xi Jinpinggek markatutako estrategiaren oinarriak hauek dira: eredu ekonomikoa aldatzea, ez dadin soilik esportazioetan oinarritu eta herrialdeak barne kontsumoa areagotu dezan; giltzarri izan daitezkeen teknologien (5G) ekoizpenaren eta sorreraren gaineko kontrola; eta bere eraginpean dagoen Pazifikoko eremurik hurbilenaren gaineko kontrol militarra, lehen mailako itsas potentzia bilakatzeko aukera emango dion neurrian.

Txinaren gorakadak dakartzan galdera eta inkognitak asko diren arren, badira bereziki nabarmentzen diren bi: gai izango al Txina da munduko hegemonia nagusiaren rola jokatzeko, krisian dagoen kapitalismo globala egonkortuz eta metaketa-ziklo berri baten zabalpena gidatuz? Eta, bestalde, Txinak mundu mailako hegemoniarantz hartutako bidean, aukerarik egongo al da eskala handiko gerra bat ekiditeko Txinaren eta Estatu Batuek ordeztzen duten eta dekadentzian dagoen potentzia inperialista hegemonikoaren aurka?

XX. mendea bere iragan inperialistan izandakoaren itzalpean hasi zuen Txinak; garai hartan, Txinak «Erdiguneko Inperio» moduan izendatzen zuen bere burua. Mendebaldeko historiografiaren baitan kontakizun historiko menderatzaileak duen joera eurozentrikoa gorabehera, Txina lur- eta merkantzia-esparruetan lehen mailako potentzia izan zen XVIII. mendera arte. XIX. mende erdialdetik aurrera eta 1945eko Japoniaren kanporaketara arte hala izan zen, harik eta, Txinako historiografian «Umiliazioaren Mende» izenez ezaguna den horretan, Txina Mendebaldeko modernitate kapitalistaren bigarren mailako rolera baztertu zuten arte. Mendebaldeko potentziek haren portu eta lehengaien gaineko kontrol

komertziala eurenganatu zuten, eta haren «anaia nagusiak» (Japoniak) ere inbaditu zuen lurraldea.

Hala ere, Bigarren Mundu Gerraren amaieran japoniarrek behin-betiko kanporatzearekin batera, loraldi garai berri bat hasi zen Asiako erraldoiaren historian. Berpizkunde nazional horretan eginkizun garrantzitsua izan du Txinako Alderdi Komunistak. Bera izan zen japoniarren kontrako garaipen militarreko aktore nagusia, eta gerra zibil arrakastatsua gidatu zuen Txinako nazionalista burgesen aurka. Horrela ezarri zen Txinako Herri Errepublikak 1949an, joera marxista-leninistakoa eta Mao Zedong lider komunistaren ideietan oinarritutakoa.

Oso aldakorrak izan ziren Maoren zuzendaritzapean igaro ziren lehen urteak, errepublikak estilo sobietarreko estatu-sozialismoaren alde apustu egitea erabaki baitzuen. Txinak SEB-Sek eman ziezaiokeen laguntza ekonomiko-militar guztia galdu zuen 50eko hamarkadaren amaiera baino lehen, errebisionismo akusazioak eta elkarri buruz zuten errezelo geopolitikoa medio. Laguntza hori erabakigarria zen garai hartan oraindik nekazaritzan oinarritzen zen herrialde batentzat. Hala ere, Maok industrializazio-zantzu batzuk lortu zituen herrialdean, eta, gero, 1978tik aurrera, Deng Xiaopingek bira kapitalista izango zenaren oinarriak ezarri zituen. Dengek (Txinaren zuzendaritza hartu zuen Maoren ondorengoa) ekonomiaren liberalizazio kapitalista ahalbidetu zuen. Horrela, herrialdea atzerriko inbertsioei ireki zien eta fabrika industrial ugari pribatizatu zituen, lur komunalak kasu. Modu horretan bihurtu zen Txina erakargarri Mendebaldeko kapitalentzat: esku-lan merkea zuen eta estatu-errepresioa gogorra erabiltzen zuen sindikalismoaren edozein zantzuren aurrean.

2001ean, munduko kapitalismoaren sareetara sartzea ziurtatu zuen Txinak, Munduko Merkataritza Antolakundean onartuta. Horrek aukera eman zion Txinari lan-indar mer-

kearen bidez ekoitzitako merkantziak Mendebaldeko gainerako herrialdeetara esportatzeko, baina baita garapen kapitalistaren eredu berri bat sortzeko ere. Hala, munduko bigarren potentzia ekonomiko bihurtu zen 2010erako. Azken 30 urteetan, % 10 ingurukoak edo altuagoak izan dira bere BPGaren hazkunde-tasak; datu horiek Mendebaldeko erdiguneko herrialdeen garapen kapitalistaren hasieran baino ez dira ikusi. Denbora-tarte horretan bertan, 740 milioi lagun baino gehiago atera dira pobreziatik, Munduko Bankuaren arabera^[1].

Xi Jinping, handik gutxira, 2012. urtearen hasieran, Txinako Alderdi Komunistaren botere gorenera iritsi zen, helburu argi batzuekin: ekonomiaren nolabaiteko liberalizazioa leheneratzea eta Estatuaren bidez sektore ekonomiko giltzarriak berriro kontrolatzea, munduko lehen potentzia ekonomiko bihurtzeko; bera buru izanda Alderdi Estatuaren ereduak indarrean jarraitzen duela ziurtatzea; eta, azkenik, Txina militarki modernizatzea, Taiwanen berrintegrazioarekin bateratzeko eta Estatu Batuen aurkako munduko nagusitasun geopolitikoaren lehiarako prestatzeko.

1978: PARADIGMA ALDAKETA

Deng Xiaoping boterera iritsi zenean, Txinak ekonomia liberalizatze bideari ekin zion, eta atzerriko inbertsioari ateak ireki zizkion. Hala ere, Txinako hazkundera, munduko bigarren potentzia ekonomiko bihurtzeraino gora egitea ahalbidetu ziona, ez zen zutabe guztiz sendoetan oinarritu, bere eredu atzerriko kapitalen inbertsioaren eta merkantzien esportazioaren oso mendekoa baitzen. Hau da, modernizazio kapitalistaren lehen etapa batean, Txina, Deng Xiaoping Alderdi Komunistaren agintean zela, ez zen gehiegi arduratu herrialde berruan klase ertainak sortzeaz, beren kontsumoaren bidez ekoizpen nazionalari eutsiko ziotenak, baizik eta dena jokatu zuen erdi-periferiako herrialde

2001ean, munduko kapitalismoaren sareetara sartzea ziurtatu zuen Txinak, Munduko Merkataritza Antolakundean onartuta. Horrek aukera eman zion Txinari lan-indar merkearen bidez ekoitzitako merkantziak Mendebaldeko gainerako herrialdeetara esportatzeko, baina baita garapen kapitalistaren eredu berri bat sortzeko ere





gisa mundu-sistema kapitalistan txer-tatzearen alde, ondoren lehen mailako herrialde zentral izatera igarotzeko.

1971n Estatu Batuek Txina Asia-Pazifikoko eszenatokiko aktore garrantzitsu gisa onartu zutenetik, Nixon presidenteak SESB ahultzeko gidatutako estrategia gisa, Txina produkzio-kate globaletan txertatu zen, mendeko moduan; horretarako, lan-kostu txikiko eredu bat bultzatu zuen, eta horrek merkataritza-superabitateak bata bestearen atzetik metatzea ahalbidetu dio, esportazioak hain merkeak direlako. Hazkunde-estrategia horrek ziurtatu zuen industriako soldatak produktibitatearen hobekuntzen oso azpitik egongo zirela beti, eta aukera eman zuen kanpoko lehiakortasuna etengabe hobetzeko.

Zentzu horretan, landa-eremuaren deskolektibizazioa funtsezkoa izan zen, milaka txinatarrek kostaldeko hiri industrialetara joan behar izan baitzuten. Horrek lan-indar debalutua etengabe laneratzea ekarri du, eta industriako soldatak oso baxu mantentzea. Az-

ken 30 urteotan, landa-eremuko biztanleen % 50ek baino gehiagok beren etxea utzi dute hiri nagusiren batera joateko, eta horri esker, Txinako Herri Bankuaren (hango Banku Zentrala) daturatutako oinarritutako Ricardo Molero Simarro^[2] ekonomialariaren kalkuluen arabera, 1990eko hamarkadaren hasieratik 2008ko finantza-krisia piztu arte, industriaren eta zerbitzuen sektoreko produktibitatea urteko batez besteko %14,1eko erritmoan hazi zen; soldata errealak, aldiz, % 5,4ko hazkundea besterik ez zuen izan.

Hala ere, Adam Tooze eta Michael Pettis^[3] ekonomialari sinologoen diotenez, Txinaren hazkundeak beti izan zuen oztopo bat: oinarritzko produktuen eta bitarteko osagaien inportazioekiko eta Mendebaldeko teknologia eta makineria aurreratuarekiko gehiegizko menpekotasuna. Horrek sortzen zuen hazkunde-ereduan, Txina Estatu Batuek beren enpresak Txinara ekoizpen-adarrak deslokalizatzea ahalbidetzearen mende zegoen. Gainera, bere merkataritza-defizitak finantzatuak

izan ziren, Txina AEBetako zorraren erosle nagusietako bat bihurtu zelako. Horrela, osagarritasun ekonomikoko harreman bat sortu zen, eta, horren ondorioz, Txina zen, bitxia bada ere, AEBetako defiziten finantzatzailer nagusia. Estatu Batuek egoera hori kontrolpean izango zutela uste zuten, eta Txina beti menpeko rol batean izango zutela.

Txinako agintariak, hazkunde-eredu horren ahuleziez ohartu ziren 2008ko krisiaren hasierarekin; hain zuzen, paradigma hori sakonki aldatu zen Xi Jinping boterera iritsi zenean. Izan ere, krisi ekonomikoaren lehen bi urteetan, Txinako esportazioak Estatu Batuekiko eta Europarekiko % 13 eta % 23 jaitsi ziren, hurrenez hurren, eta horrek merkataritza-defizita eragin zuen Txinako merkataritza-balantzan. Alderdi Komunistak orduz geroztik hartutako estrategia balio erantsi handiko prozesu industrial teknologikoetan inbertitzea izan da. Horregatik, Txinako Gobernuak, gaur egun, barne-inbertsio propioa bultzatzearen

alde egiten du. Baina finantza-krisiari eman zitzaion berehalako erantzuna azpiegitura- eta etxebizitza-inbertsioaren bultzada masiboa izan zen, atzerriko inbertsioaren murrizketa konpentsatzeko, eta hori, gaur egun, Txinan higiezinaren eta finantzen burbuila bat lehertzeko arriskua sortzen ari da.

XI JINPING BOTERERA IRISTEA

Ez da pentsatu behar Txinako Alderdi Komunista erakunde monolitiko eta erabat kohesionatua denik lidergo baten eta haren politburoaren inguruan. Aitzitik, Alderdi Komunista dimentsio izugarrietako Alderdia da: ia 100 milioi militante ditu, eta mailaz igotzea eta Alderdian eragin handiagoa izatea bilatzen duten hainbat presio-talde burokratikok osatzen dute. Izan ere, Txinako ereduaren ezaugarri nagusia Alderdi Estatu bat izatea da^[4], hau da, Alderdiko erantzukizun politikoko karguak Estatuko botere politiko-karguetan islatzen dira, eta Txinako Gobernuan ezin da goi-politikariaren kategoria izan Alderdi Komunistako botere-postu gorenetatik igaro gabe.

Hiru dira Alderdi Komunista osatzen duten boteredun presio-talde nagusiak: elite ekonomiko kapitalistenei lotutakoa, Shanghaiko presio-talde politiko gisa ezagutzen dena; populista, gastu eta zorpetze publikoko politika handiagok sartu nahi dituen, baina

Txinaren hazkundeak beti izan zuen oztopo bat: oinarrizko produktuen eta bitarteko osagaien inportazioekiko eta Mendebaldeko teknologia eta makineria aurrerratuarekiko gehiegizko menpekotasuna zuen

baita enpresa-liberalizazio handiagoa ere (Hu Jintao Txinako aurreko agintaria ildo honetakoa zen); eta, azkenik, egungo idazkari nagusi Xi Jinpingen presio-talde politikoa, Alderdi Estatuaren eskuetan botere politiko eta ekonomikoa gehiago zentralizatzeko joera duena.

Xi Jinping Shanghaiko burgesia esportatzailea ordezkatzeko duen presio-talde politikoaren babesean hazi zen, baina Alderdiaren eta Estatuaren botere gorenera iristeko talde horrek dituen zenbait ikuspegi problematikotatik emantzipatu behar zela ulertu zuen. Izan ere, Xi Jinpinggek ulertu zuen 2010eko hamarkadak, krisi ekonomikoaren hedapenarekin, ez ziola

Ez da pentsatu behar Txinako Alderdi Komunista erakunde monolitiko eta erabat kohesionatua denik lidergo baten eta haren politburoaren inguruan. Aitzitik, Alderdi Komunista dimentsio izugarrietako Alderdia da: ia 100 milioi militante ditu, eta mailaz igotzea eta Alderdian eragin handiagoa izatea bilatzen duten hainbat presio-talde burokratikok osatzen dute

Xi Jinping Alderdi Komunistaren botere gorenera iritsi zen 2012an, jakinda beharrezkoak zituela kapital txinatarra berriz estatalizatzea eta proiektu militar bat, Asiako potentzia Estatu Batuekiko zuzeneko edo zeharkako balizko liskar militar baterako prestatuko duena

uzten Txinari aurreko 30 urteetako hazkunde-ereduarekin jarraitzen, ezta Mendebaldearen aurrean jarrera geopolitiko neutrala izaten ere. Xi Jinping Alderdi Komunistaren botere gorenera iritsi zen 2012an, jakinda beharrezkoak zituela kapital txinatarra berriz estatalizatzea eta proiektu militar bat, Asiako potentzia Estatu Batuekiko zuzeneko edo zeharkako balizko liskar militar baterako prestatuko duena.

Horrela, Xi Jinpingen agintaldia hainbat frakzioen arteko botere-orekan oinarritzen da, eta buruzagitza mantentzea ahalbidetzen diote, betiere Txinak munduko hegemoniarantz igotzen jarraitzen badu. Zentzu horretan, Xiren agintaldian, enpresa kapitalista nagusiek arazoak izan dituzte birrestatalizazio-proiektuaren ondorioz. Adibidez, 2020ko bigarren erdian, Alderdi Komunistak blokeatu egin zuen Ant Group enpresa burtsara ateratzea, Alibaba talde txinatarreko afiliatua, eta irteera horrekin 30.000 milioi dolar baino gehiago bildu nahi zituen. Kasualitatez, enpresa horretako inbertitzaile handienetako batzuek lotura dute Shanghaiko presio-taldeko politikariekin, eta, beraz, politikoki arriskutsua zen Xiren ildokoentzat.

Txinako zenbait enpresaren estatu-zentralizazioa ez dator bat sobietar estiloko estatu-sozialismoaren agindutara itzultzearekin. Kontrakoa, datozen

borroka geopolitikoko garaietan interes ekonomikoak Alderdi Komunistarekin berriz lerraratzeko mekanismoa da, baina enpresa publikoen barruan lehiaren eta lan-antolamenduaren arau kapitalista eta langileen babes gutxikoak mantentzen dira. Hala ere, Txinako enpresa publikoen birzentralizazioa eta botere-igoera argia da mundu osoan, gaur egun *Fortune Globale* 500en munduko enpresa aberatsenen rankingean agertzen diren 102 enpresa publikoetatik 75 txinatarrak baitira. Enpresa-ehunaren zati handi baten gaineko kontrol zuzen horrek plangintza-elementu estrategiko bat ematen dio Txinako Estatuari, Mendebaldeko herrialdeek ez dutena.

Zalantzarik gabe, Xi Jinpingen plan handia, eta ia agintaldiaren hasieratik gauzatzen ari dena, Zetaren Ibilbide Berriarena da (BRI ere esaten zaio ingelesezko siglengatik). Ekimena 2013ko irailean aurkeztu zen, eta bere helburu nagusia Eurasia osoan zehar, Pekinetik Lisboaraino, loturak ehuntzea da, izan ekonomikoak, garraioari dagozkionak zein kulturalak. Plan handi horren bidez, Txinak bere eragin-eremua ziurtatu nahi du, eta behin betiko urratsa eman, «munduaren fabrika» izateari uzteko eta ekoizpen teknologikoan munduko liderra izateko, eta mundu mailako bizitza- eta politika-estandarretan eragiteko gai izateko.

Proiektuak hainbat azpiegitura zabaldu ditu 140 herrialdetan zehar, eta Latinoamerikara ere egin du jauzi. 2019an argitaratutako ikerketetan, kalkulatu zen proiektuaren inbertsio osoa 2030era arte 26 trilioi dolarrera iritsiko zela, eta parte hartzen duten enpresez gain, Txinako Estatuak horietako trilioi bat inbertitzeko konpromisoa hartzeko prest zegoela^[5]. Baliabideen hedapen horrek lau helburu argi ditu Pekinentzat:

Lehen helburua, Asiako erraldoia bizitzen ari den dezelerazio ekonomikoa iraultzea eta nazioarteko sistema ekonomikoaren funtsezko eragile bihurtzea da. Estatu kapitalista guztiei bezala, Txinari ere iristen ari zaio bere heltze-garaia, eta dagoeneko kapital-gainmetaketaren nolabaiteko krisia pairatzen ari da. Horrela, Zetaren Ibilbide Berria funtsezkoa da merkantzia txinatarrak itsasoko eta lehorreko ibilbideen bidez esportatzeko, baita balio erantsi industriar txikiagoko adarrek lan-kostu txikiagoko herrialdeetara deslokalizatzeko ere; Txinak, bitartean, aukera du balio erantsi handiko merkantzetan espezializatzeko, hala nola mikrotxipetan, erdieroaleetan, auto elektrikoetan edo robotikan.

Ildo horretan, Txinarentzat funtsezkoa da Europar Batasuna bazkide komertzial nagusiaren posizioari eustea, Estatu Batuek zigorrak eta gerra komertziala erabiliz egin nahi duten bereizketaren kontrara. Txina eta EBren arteko interdependentzia bi norabide-takoa da, eta Alemaniak Txinarekiko esportazioekiko eta inportazioekiko duen mendekotasun berezian argi gelditzen da hori. Adibidez, 2020an, COVID-19aren pandemia betean, Txinaren susperraldi azkarrak eta Alemaniako BMW eta Daimler enpresei piezak eta autoak erosten jarraitu izanari esker, enpresa horiek ez zuten galerarik izan, European mugikortasun txikieneko urteetako bat izan bazen ere.

Bigarren helburua, Asia erdialdeko eta Asia-Pazifikoko lurraldeetan ekonomia- eta segurtasun-eremu bat ezartzea da, hau da, bloke ekonomiko bat sortzea bere lehorreko zein itsasoko muga hurbilenen inguruan, Estatu Batuek Txina ekonomikoki zein militarki inguratu ez dezaten. Izan ere, «inguratzea» da SESBen edo Errusiaren eraginari aurre egiteko Estatu Batuek historikoki erabili izan duten euste-estrategia nagusietakoa. Ildo horretan, ez da baztertzen Txinak bere mugetatik kanpo itsas base militarrek ezartzea bultza dezakeenik, hala nola Gwadarreko Arabiar Itsasoaren gainean dagoen ur sakonetako portuan (Pakistango Balutxistan probintzia), zeina dagoeneko Overseas Port Holding Company Txinako estatuko enpresaren parte baita.





Zalantzarik gabe, Xi Jinpingen plan handia, eta ia agintaldiaren hasieratik gauzatzen ari dena, Zetaren Ibilbide Berriarena da (BRI ere esaten zaio ingelesezko siglengatik). Ekimena 2013ko irailean aurkeztu zen, eta bere helburu nagusia Eurasia osoan zehar, Pekinetik Lisboaraino, loturak ehuntzea da, izan ekonomikoak, garraioari dagozkionak zein kulturalak. Plan handi horren bidez, Txinak bere eragin-eremua ziurtatu nahi du

Hirugarren helburua Txinaren aldeko iritzi publikoa sortzea da, batez ere munduko hegoaldeko herrialdeetan edo periferikoetan. Txinak «inperialismo bigun» moduko bat ezarri nahi du; horretarako, kontrol militar edo ekonomiko zuzenaren bidez hirugarren herrialdeen leialtasuna ziurtatu beharrean, herrialde periferiko horietako elite politikoen leialtasuna erosi nahi du inbertsioaren eta azpiegituren garapenaren truke. Inbertsio horrek Pekini bere makineria industrial indarrean mantentzeko behar dituen baliabide naturalen eta lehengaien kopuru izugarria eskuratzea bermatzen dio.

Laugarren eta azken helburua potentzia arauemaike bihurtzea da, hau da, bere printzipio politikoek eta balioek munduan zehar influentzia irabaztea. Adibidez, *Made in China 2025* proiektuarekin, Txinak balio handiagoko produktuak eta zerbitzuak ekoizti nahi ditu, hala nola aeroespazialak edo erdieroaleak, produktu eta zerbitzu horietan atzerriko hornitzaileekiko independentzia lortzeko; bada, *Standards 2035* proiektuaren bidez, arau teknologikoak eta kontrol informatikokoak birdefinitu nahi ditu.

Ildo beretik, Txinak «trantsizio ekologikoa» deiturikoaren buru jarri nahi du, Mendebaldeko potentziek trantsizio horren zentzua ezartzea galaraziz, eta bere bizitza- eta ekoizpen-estandar «berde» propioak sortuz. Kontuan izan behar da Txina liderra dela «teknologia berdeen» ekoizpenean; izan ere, munduko automobil elektrikoetarako baterien bi heren inguru eta eguzki-modulu guztien ia hiru laurdenak Txinako lantegietan ekoizten dira gaur egun^[6].

MUNDUKO HEGEMONIA LORTZEKO ERRONKAK

Txinak ekonomikoki ez ezik, militarki eta politikoki ere azken hamarkadan bereganatu duen boterea gorabehera, oraindik ez dago argi Estatu Batuen lekukoa hartuko ote duen munduko kapitalismoaren jomugak zuzentzeko gai den munduko lehen potentzia gisa. Ildo horretan, Xi Jinpinggek Alder-

di Komunistaren buru izateko hirugarren agintaldirako ezarri dituen erronkak lau puntutan laburbil daitezke: Txinako klase ertaina sendotzea, ekoizpen nazionalerako kontsumo-oinarri izan dadin, are gehiago gerra komertzialak intentsitatea handitzera joko duen eta eredu esportatzaile txinatarra ahuldu daitekeen garai honetan; Europar Batasunarekiko harreman ekonomiko eta politikoak sendotzen saiatzea, nahiz eta Estatu Batuak EB Txinaren zirkuitutik isolatzen saiatuko den; dibisa txinatarren, yuanaren edo renminbiaren nazioarteko garrantzia handitzea; eta, azkenik, itsas potentzia bihurtzea, Indo-Pazifikoko ibilbideen eta Hego Txinako Itsasoaren kontrol militar eta komertzial handiagoaren bidez.

Credit Suisse Wealth Report erakundearen 2018ko urteko txostenaren arabera, pandemiaren krisia hasi baino bi urte lehenago, Txinak munduko klase ertaintzat jotzen denaren ia erdia biltzen zuen (txostenaren arabera, 10.000 eta 100.000 dolar arteko ondare garbia zuen biztanleria horrek). Horrek esan nahi du Txinak erosteko nolabaiteko ahalmena duten 641 milioi kontsumitzaile inguru dituela dagoeneko. Hori oinarritzko giltzarri bat da Txinak nahi duen ekoizpen-eredura aldatzeko, esportazioen menpe egoteari uzteko, batez ere Estatu Batuen menpe egoteari uzteko bi potentzien arteko merkataritza-gerra deklaratu dionetik.

Txinak gero eta zor publiko handiagoa ekarriko dion arazo batekin egingo du topo, eta zor horren egonkortasuna ez dago ziurtatuta epe ertaineko etorkizunean

Hala ere, Txinako hazkunde-ereduan oraindik desberdintasun handiak daude, eta, itxura guztien arabera, klase ertainetan sar daitekeen langile-biztanleriaren proportzioa bere goia jotzen ari da, eta horrek landa-eremuen eta hiri-eremuen arteko desberdintasuna areagotzen du. Baina, era berean, hiri-konurbazio handiak (Hong Kong, esaterako) pobrezia-masa zabalen kontzentratzaile bihurtu dira; izan ere, hango bost pertsonatik bat, biztanleriaren ia % 20, 500 dolar estatubatuar baino gutxiagorekin bizi da hilean. Shanghain edo Pekinen, esaterako, familien urteko batez besteko diru-sarrerara 6.800 dolarrekoa da, Credit Suissek klase ertainaren diru-sarreratzat jotzen duen hori baino askoz ere txikiagoa.

Horren aurrean, Xi Jinpingen gobernuak «oparotasun komuna» ize-neko plan ekonomikoa abiarazi zuen 2017an, Alderdiaren Komite Zentralaren XIX. Kongresuaren atarian. Plan horren helburua da Txinako eremu geografikoen arteko desberdintasunak murriztea, baina baita klase ertain baten pixkanakako hazkunde bermatzea ere. Azken helburua biztanleriaren eros-ahalmena handitzeko pobrezia-mailak murriztea da, eta, horrela, barne-kontsumoan oinarritutako ekonomiaren hazkunde bermatzea, non zerbitzuen sektoreak eta goi-teknologiako industriak gero eta pisu handiagoa izango duten. Alabaina, Txinak

gero eta zor publiko handiagoa ekarriko dion arazo batekin egingo du topo, eta zor horren egonkortasuna ez dago ziurtatuta epe ertaineko etorkizunean.

Gainera, Txinak produkzio-eredua aldatu nahi badu ere, horrek ez du esan nahi bere esportazio-potentzialari uko egin nahi dionik. Aitzitik, Txina Asia-Pazifikoko zonaldean bere eragin ekonomikoaren pean dagoen eremu bat sortzen saiatzen ari da. Eskualdeko Ekonomia Integralerako Elkartea (RCEP ingelesezko sigletan) Asia-Pazifikoko hamabost estaturen arteko merkataritza askeko hitzarmena da, eta horien artean, Txinaz gain, Australia, Hego Korea edo Japonia bezalako potentzia ekonomikoak nabarmentzen dira. Txinak estatu horietan duen eragin esportatzailea gero eta handiagoa da.

Horri erantzunez, Amerikako Estatu Batuek atzean utzi dute Trumpen Administrazioak egindako politika orokorra, hau da, Txinako esportazioak muga-zergekin masiboki tratatzea; izan ere, ohartu dira hori kaltegarria dela beren kapital nazionalarentzat. Bidenen presidentetzarekin, gerra komertzialaren tentsioak gora egiten jarraituko du, baina orain Txinaren urruntze selektiboa izango da, eta Txinako goi-teknologiei egingo die kalte. Horrela, Txinako langileen soldata igoerekin batera, atzerriko goi-teknologiako enpresentzat, gero eta zailagoa da Txinan ekoizteko eredua errepikatzen jarraitzea eta ondoren merkantzia horiek munduko gainerako herrialdeetara esportatzea^[7].

Ildo horretan, EBrekiko etorkizuneko harremanak funtsezkoak dira Txinarentzat. EB eta Txina merkataritza-bazkide garrantzitsuak dira: 2021ean, Txina EBren hirugarren merkataritza-bazkide garrantzitsua izan zen salgaien esportazioei dagokienez (kopuru osoaren % 10,2), eta EBren bazkide nagusia inportazioei dagokienez (% 22,4). Baina, egia esan, EBn gero eta deserosoago sentitzen dira Txinako inportazioekiko «gehiagizko mendekotasun» moduan ulertzen duten horrekin,

batez ere intsumo kritikoei dagokienez. Hori da, argi eta garbi, eguzki-panelen edo bateria elektrikoetarako material kritikoaren kasua.

Hori aprobeztatzen ari dira Estatu Batuak, EBren eta Txinaren arteko bereizketa handiagoa bultzatzen saiatzen ari baitira, EBren norabidea berriz ere AEBen mendekotasun ekonomikora bideratzeko. Horretarako, Estatu Batuak karta militarra erabiltzen ari dira, eta Ukrainako gerra Europar Batasuna eta Txina gero eta gehiago lotzen zituen integrazio ekonomiko euroasiatikoa oztopatzeko aukera bat da. Horrela, AEBek bilatzen dute Txina gero eta gehiago inplikatzeko Errusiari laguntzeko, EBk Pekinekiko dituen zigorren eta harremanen hausturaren politika handiagoa justifikatzeko. Horregatik, Txinako Kanpo Harremanetarako Ministerioak, Municheko azken Segurtasun Konferentzian, 2023ko otsailean, Ukrainarako su-etenerako proposamen bat argitaratu zuen, herrialde guztien subiranotasuna eta lurralde-integritatea errespetatuz, Txinari ez baitzaio interesatzen Ukrainan iraupen luzeko gerra bat izatea.

Estatu Batuak karta militarra erabiltzen ari dira, eta Ukrainako gerra Europar Batasuna eta Txina gero eta gehiago lotzen zituen integrazio ekonomiko euroasiatikoa oztopatzeko aukera bat da. Horrela, AEBek bilatzen dute Txina gero eta gehiago inplikatzeko Errusiari laguntzeko, EBk Pekinekiko dituen zigorren eta harremanen hausturaren politika handiagoa justifikatzeko

Merkataritza-nagusitasunari estu-ki lotuta dago dibisaren nagusitasuna edo monetak nazioarteko ordainketa-sisteman duen garrantzia. Merkan-tzia gehienak erosteko erabiltzen den ordainketa-moneta kontrolatzen due-nak eta bankuen erreserba gehienak mantentzen dituenak bere barne-defi-zitak kontrola ditzake, eta zorra gehia-go jaulkitzeko aukera izan. Gaur egun, hori da dolarraren eta Estatu Batuen kasua. Hala ere, apurka-apurka hazten ari den arren, Txinako monetaren, yua-naren edo renminbi ere deiturikoaren erabilera oraindik nahiko mugatua da, eta trukerako bosgarren moneta da mundu mailan, dolarraren eta euroa-ren atzetik ez ezik, liberaren eta yen japoniarraren atzetik dago.

Xi Jinpingen plana dolarraren he-gemonia hori ahultzen hastean datza, ziur aski jakinda Txinak munduko lehen potentzia ekonomikoaren pos-tua artean dolarrari dibisen hegemonia kendu gabe lortuko duela. Horretarako, ezinbestekoa da dolarrari lehentasuna kentzea hidrokarburoen merkatarit-zan, eta, bereziki, petrolioaren sale-rosketan. Horretarako, Txinako Go-bernuak petrolio yuanelan erosten hasteko akordioa sinatu zuen 2017an, Errusiarekin.

Putinek agindutako Ukrainako es-ku-hartze militarren ondoren, eta Errusiari ezarritako zigorren ondoren, hala nola bere aktiboak dolarretan edo eurotan izoztea, akordioa indartsuago bihurtu da, eta Errusiak yuan kopuru handiagoa eskuratu du Mendebaldeko zigorrak saihesteko. Gainera, 2022ko abenduan Txinako agintariek Golko-ko Estatu Arabiarrentzako Kooperazio Kontseiluko kideekin izandako bilera-ren ondoren, akordio hori Saudi Ara-biara eta petrolio esportatzen duten beste monarkia batzuetara hedatu da, eta gero eta petrolio kopuru handia-goak saltzen hasiko dira Txinari yua-netan, kontuan izanda Txina dela mun-duan hidrokarburo gehien inportatzen duen herrialdea^[8].

Xi Jinping Askapenerako Herri Armada berregituratzen eta modernizatzen ari da, 2049an (Txinako Herri Errepublikaren ezarpenaren mendeurrena) munduko lehen mailako potentzia militar bihurtzeko helburuarekin. Horretarako, itsas armadari eta Hego Txinako Itsasoaren kontrolari garrantzi berezia eman nahi zaie, itsas potentzia bihurtzeko helburuarekin

Dena den, AEBek dolarraren nagu-sitasunari eusten diote beren potentzia militar osoak babestuta, eta ahalmen hori berdintzetik urrun dago oraindik Txina. Horregatik, Xi Jinping Askape-nerako Herri Armada berregituratzen eta modernizatzen ari da, 2049an (Txinako Herri Errepublikaren ezarpena-ren mendeurrena) munduko lehen mailako potentzia militar bihurtzeko helburuarekin. Horretarako, itsas ar-madari eta Hego Txinako Itsasoaren kontrolari garrantzi berezia eman nahi zaie, itsas potentzia bihurtzeko helburuarekin.

Munduko kapitalismoaren hege-monía ziklo guztietan, sistema mun-du-mailan erregulatzeke boterea izan duen potentzia beti izan da itsas poten-tzia bat lehorreko potentzia baten aur-



Txinak bere kostaldetik hurbilen dauden uharteen lehen katean defentsa-gerriko bat ezarri nahi du, bere kostaldean ekonomikoki aurreratuenak diren lurraldeak babestu ahal izateko eta balizko gerra-gatazka batean merkataritza-bideen kontrola mantendu ahal izateko

ka (adibidez, Estatu Batuak SESBren aurka XX. mendeko zikloan; Errusia lurreko potentzia bat baita, itsaso bero eta nabigagarrietarako irteera eskasagatik)^[9]. Gaur egun, Asiako erraldoiaren armadak 350 borroka-ontzi inguru ditu –hegazkin-ontziak, destruktoreak eta fragatak–, baina Txinak zifra hori 460ra igotzeko asmoa du 2030erako.

Txinako itsas garapen osoa eragotzi duena inguruan duen uharte-kate zabala izan da. Gaur egun, uharte horien kontrola ziurtatzea eta Malakako itsasarteraino doan bidea, Malaysia eta Singapur artean, *de facto* kontrolatzea eskatzen du Pekinen planak, munduko itsas merkataritzaren %60 inguru handik igarotzen baita. Hori dela eta, Txinak bere kostaldetik hurbilen dauden uharteen lehen katean defentsa-gerriko bat ezarri nahi du, bere kostaldean ekonomikoki aurreratuenak diren lurraldeak babestu ahal izateko eta balizko gerra-gatazka batean merkataritza-bideen kontrola mantendu ahal izateko.

Baina Txinako agintari gorenak beren boterea uharteen lehen katetik harago proiektatu eta Ozeano Barean kontrol handiagoa lortu ahal izango duen itsas armada bat nahi dute, sakontasun estrategikoa irabazteko eta lehen alerta sistema azkar bat izateko Txinako lurretara egindako edozein itsas erasoren aurrean. Horretarako, ezinbestekoa da Txinak bere lurraldea erabat bateratzea, eta Taiwan Txinako Herri Errepublikara itzularaztea. Taiwanek uharte bat eskainiko lioke Txinako Gobernuari Indo-Pazifikora proiektatutako portu militar zabalak jartzeko. Modu horretan, lurraldeko lehen potentzia militar eztaba daezin bihurtuko litzateke. Baina Estatu Batuak horren jakitun dira, eta ziurrenik ez dute Taiwanen eta Txinaren arteko bateratzerik onartuko aldez aurretik eskala kalkulazinezko gatazka beliko bat sortu gabe.

ONDORIOAK

Azken batean, Txinak eta Xi Jinpingen agindupeko Txinako Alderdi Komunistak aukera historikoa dute munduko hegemonia kapitalista Mendebaldetik Asiarantz biraratzeke. Txinako hazkunde ekonomikoaren proiektzioa, nahiz eta BPGren %5 inguruko hazkunde-tasetara murriztu den 2023tik aurrera, oraindik ere Mendebaldeko Estatu gehienetakoa-
ren bikoitza edo hirukoitza da. Gainera, konparazioan, abantaila handiak ditu ekoizpen-eredua goi-teknologiak eta birmoldaketa «berdea» deritzonak gidatutakora izatera bidean; izan ere, mundu osoko industriak kontsumitzen dituen lur arraroetako mineralen % 80 inguru ekoizten ditu, zeinak auto elektrikoen motorrak, turbina eolikoak, telefono mugikorrak edo mikrotxipen zati handi bat fabrikatzeko erabiltzen diren.

**Gaur egun, aurrez aurre dauden
bloke geopolitikoaren dinamika bat
zehazten ari da: Errusia eta Txina
AEBen eta NATOren blokearen aurka**





**Oraingoz gerra lokalizatuak
edo delegaziozkoak izan diren
arren, Ukrainakoa kasu, ezin
da baztertu geopolitikan
«Tuzididesen tranpa» izenez
ezagutzen dena betetzea eta
mundu-mailako hegemoniaren
aldaketa gainbeheran dauden
eta goranzko joera duten
potentzien arteko eskala
handiko gerra bihurtzea**

Txinako agintarien arazoa zera da, Asiako erraldoiak bere heltze ekonomikoa beste potentzia hegemonikoei iritsi zaiena baino lehenago iritsi dakioken zantzuak erakusten dituela. Horiek arautzen dituen potentzia hegemoniko bati lotutako ziklo ekonomikoen teorizazioan^[9], potentzia jakin baten hegemoniaren amaitzera doala iragaritzen duen zantzia haren ekonomiaren finantzarizazioa da. Hain zuzen, Txinak dagoeneko erakusten ditu finantzarizazio horren zantzuak: 2020ko bigarren hiruhilekoan, COVID-19aren pandemiaren hasierarekin batera, zorpetze publikoa, pribatua eta Txinako familiena BPGaren % 280ra iritsi zen. Gaur egun lehertzen ari den higiezin burbuila hasiberrian islatzen da hori, zeinak ia porrotera eraman baitzuen Txinako bigarren higiezinaren sustatzailer handiena: Evergrande.

Horregatik, autore marxista txinatarrek, Li Minqi^[10] ekonomialariak esaterako, argudiatzen dute Txinak Estatu Batuak ordezkatzeko gaitasun osoa ez duen arren, beste potentziek are aukera gutxiago dituztela. Agian, mundu-sistema kapitalistak botere hegemoniko berri bat sortuz bere burua berritzen jarraitu ezin duen puntura iritsi gara, eta nagusitasun argirik gabeko multipolaritaterako bide ezegun bat ireki da. Izan ere, zalantzakoa da Txina gai ote den barne-konsumoko botere ekonomikoa eta kanpo-kontrolako botere militarra garatzeko, zeina beharrezkoa baita Estatu Batuek izan dutenaren moduko mundu-mailako hegemonia lortzeko.

Hori esanda, nahiz eta Txinak, munduko merkatuetan integratuta zibilizazio-eredu kapitalistaren edo burgesaren barruan jarduten duen -balioaren legea onartuz eta bere langile-klasearen lan-baldintzak devaluatuz-, kontrol sozialeko praktika batzuk esportatzen eta geopolitikoki legitimatzen ari da, eta Mendebaldeko eliteak berehala hasi dira kopiatzen. Are gehiago COVID-19aren pandemiaren eta Txinan probatutako konfinamendu handien ondoren. Mendebaldeko agintariek ondo ikasi dituzte Txinako Alderdi Komunistak ezarritako teknikak, eta martxan jarri dituzte, esaterako, aurpegi-ezagutzaren bidezko kontrola, telefono mugikorren bidezko geolokalizazioa edo joan-etorrien murrizketa.

Alabaina, zalantzarik gabe, Txina mundu-mailako boterera igotzearekin gizateriari agertzen zaion arriskurik handiena suntsipen masiboa da, zeina Estatu Batuekin eskala handiko borroka militar baten ondorioz gerta baitaiteke. Gaur egun, aurrez aurre dauden bloke geopolitikoen dinamika bat zehazten ari da: Errusia eta Txina AEBen eta NATOren blokearen aurka. Oraingoz gerra lokalizatuak edo delegaziozkoak izan diren arren, Ukrainakoa kasu, ezin da baztertu geopolitikan «Tuzididesen tranpa» izenez ezagutzen dena betetzea eta mundu-mailako hegemoniaren aldaketa gainbeheran dauden eta goranzko joera duten potentzien arteko eskala handiko gerra bihurtzea. Argi dagoena da Xi Jinpinggek munduko kapitalismoa balio txinatarrekin gobernatu nahi duela, baina ez izaera sozialistako zibilizazio-alternatiba bat eskainiz, hau da, ez komunista txinatarrek beren hastapenetan eta boterera igotzean egin zuten moduan. ●

OHARRAK

[1] Txinako pobreziaren bilakaerari buruz, *Four Decades of Poverty Reduction in China* izeneko Munduko Bankuaren azken txostena kontsulta daiteke.

[2] Landa-eremuko hiri-exodoaren eta Deng Xiaoping en igoeraren ondoren txinatar hazkunde-ereduaren datuak sakon aztertzen dira Molero Simarro, R. (2015): «Desigualdad social, complementaridad con EE.UU. y contradicciones frente a la crisis: los límites del modelo chino de crecimiento», Mateo, J. P. ed., *Capitalismo en recesión. La crisis en el centro y la periferia de la economía mundial*, Maia Ediciones, Madrid, 183-203 or.

[3] Adam Toozeren liburu hauetan kontsulta daitezke Txinari buruzko kapitulu interesgarriak: *Crash: cómo una década de crisis financiera ha cambiado el mundo* (2018) edo *El apagón: cómo el coronavirus sacudió la economía mundial* (2021). Michael Pettisi dagokionez, bere lan nagusia, Txinak 2008ko krisia inpaktu txikiagoarekin nola saihesten duen zehatz-mehatz aztertzen duena, Matthew C. Kleinek batera idatzitakoa da: *Trade Wars Are Class Wars* (2020).

[4] Alderdi Estatua esamoldea iruditzen zait egokiena Txinako eredu politikoa izendatzeko; maileguan hartu diet geopolitikan espezializatutako *Descifrando la guerra* komunikabidearen bi egileri (gaztelaniaz erabiltzen dute: «Partido-Estado»). Sierra, A. y Marrades, A. (2022): *La nueva era de China: La gran estrategia para el sueño de Xi Jinping*, Valencia, Fuera de Ruta.

[5] Txinako Gobernuak Zetaren Ibilbide Berriari buruz ematen duen informazio guztia *Belt and Road Portal* izeneko web atari ofizialean kontsulta daiteke.

[6] Teknologia «berdearen» mendekotasunari dagokionez, Ameriketako Estatu Batuek teknologia horiek ekoizteko beharrezkoa den bitarteko produktu oro muga-zergen bidez tratatzeko asmoa dute. Sakontzeko, *Financial Times* en artikulua hau kontsulta daiteke, Derek Browerrek eta Amanda Chuk idatzia, 2023ko otsailaren 15ean: «The US plan to become the world 's cleantech superpower».

[7] Atzerriko goi-teknologiako enpresek Txinako lurzoruan dituzten zailtasunen adibide Kyocera goi-teknologiako osagaien enpresa japoniarra izan daiteke, bere produkzioaren zati bat Asiako hego-ekialdeko herrialdeetara deslokalizatzen ari baita, Txinan garestiago ateratzen baitzaio bere produktuak ekoiztea eta esportatzea. Horri dagokionez, *Financial Times*-ek argitaratutako «China no longer viable as world 's factory, says Kyocera» erreportajea irakur daiteke, Eri Sugiurak idatzia 2023ko otsailaren 20an.

[8] Michael Pettis Txinako geoekonomiako adituak, adibidez, argudiatzen du yuan txinatarrek ez duela AEBetako dolarra ordezkatuko epe labur edo ertainean munduko dibisa hegemoniko gisa. Izan ere, yuana ez da oraindik dibisa erakargarria nazioarteko inbertitzaile gehienentzat, zaila baita beste moneta batera bihurtzea eta Txinako Gobernuak kapital-kontrolak egiten baititu. Pettis, M. (2022): «Will the Chinese renminbi replace the US dollar?», *Review of Keynesian Economics*, 10(4), 499-512. orr.

[9] Lehorreko potentzia kontrolatzen duen itsas potentziaren ideia hau etengabe errepikatzen da Geopolitikaren klasikoetan. Mackinder, H. J. (2010): «El pivote geográfico de la historia». *Geopolítica(s). Revista de estudios sobre espacio y poder*, 1(2), 301-319. orr.


[10] Arrighi, G. (2014): *El largo siglo XX. Dinero y poder en los orígenes de nuestra época*, Akal, Madrid.


[11] Minqi, L. (2008): *The Rise of China and the Demise of the Capitalist World Economy*, New York, Monthly Review Press.

Munduaren fabrika izatetik, mundu-mailako potentzia izatera:

Testua — **Mikel Bartolomé**

Irudia — **Zoe Martikorena**





Txinaren emergentzia ekoizpen globalaren polo eta eragile geopolitiko gisa

Nagusiki nekazaritzan oinarritutako ekonomia azpigaratu bat izatetik, erosahalten parekotasunean munduko ekonomia nagusia izatera igaro da Txina hamarkada gutxi batzuen buruan. 1980an munduko BPGaren % 2,3 baino gutxiago zegokion, eta herrialdearen garrantzia hazten joan da geroztik, 2022an % 18,5 berea izan arte. Zalantzarik gabe, neurri horretako ekonomia bateko eragile politikoek, haien tamaina hutsagatik, garrantzi handia izango dute munduko ekonomiaren eta harreman globalen nondik norakoak erabakitzeko orduan. Testu honetan Txinako ekonomiaren bilakaera eta haren nazioarteko proiektzioa deskribatzen eta baloratzen saiatuko gara, maila globaleko metaketa kapitalistaren funtsezko gunea baita.

Hasteko, gure helburu nagusia Txinako ekonomiaren kanpo-harremanen eta nazioarteko posizioaren azterketa eskaintzea bada ere, komeni da herrialdearen barne-hazkundearen ereduaren bilakaera laburki berrikustea; Txinaren barne-funtzionamendu ekonomikoa ulertzea oso lagungarria izan baitaiteke nazioartean duen proiektzioa ulertzeko.

TXINAREN HAZKUNDE EREDUA

Txinak azken hiru hamarkadetan izan duen hazkunde ekonomikoa ezohiko jazoera izan da mende honetan. Munduko ekonomiaren hazkundetasak, oro har, urteko % 1-3 artean ibili dira azken hiru hamarkadetan, eta Txinak % 7 eta % 12 arteko hazkundetasak izan ditu denboraldi berean. Dena dela, kontuan izan behar dugu herrialdeko jarduera ekonomikoaren hazkunde handi hori baldintza berezietan gertatu dela.

Lehenik eta behin, Txinako ekonomiaren egitura bera aldatu zen 90eko hamarkadatik aurrera, nekazaritza-sektorearen garrantzia txikituz eta industria-jardueraren presentzia handituz, balio erantsi txikiko eta maila teknologiko baxuko manufakturen eta industria-ondasunen ekoizpen masiboan espezializatuz.

Ekoizpenaren trantsizio hori herrialdearen ekialdeko landa-eremuetatik zetozen nekazaritzako langile asko mendebaldeko hiriguneetara mugitu zirelako izan zen posible. Hala, diziplinatutako lan-indar kopuru handia eskura izateak lantegi txinatarrei aukera eman zien soldata baxuak ordaintzeko, eta, hala, lan-kostu oso txikiak izateko. Mozkin gehienak berrinbertitzen zirenez eta urbanizazio azkarrak azpiegiturak eraikitzea bultzatzen zuenez Txinako ekonomiaren inbertsio-maila handia bere ekonomiaren oinarrietako bat bihurtu zen. Aldi berean, Txinako Estatuak atzerriko kapitala herrialdean sartzea eta etekinak bertatik ateratzeko oztopatzen zuten politikak ezarri zi-

Txinako administrazioa bere ekoizpen-eredua asko aldatzen saiatu da, bi helburu nagusi hauek begiz jota:

1) garapen teknologikoan aurrera egitea balio erantsi handiko industria bilakatzeko asmoz eta 2) bere autonomia estrategikoa handitzea

tuen, eta truke-tasa txikia mantendu zuen dolarrarekiko. Horrela, estatuak nazioartean oso lehiakorra zen kapital industrialak garatzen lagundu zuen, haren ekoizpena esportaziora bideratu eta Txinako ekonomiaren motor gisa jardungo zuena^[1].

Bigarrenik, eta are garrantzitsuagoa dena, Txinako ekonomiak aurrezteko joera handia du, hau da, kontsumorako erabili beharrean, errentaren zati handi bat aurrezki gisa gordetzen da, etorkizunean inbertitzeko. Era berean, aurrezki handi horri esker, herrialdeko hiri-azpiegitura modernizatzeraz bideratutako inbertsio-tasa handiak mantendu ditu. Hala, hazkunde eredu txinatarra etxebizitzien^[2] eta azpiegitura estrategikoen eraikuntzan oinarritu da –eta, hein handi batean, horrela izaten jarraitzen du–, hala nola trenbideak, portuak eta parke industriak.

Jarduera ekonomikoa izugarri handitzea ekarri duen arren, egiturazko bi arazo nagusi izan ditu eredu horrek: haren barne-kontsumoa ahula da eta esportazioekiko mendekotasun handia du. Egia esan, bi fenomenoak txanpon beraren bi aldeak dira^[3]: langile txinatarrek jasotzen duten soldata apalen ondorioz murriztu egiten da kontsumitzeko duten gaitasuna. Aldi berean,

nazioarteko merkatuan lehiakortasunari eutsi ahal izateko lan-kostu txikiak izatearen abantailak aprobetxatu dituzte Txinako enpresek. Hau da, bere lan-kostuak gainerako ekoizleek baino txikiagoak izanik Txinako ekonomia gai izan da mundu mailako merkaturako lanez intentsiboak diren industria-ondasunak modu lehiakorrean sortzeko. Horregatik guztiagatik, ekoizpenaren zati handi bat herrialdearen kanpoaldera bideratu da nahitaez, eta esportazioak ekonomiaren hazkundearen eragile indartsua izan dira.

Nahiz eta zaila den data zehatz bat jartzea, 2010eko hamarkadaren erdialdetik aurrera gutxi gorabehera, Txinako administrazioa bere ekoizpen-eredua asko aldatzen saiatu da, bi helburu nagusi hauek begiz jota: 1) garapen teknologikoan aurrera egitea balio erantsi handiko industria bilakatzeko asmoz eta 2) bere autonomia estrategikoa handitzea, hau da, bere jarduera ekonomikoa gauzatzean munduko gainerrako potentzien mende egoteari uztea, ahal den neurrian. Goi-mailako teknologiko jardueretarako eraldaketaren aldeko apustu horren giltzarria da digitalizazioari lotutako punta-puntako industriaren garapena.

2015eko maiatzean administrazio zentralak, Xi Jinping buru zuela, eremu horretako zuzendaritza estrategikoa bideratzeko plana iragarri zuen: «Made in China 2025»^[4] hamar urteko ekintza-planak lehentasunezkoztat jotzen du 4.0 industriarekin lotutako jarduerak sustatzea. Horien artean, garrantzi berezia ematen zaie robotikari, elektronikari, industria aeroespazialari, ibilgailu elektrikoari eta biomedikuntzari. Hala, Asiako erraldoiak argi utzi zuen abangoardiako teknologian potentzia bihurtzeko apustua. Baina helburu hori betetzeko, jakina, Txinak nazioarteko harreman-sare konplexu bat sortu behar du.

TXINA AFRIKAN

Duela urte batzuetatik hona kapital txinatarrak Afrikan duen presentziaren berri izan dugun arren presentzia hori asko handitu da azken hiru urteetan. 2020an soilik ia 3.000 milioi dolar bideratu zituen Asiako erraldoiak zuzeneko inbertsioan^[5], eta, gainera, Txinako Gobernuak da Afrikako maillegu-emaila handiena: 2000. urtetik 153.000 milioi dolarreko kredituak eman dizkie Afrikako ekonomiei orotara^[6]. Datu hori perspektiban jartzeko, Angolako BPGa –kontinenteko seigarren ekonomiarik handiena eta bere petrolioagatik kreditu-kopuru txinatar handiena jaso duena– 63.000 milioi dolarrekoa izan zen 2021ean.

Bestalde, finantzaketarako laguntza izateaz gain, mendekotasuna eta diziplinatzea sortzeko mekanismo garrantzitsua da zorra. Kasu askotan Afrikako estatuak Txinako estatu-jabetzako enpresetara jotzen dute azpiegitura handiak eraikitzeako orduan. Horrelako proiektuen kostua oso handia izaten denez, Afrikako estatuak zorpetu egin behar dira horiek finantzatzeko, eta, horretarako, Txinako bankuetara jotzen dute. Hau da, Txinako Estatuak, bere enpresen partaidetzaren bidez Afrikako lurraldean garapen proiektu handiak eraikitzen, eta, aldi berean, finantzatzen ditu.



Garrantzitsua da aipatzea Afrikara zuzendutako atzerriko inbertsioa azken bi urteetan asko hazten ari den arren Txinak atzerrian egindako inbertsio osoaren % 4 baino ez dela^[7]. Kontua da Afrikak jasotzen duela, alde handiz, atzerriko inbertsio gutxien per capita, eta inbertsio hori beharrezkoa dela kapitala metatzeko prozesuari laguntzeko, batez ere azpigaratutako ekonomietan. Horretan datza, hain zuzen ere, Txinak Afrikan presentzia izatearen garrantzia: Mendebaldeko kapitalak eta bere nazioarteko erakundeek, baliabide garrantzitsuak erauzteko orduan izan ezik, historikoki ahaztutako herrialdeei laguntza ekonomikoa eta azpiegitura zibil eta komertzialaren garapena emateko gai izan da.

Jakina, Txinak ere baditu interesak eskualdean eta, noski, Txinaren eta Afrikaren arteko harreman komertzial eta instituzionalek finantza-harremak baino paper garrantzitsuagoa dute. Eskematikoki, interes horiek honela laburbil daitezke: 1) erauzketa-eredu bat ezartzea, lehengai estrategikoen hor-

**Saharaz
hegoaldeko
Afrikak
garrantzi handia
du lehengai
estrategikoen
hornikuntzari
dagokionez,
bertan baitaude
abangoardiako
teknologiarekin
lotutako osagaiak
fabrikatzeko
beharrezkoak
diren lehengai
gehienak**


Horretan datza, hain zuzen ere, Txinak Afrikan presentzia izatearen garrantzia: Mendebaldeko kapitalak eta bere nazioarteko erakundeek, baliabide garrantzitsuak erauzteko orduan izan ezik, historikoki ahaztutako herrialdeei laguntza ekonomikoa eta azpiegitura zibil eta komertzialaren garapena emateko gai izan da

nikuntza-iturriak lortzeaz arduratuko dena –elikagaiez gain–, hazkundera sustatzeko beharrezkoak izango direnak; horrekin lotuta, 2) nazioarteko hornikuntza-kateetan aitzindaritza posizioa eskuratzea; eta 3) nazioarteko erakundeen aurrean duen zilegitasuna handitzea, esku-hartze politikorako eta negoziatzeko ahalmen handiagoa lortzeko. Hain zuzen, Txinak Afrikan duen presentziaren helburuetako bat Taiwanen nazioarteko deslegitimazioa bilatzea da; izan ere, Txinarekin harreman diplomatikoak izan nahi dituzten herrialdeek bete beharreko baldintza bakanetako bat uhartea estatu independente gisa ez aitortzea da, Txinako Herri Errepublikak osatzen duen eskualde gisa baizik.

Bestalde, Saharaz hegoaldeko Afrikak garrantzi handia du lehengai estrategikoen hornikuntzari dagokionez, bertan baitaude abangoardiako teknologiarekin lotutako osagaiak fabrikatzeko beharrezkoak diren lehengai gehienak.

Txina Saharaz hegoaldeko Afrikan mende dago ia erabat kobaltoaren eta beste mineral eta metal batzuen inportazioari dagokionez, hala nola manganesoa, kromoa, eztainua eta koltan ezaguna. Txinako ekonomia da, alde handiz, mineral horien munduko






Mikrotxipen ekoizpenean nagusitasuna eskuratzea bereziki garrantzitsua da munduko potentzia teknologiko bihurtzeko, eta horixe da AEBen indargune nagusia

inportatzaile nagusia goi-teknologiako osagaien ekoizpenerako, mikrotxipak –erdieroaleak– eta bateria elektrikoak, esaterako. Saharaz hegoaldeko kontinentea kromo, niobio eta tantaloren hornitzaile garrantzitsua ere bada. Material horiekin tenperatura altuekiko, presioarekiko eta oxidazioarekiko erresistentzia handia duten super-aleazioak sortzen dira, giltzarriak diren industria aeroespazialean, energiaren industrian eta industria militarrean erabiltzen direnak.

COVID-19aren krisiaren garaian eta botila-lepoak jazotakoan agerian geratu zen moduan, erdieroaleak ezinbestekoak dira elementu elektronikoak dituen edozein tresna –telefonoak, ordenagailuak, ibilgailuak eta armamentua– ekoizteko eta, oro har, ekonomia-erentzat. Antzeko zerbait gertatzen da litiozko bateriekin, batez ere ibilgailu elektrikoetan erabiltzen direnekin. Bateria elektrikoek eta erdieroalek duten garrantzia haien konplexutasun teknologikoan datza, eta horiek ekoizteko behar diren lehengai oso zehatz eta urrietan. Hori dela eta, horiek ekoizteko gaitasuna lortzeak botere-posizio izugarria ematen du nazioartean, eta Txinak baterien ekoizpen-prozesuaren % 75 inguru kontrolatzen du. Horrek esan nahi du gainerako ekonomiak Asiako erraldoiaren mende daudela teknologia hori behar duen edozein gauza ekoizteko orduan^[8].




TEKNOLOGIA-GERRA

Testuinguru horretan, txinatar ekonomiaaren handitzearen balizko ondorioen beldur, norgehiagoka teknologikoan posizioak irabazten saiatu da Washington, zigor ekonomikoen eta esku-hartze mediatikoen bidez. Hala, lasterketa baino gerra bilakatu da norgehiagoka teknologikoa. 2018an eta 2019an soilik gobernu estatubatuarrek bere herrialdeko konpainiei 150 enpresa txinatar baino gehiagorekin merkataritza-harremanak izatea debekatu zien –ezin diete produkturik erosi, ezta saldu ere–. Gaur egun, orotara, 600 konpainia inguru daude AEBetako gobernuak betoa jarritako enpresek osatzen duten *Entity* zerrendan. Txina mikrotxipak ekoizteko osagaiak eta bitarteko ondasunak hornitzen dituzten enpresen nazioarteko saretik kanpo uztea da merkataritza-gerra horren helburua^[9].

Esan bezala, mikrotxipen ekoizpe-
nean nagusitasuna eskuratzea berezi-
ki garrantzitsua da munduko potentzia
teknologiko bihurtzeko, eta horixe da
AEBen indargune nagusia. Txina da
erdieroaleen kontsumitzaile handie-
na eta auto elektrikoaren industriaren
buruan egon arren egoera ahulean da-
go; izan ere, munduko ekoizpenaren
heren bat baino gehiago kontsumitzen
badu ere, fabrikazio-prozesuaren zati
txiki bat baino ez du kontrolatzen, eta
AEBek, berriz, balio erantsi handiene-
ko zatiak kontrolatzen dituzte^[10].

2010eko hamarkadaren hasieratik
Txinako Gobernu nabarmen ari da
jabetza intelektual eskuratzea sus-
tatzen, enpresen lehiakortasuna han-
ditzeko egiten ari den ahaleginaren
barruan. Patenteen garapenak, zeina
berrikuntza teknologikoaren adieraz-
letzat har baitaiteke, leku nabarmena
du sustapen ekonomikoko politiketan.
Izan ere, 2011tik aurrera Txina izan
da munduko patente-sortzaile nazio-
nal handiena, eta BPGaren proportzio
handiena berrikuntzara eta garapenera
bideratzen dutenetako bat. Gobernu-
aren pizgarriek esker Txinako konpai-
niak teknologia berritzailea garatzen
ari dira telekomunikazioen eta konpu-
tazioaren industrian. Institutuzioek eta,
bereziki, auzitegiek eta patenteen erre-
gistro-agentzia nazionalek ere funtsez-
ko zeregina dute auzi horretan; izan
ere, zenbait alderen artean jabetza in-
tektualaren titulartasunari buruzko
eztabaidarik badago, aldeetako baten
aldeko erabakiak kalte handiak eragin
ditzake bestearengan.

Errealki, gerra teknologikoa se-
gurtasun nazionaleko auzia bihurtu
da AEBentzat. Esaterako, betoa jarri
dieten enpresen artean dago Huawei,
mundu mailan 5G teknologiako paten-
teen garapenaren zerrendaren buru
den enpresa teknologikoa. Ekoitzitako
gailuen bitartez Txinako Gobernu-
ari espioitza baimendu izana egozten
diote Huaweiiri. Gainera, AEBek, Txi-
naren eta Taiwanen arteko gatazka
aprobetxatuz, mugimenduak egin di-
tuzte errendimendu handiko mikro-
txipen ekoizpenean lider erabatekoa
den TSMC enpresa taiwandarraren
salmentak blokeatzeko.



Pekinek «Txina bakarraz» duen jarrerak jasotzen duen ikuspegiaren arabera, Macao, Hong Kong, Taiwan eta Txina kontinentalak bera lurralde-entitate beraren zati dira, eta, beraz, Txina kontinentalaren eta uhartearen arteko harremanak barne-arazotzat hartu behar dira. Jarrera horren aurrean eta Pekinek eskualdean duen eragina murrizteko asmoz, AEBak dira Taiwango sezesioak duen laguntza diplomatiko eta militar nagusia^[11], hegoaldeko Txinako itsasoan estatubatuarrek dituzten gerraontzien hedapena areagotzeraino^[12].

Gainera, AEBetako administrazioa diru asko eta asko bideratzen ari da mikrotxipak ekoizten dituzten fabriketako ezarpena laguntzeko –batere eraginkorra ez bada ere^[13]–, eta, hartara, goi-mailako teknologien ekoizpenean duen kanpo-mendekotasuna hausteko. Adibidez, 2022. urtearen erdialdean, AEBek *Chips and Science Act* delakoa jarri zuten martxan, 50.000 milioi dolar bideratuz mikrotxipen ekoizpen-katea herrialdean birkokatzekeo pizgarri gisa.

ASIAKO INTEGRAZIOA ETA ZETAREN BIDE BERRIA

Txinaren nazioarteko proiektzioa ulertzeko beste puntu garrantzitsua bat da Asiako eta haragoko integrazio ekonomikoaren prozesuan betetzen ari den eginkizuna. Alde batetik, 2022aren hasieran, orain arteko merkataritza-tratatuturik handiena sartu zen indarrean, Eskualdeko Ekonomia Integralerako Elkartea (RCEP ingelesez). Munduko biztanleriaren ia herenari eta BPGaren %30ari eragiten dion akordio horrek Asiako eta Pazifikoko hamabost ekonomiak osatutako eremuan –Asiako bi zentro ekonomiko eta politikoa nagusi (Txina eta Japonia) eta beste ekonomia garrantzitsu batzuk (Hego Korea, Singapur eta Australia), besteak beste– zeuden muga-zergak ezabatzen ditu, eta herrialdeen arteko merkataritza sustatzen. Itunak merkataritzarako eskualde-nodo baten sorrera eta Asiako merkataritza-bloke


baten finkatzea badakar ere ez du nahikoa ahalmen Europako Esparru Ekonomikoaren gisako integrazio-prozesu sendo bat ezartzeko. Hala ere, dagoneko Asia hego-ekialdeko balio-kate gehienak menderatzen dituen Txinari eskualdeko erabaki estrategikoetan eragiteko ahalmen handiagoa ekarriko dio.

Bestalde, Txinak garapen ekonomikorako azpiegiturak eraikitzekeo estrategia global handiena du martxan 2013az geroztik. Askok espekulatu da *Belt and Road Initiative* delakoaren izaerari buruz, baina ebidentzia sendo gutxi dago. Beraz, ikusteke dago Txinaren merkataritza- eta inbertsio-hedapena zenbateraino izan daitekeen presio politikoa eragitekeo mekanismoak ezartzeko aitzakia. Oraingoz, *Belt and Road Initiative* –Zetaren Bide Berria ere deitzen zaio– mugaz haraindiko estimulu ekonomikoko pakete gisa deskribatzen du Pekinek, Txinaren eta harekin harremanak dituzten herrialdeen hazkunde ekonomikoa sustatuz parte-hartzaile guztien onurarako izango dena^[14]. Informazio falta dela-eta zaila da *Belt and Road*-en gastatutako zenbatekoa kuantifikatzea. Hala ere, oraingoz, Eurasia ia guztia eta mendebaldeko Afrikako eta Ozeaniako zati handi bat merkataritzara konektatzeko portuak, errepideak, zubiak, aireportuak eta tunelak eraiki ditu Txinak, bilioi bat dolarreko balioarekin –kopuru oso handia da, baina hasieran espero zenaren azpitik dago oso–.

HEGEMONIA ETA IMPERIALISMOA

Txinaren kanpo-proiektzioaren izaerari buruzko eztabaidak zabalik daude oraindik. Hegemonia estatu batek estatu subiranoen sistema batean lidergo-eta gobernu-funtzioak betetzeko duen botere gisa^[15] ulertzen badugu zaila da argudiatzea Txina ez dela lidergo hori lortzeko eta potentzia hegemoniko gisa nagusitzeko estrategia bat jarraitzen ari, Afrikan duen presentziari eta *Belt and Road Initiative*-ri buruz gora-azaldutakoa kontuan hartzen badu-

Txinari dagokionez, esan daiteke bere asmo estrategikoa ez dela kapitalismoari aurre egiten dion proiektu bat, baizik eta eduki inperialista bera duen beste forma bat hartzen ari dela, menderatze politikoa zentzu hertsian ez duena: zalantzarik gabe, Txina finantza-kapitalaren esportazioa eta nazioarteko erakunde-sare baten garapena erabiltzen ari da maila globaleko ekoizpen- eta metatze-prozesua bere onurarako antolatzeko xedez



gu. Auzi honen berezitasuna da –eta batzuetan horrek dakar auzia modu lausoan agertzea– estatu baten nagusitasuna hegemonikotzat har daitekeela baldin eta estatu-arteko sistema hori nahi duen norabidean zuzentzen badu eta berau interes orokorraren aldekotzat hartzen bada. Zentzu horretan, badago pentsatzen duenik Txinak munduan duen helburua munduko ekonomia kapitalistaren gaineko gobernantza-ordena berri bat ezartzea besterik ez dela, Mendebaldearen aurkakoa, eta ez duela inola ere besteen gaineko nagusitasun politikorik eduki nahi^[16].

Bestalde, aipatu behar da zaila dela argudiatzea Txina, termino ekonomiko hutsetan, herrialde inperialista dela. Nahiz eta egia izan Txina kapital kopuru izugarria esportatzen ari dela bere mugetatik kanpo, atzerriko zuzeneko inbertsioaren bidez, eta, era berean, Txinako Estatua munduan zor gehienaren jabe den bigarren agentea dela –Europako Bankuaren atzetik bakarrik–, Asiako erraldoia ez da bere mugen kanpotik irabaziak jasotzen ari. Hain zuzen, Carchedik eta Robertsek diotenez^[17], Txina irabaziak kanpora transferitzen ari da 90eko hamarkadaren hasieratik, eta horrek ekonomia periferiko gisa kokatuko luke mundusistemaren azterketa baten barruan.

Hala ere, ekonomia bat irabazi igorle edo hartzaile garbia izatea irizpide eskasa da inperialista den ala ez ebazteko. Gaur egun inperialismoak esan nahi duenaren eguneratze sistematikorik ez badago ere nozio leninista klasikoak zenbait puntu interesgarri eskaintzen dizkigu. Leninek, *Inperialismoa, kapitalismoaren goi-fasea* lanean, metaketa kapitalistaren garapen historikoari lotutako kategoria zientifiko eta objektibo gisa azaltzen du inperialismoa, eta ez herrialde jakin batek gainerako estatuekin dituen harremanen balorazio etiko gisa.

Inperialismoak kapital finantzarioaren –kapital motarik mugigarrienaren– garrantzia handitzea dakar, eta, aldi berean, kapitala gero eta gehiago pilatzen da lanak eta ekoizpenak maila globalean duten antolakuntzari buruzko erabakiak eta aginduak emateko gaitasuna duten jabe gutxi batzuen eskuetan. Ikusmolde leninista eguneratuz, esan liteke inperialismo horren ezaugarri nagusia ekoizpena maila globalean finantzen bidez gidatzeko premia dela^[18]. Txinari dagokionez, esan daiteke bere asmo estrategikoa ez dela kapitalismoari aurre egiten dion proiektu bat, baizik eta eduki inperialista bera duen beste forma bat hartzen ari dela, menderatze politikoa zentzu hertsian ez duena: zalantzarik gabe, Txina finantza-kapitalaren esportazioa eta nazioarteko erakunde-sare baten garapena erabiltzen ari da maila globaleko ekoizpen- eta metatze-prozesua bere onurarako antolatzeko xedez.

Testu honetan, Txinako Estatuak agente geopolitiko gisa eta bere kapital nazionalak jarraitu beharreko estrategiari buruzko erabakigune nagusi gisa duen zeregina azpimarratu dugu. Zehazki, estrategia hori nazioz gaindiko hornidura- eta ekoizpen-kateen kontrola eskuratzean oinarritzen da, goi-mailako teknologiaren sektoreetan nagusi izateko. Oraindik oso zaila da Txinak hurrengo urteetan izango duen irismena argi eta garbi ikustea, zer den nazioarteko esparruan lortu nahi duena, norgehiagoka teknologikoan nagusitzea lortuko ote duen edo zein izango den gainerako bloke geopolitikoekin izango duen harremana. Baina argi dagoena da Txinak nazioartean izan dezakeen garrantzia urrun dagoe-la goia jotzetik. ●

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

[1] Federico Steinberg “El imposible encaje de China en la Organización Mundial del Comercio (OMC)”, Real Instituto Elcano, 2022ko urtarrilaren 20a. realinstitutoelcano.org.

[2] Higiezinaren sektorea izan da, eta hala da oraindik ere, hazkunde txinatarren motor nagusietako bat, eta hamarkada luzez etxebizitzaren prezioak ez dira asko hazi. Horrexegatik, analista batzuek higiezinaren burbuila posible bat lehertzeak ekarriko lituzkeen ondorio larrien arriskuaz ohartarazi dute; batez ere Evergrande herrialdeko higiezinaren bigarren promotore handienaren krisia dela-eta.

[3] Dinamika konplexu hori ulertzeko testu ona da Michael Pettis ekonomialari eta Txinan adituak idatzitako testu hau: “The U.S. Trade Deficit Isn't Caused by Low American Savings” (carnegieendowment.org).

[4] “Made in China 2025 plan issued”, Txinako Herri Errepublikako Estatu Kontseilua, 2015eko maiatzaren 19a. english.www.gov.cn.

[5] Inversión China en Africa Aumenta Mientras el Valor de Proyectos y el Comercio Bilateral Decrece”, IISD, 2021eko urriaren 15a. iisd.org.

[6] Chinese Loans to Africa Database, Universidad Johns Hopkins.

[7] Yike Fu, “The Quiet China-Africa Revolution: Chinese Investment”, The Diplomat, 2021eko azaroaren 22a. thediplomat.com.

[8] “Supply chain analysis and material demand forecast in strategic technologies and sectors in the EU: A foresight study”, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa.

[9] Cheng Ting-Fang eta Lauly Li “US-China tech war: Beijing’s secret chipmaking champions”, Nikkei Asia, 2021eko maiatzaren 5a. asia.nikkei.com.

[10] Juan Vázquez Rojo, “La guerra tecnológica entre Estados Unidos y China sube de nivel ante la escasez de chips”, CTXT, 2021eko ekainaren 15a. ctxt.es.

[11] Bestalde, testu honen idazketaren uanean behintzat, Europak joera kontraesankorrak ditu auzi honen inguruan, Pekinekin eta Washingtonekin duen

harremanarekin lotuta dagoena. Zenbait estatu-ordezkarik Pekinen jarrerekiko hurbilpena erakutsi eta gatazkatik kanpo mantentzeko beharra adierazi duten bitartean Europar Batasuneko atzerri-gaietako ordezkari nagusiak, Josep Borrell, Taiwan laguntzea Europarentzako funtsezko auzia dela esan du.

[12] Rafael Poch, “El éxito chino determina la tensión militar”, CTXT, 2022ko azaroaren 9a. ctxt.es

[13] Amanda Chu “Critics warn US Inflation Reduction Act could keep prices high”, Financial Times, 2023ko apirilaren 24a. ft.com.

[14] Deborah Brautigam, (2019). A critical look at Chinese ‘debt-trap diplomacy’: the rise of a meme, *Area Development and Policy*, 5(1), 1-14.

[15] Giovanni Arrighi y Beverly J. Silver, (2001). *Caos y orden en el sistema-mundo moderno*, Ediciones Akal.

[16] Dic Lo, (2020). Towards a conception of the systemic impact of China on late development. *Third World Quarterly*, 41(5), 860-880.

[17] Carchedi, G., & Roberts, M. (2021). The economics of modern imperialism. *Historical Materialism*, 29(4), 23-69.

[18] John Bellamy Foster. (2015). The new imperialism of globalized monopoly-finance capital: An introduction. *Monthly Review*, 67(3), 1.

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Iraultza Kultural Proletario Handiaz 无产阶级文化大革命



Miguel García

Iraultza Kulturala prozesu jarraitu eta etengabetzat jotzen da Txinako Iraultzaren tradizio maoistan, iraultzaren fase jakin batzuk bete ondoren ere, iraultza bere premisa eta dinamika kontserbadoreetan itotzen utzi ez zuen mugimendu moduan. Ulerkera horren funtsa da uneko egoerak etengabe berrikusia eta eztabaidatua izan behar duela, klase zapaltzaile izandakoek eragin-posizioak berreskuratzea ekiditeko. Aipatutako helburua klase borrokan egindako mugimendu errepikatuek eta zuzenketa-mugimenduen bitartez kontzientziak eraldatzeko politikek ahalbidetuko lukete. Garrantzitsua da aipatzea txinerazko kulturaren kontzeptuak (Wenhua, 文) esanahi zabalagoa duela Mendebaldekoak baino, eta zibilizaziozko kontzeptu baten parekoa dela.

IRAULTZA KULTURAL PROLETARIO HANDIA (IKPH)

Ideia horrek, Txinako Iraultzan zehar, berebiziko influentzia izan zuen Mao Alderdi Komunistaren buru izan zenetik, 1949ko iraultzaren garaipenaren aurretik zein ondoren. Hainbat adibide aipa daitezke: 30eko hamarraldiko Lurraren Aitortzarako Mugimendua, zeinetan nekazaritzako erreforma, neurri politiko eta ekonomiko moduan ez ezik, nekazarien hezkuntza-prozesu moduan ere ulertzen baitzuten; 40ko hamarraldiko hastapenetan Alderdiko koadroen artean abiarazi zen Zuzenketa Kanpaina; 1950ean intelektualek artean bultzatu zen Pentsamenduaren Erreformatarako Kanpaina; Hiru Antien Kanpaina, 1951an abiarazia Alderdiko koadroen artean ustelkeriaren, xahuketaren eta burokraziaren aurka; Bost Antien Kanpaina, 1952an abiarazia eroskeriaren, iruzurraren, gobernuaren jabetzen lapurretaren aurka eta oraindik modu erdi autonomoan funtzionatzeko zuten enpresetako merkatariek zein industrialek Estatuari sekretu ekonomikoak lapurtzearen aurka; edo Zuzenketa Berrirako Kanpaina 1957an, Alderdiko koadroen zein Estatuaren joera burokratikoaren aurka martxan jarria^[1].

Kanpaina horien oinarritzko xedea berbera zen funtsean: masen balio, ideia eta motibazioak faktore erabakigarriak direla gizartearen funtzionamenduan, eta iraultzaren arrakastarako ez direla nahikoa iraultza politikoa gauzatzea eta Estatuko boterea hartzea, eta iraultza ekonomikoaren bitartez oinarritzko produkzio bitartekoak jabetza kolektibo bihurtzea, baldin eta iraultza horrek mundua zein gizakia aldi berean eraldatzen ez baditu. Era horretan uler daiteke kanpainon helburua moral berri bat eraikitzea zela, giza jokatibiderako arau multzo berri bat, gizarte sozialista berriarekin bat zetorrena eta proletariotzaren diktaduran oinarritua. Baiezta daiteke kapitalismotik komunismorako trantsizio fasean, moral zaharra jabetza pribatuan oinarrituta-

ko gizarte burges zaharretik eratortzen dela, eta haren tasunik behinena norbanakoaren interes pribatua zela. Moral berriak gizarte sozialistarekin loturan behar zuen, eta haren oinarritzko elementua interes kolektiboa interes pribatuari eta balio proletarioak balio burgesei gainjartzea zen. Maok esaten zuen ideia zaharrak ez zirela berez desagertuko, berariaz kanporatu behar zirela beste berri batzuk sarrarazteko. Iraultza kulturala ez zen salbuespena: bere ezberdintasun kualitatiboa ez zegoen intentsitatean eta operazio eskalan, ez baitzen intelektualen edo Alderdiko koadroen moduko talde hautatuetara mugatu; kontrara, gauzen egoera irauli eta transformatzera bideratu zen. Horrenbestez, iraultza tradizio baten jarraipentzat jo daiteke (zuzenketa-mugimendu fokalizatuak), baina, aldi berean, aurreko saiakeren haustura da; ez, zen, ordea, saiakera horien gailurra izan, datorren belau-naldi bakoitzarentzat beharrezko prozesu jarraitua baizik, etorkizuneko komunisten orientazio ideologiko zuzena ziurtatzeko bidean.

**Iraultzaren arrakastarako
ez direla nahikoa iraultza
politikoa gauzatzea eta
Estatuko boterea hartzea,
eta iraultza ekonomikoaren
bitartez oinarritzko
produkzio bitartekoak
jabetza kolektibo bihurtzea,
baldin eta iraultza horrek
mundua zein gizakia aldi
berean eraldatzen ez baditu**

Bestalde, Iraultza Kulturala Mao-ren gidaritzapeko Alderdi Komunistentaren irakaspen onenen eta tradizioen artean presente egon zen arren, hura piztu zuen faktore garrantzitsu bat zera izan zen: SESBen txinatarren ustetan «errebisionista» zen joera bat agertu zela. Maok bere idatzietan azpimarratu zuen sozialismoaren pean ere klaseek existitzen jarraitzen zutela, eta hala segiko zutela, harik eta klaserik gabeko gizarte komunista lortu, eta eskulanaren zein lan intelektual espezifikokoaren arteko kontraesana ezabatzen zen arte. Klaseen inguruan ez da ari zentzu marxista zaharrean, hots, lur-jabe, kapitalista, langile eta nekazarien zentzuan. Kontrara, juridikoki modu pribatuan produkzio bitartekoen titularrak izan ez arren, funtzionalak ziren rol batzuk betetzen dituztenez ari zen: langileak, zuzendariak, nekazariak, Alderdiko eta Estatuko koadroak, intelektualak, akademikoak eta beste langile intelektual batzuk, soldaduak, etab. Jabetzaren eta egiazko sozializazioaren artekoa zen trantsizio garaiko kontraesan nagusia. Klaseen arteko kontraesanez hor ziraute, eta antagonismo zorrotz bihurtu zitezkeen kontuz tratatzen ez baziren. Maorentzat bereziki kontraesan arriskutsua zegoen masen eta haien gaineko autoritate posizioak zeuzkatenean artean, hau da, alde batean, nekazariak eta langileak egongo ziren, eta, bestean, gerenteak, administratzaileak, Estatu-ko eta Alderdiko koadroak eta hezkuntza instituzio kulturalen arduradunak. Ez baziren prebentzio neurri indartsuak hartzen, kontraesan hori gobernatuen eta gobernatzaileen arteko oinarritzako antagonismo bihurtu zitezkeen, eta horrek bide emango zion klase burokratiko eta teknokratiko pribilegiatu baten sorrerari. Aipatu klaseak herriarekiko (Txinako proletariotza eta nekazalgora) dibergenteak ziren interes propioak izango zituen. Hori gertatzea onartzen bazen, eta bereziki klase horrek gizarte burges zaharreko ideologiaren hondarrak gordetzen bazituen, agertokia prest egongo zen errebisionismoarentzat, hau da, horrek sozia-



Maok bere idatzietan azpimarratu zuen sozialismoaren pean ere klaseek existitzen jarraitzen zutela, eta hala segiko zutela, harik eta klaserik gabeko gizarte komunista lortu, eta eskulanaren zein lan intelektual espezifikokoaren arteko kontraesana ezabatzen zen arte

lismo iraultzailearen oinarritzako printzipio marxista-leninisten errebisionari ateak zabalduko zizkion, barne mailan zein kanpo mailan inperialistekin loturan. Horrenbestez, botere posizioak betetzen dituztenak interesatuago zeudekeen *status quo*a mantetzen –kanpo zein barne mailan– estatuaren barnean zein nazioarteko eskalan iraultza proletarioaren garapen iraultzailea bultzatzen baino.

Aurrekoarekin lotuta, esanguratsuak dira bi jazoera garrantzitsu Iraultza Kulturalaren sarrera ulertzeko: Komite Zentralaren 1966ko maiatzaren 16ko oharrean alde Txinako Alderdi Komunistentaren gailurrean aurrera emandako borroka, eta Komite Zentralaren Komite Iraunkorrean eta 1966an geroago Komite Zentralean bertan ere izandako botere-oreka. Emaizta *Komite Zentralaren Hamasei Puntuko Programa* izan zen, 1966ko abuztuaren 8an; une hartan gutxiengo baten txostena zen. 1960-1964ko Politika Ekonomiko Berriaren ondorioz, hazi egin zen fabriketako zuzendarien eta teknokraten estratu pribilegiatua, non probientzietako Alderdiko komiteekin hertsiki lotutako jendea baitzegoen. Estratu ho-

riek tradizio burgesean koka zitezkeen eta Mendebaldean zoko nolabaiteko joera zuten interes kulturalak zituen intelektual multzo zabal batek babesten zituen. Interes kolektiboak asebate beharrean, nekazaritza-merkatuetan eta handizkako salmentetan jarri zen arreta, eta, segidan, botere politikoa Mao Zedongen aurka jarri zen. Lider politiko batzuek, «erreinu feudal» erdiautonomoak eratzeaz gain, Mao Zedongen arerioak babestu zituzten Alderdiaren Komite Zentralean: Deng Xiaoping, Liu Shaoqi eta Peng Zhen. Babes hori eman zuten liderren artean zeuden Tao Zhu –Hego Zentroko eskualdeko (200 milioi herritar txinatar hartzen zituen) ofizianako lehen idazkari ohia–, edo Li Ching-chuan –«abertzale lokala», Szechuan probintzia zinez aberats eta boteretsuko liderra–. Pekinen, prentsaren eta Alderdi Zentralaren aparatuko Propaganda Departamentuaren gaineko kontrolak aukera eman zien Maoren aurkarietza haiei buruzko kritikak publikatzeari uko egiteko edo Maoren beraren obren inprimatze eta banaketa murrizteko –horren adibide da, adibidez, Maoren aipuen «liburu gorri txikia» masiboki



Alderdi barruko borrokatik hasi zen, baina ikasleengan eta, ondoren, hiriko langile klasearengan izandako eraginak lurrikara izugarria eragin zuen Estatu zaharraren eta Alderdiaren egituretan, borroka ez baitzen soilik boterea lortzera mugatzen. Prozesu sozialista iraultzailearen beraren izaeragatiko borroka izan zen, masen eta abangoardien artekoa, erlazio komunisten ezarpenari buruzkoa

zabaldu izana behin Iraultza Kulturala hasita-. Txinako Iraultzaren ideologia ofizialak maoista izaten jarraitu zuen, baina Estatu mailako antolakundeek beste arau eta balio batzuk zituzten. Funtsean, Alderdiaren eta Burokraziaren bi alderen arteko borroka zegoen, Maok ordezkatzeko zuten sekzioa bate-tik, eta Liu Shaoqi y Deng Xiaopingek ordezkatzeko zutena bestetik –Estatuko administrazio postuetan zeuden gero- te eta koadroen sekzioa ordezkatzuz–.

IRAULTZA KUTURALAREN HASIERA

Iraultza kulturalaren hastapenaren ezaugarri nagusiak masen ekintzen eta Estatuaren kontrol interbentzionista- ren arteko kontraesanak eta tentsio al- tuak izan ziren. Iraultza Kulturalaren garapenean bi fase daude, elkarlotuak baina bereiziak: aurrenekoan Iraultza Kulturala hasi zen masen mugimendu espantsibo gisara (korrelatu berritzaile batekin: pluralizatu egin ziren masa- mugimenduak berak garatutako anto- lakunde politikoak), eta, bigarrengoak oinarri izan zituen fakzioen arteko ge- rra, Estatu-Alderdi berreraikitzea eta deuseztapen logikaren nagusitasuna.

Mugimenduaren lehenengo fasea masa-mugimenduaren hedapenak markatu zuen. Hedapen hori Guardia Gorrien bitartez gertatu zen, eta Alderdi Estatuaren beraren gaitasun opera- tiboetatik kanpo. Alderdi barruko bo- rrokatik hasi zen, baina ikasleengan eta, ondoren, hiriko langile klasearen- gan izandako eraginak lurrikara izu- garria eragin zuen Estatu zaharraren eta Alderdiaren egituretan, borroka ez baitzen soilik boterea lortzera muga- tzen. Prozesu sozialista iraultzailearen beraren izaeragatiko borroka izan zen, masen eta abangoardien artekoa, erla- zio komunisten ezarpenari buruzkoa. Politikari buruzko diferentzia –Alder- diko «bi lerroei» buruzkoa– berehala bihurtu zen «bi bideren» artean auke- ratu beharrari buruzko borroka: kapi- talismoa edo komunismoa.

Mugimenduaren bigarren fasea Iraultza kulturalaren bidez masa-mu- gimendua berbideratzea eta Estatu zahar eraitsia birsortzeko lana izan zen. Alderdi Estatuaren aparatu zaha- rra berrantolatzeke egitura nagusia Askapenerako Herri Armada izan zen, aliantza hirukoitzeko Komite Irault- zailleekin batera. Fakzioen eta lerro

ezberdinen arteko talkak ekarri zuen Iraultza Kulturalaren amaiera, ondo- ren ezkerreko lerroak izan zuen porro- ta eta 1976ko kontrairaultzaren behin betiko garaipena.

Iraultza kulturala hasiko zuen lehenbiziko eraso –1965ko azaroaren eta 1966ko maiatzaren artean– Wu Hanek^[2] idatzitako *Hai Ruiren kargu- gabetzea* opera-lanaren kritika izan zen. Peng Zhen alkate eskuindarraren sektore artistiko eta literarioaren bu- ru izan zen Wu Han. Obrak goretsi eta aldarrikatu egiten zituen komunista eredugarriren adibide ziren «funtzio- nario onak», eta eraso egiten zien iritzi maoista erradikalei eta Aurrerako Jauzi Handia plangintzaren oinordetzari. Ar- gitalpen hark eztabaida publiko sutsua piztu zuen hiru alde hauen artean: Wu eta haren aldekoak –kargu garrantzi- tsuak zituzten Estatuaren eta Alderdi Komunistaren aparatu kulturalan–; Mao Zedong eta Yao Wenyan idazle komunista^[3]; eta, azkenik, polemikan parte hartu zuten unibertsitateko aka- demikoak –posizio positiboago edo negatiboagoak izan zituzten obraren funtzioari eta edukiari buruz–. Obra- ren balorazioari dagokionez sortu zen



zatiketa nabarmenaren eta posizio desberdinen eta obrak Txinaren historia iraultzailea faltsutzeko erabiltzen zituen elementuen eraginez, Maoren lerroak erasora jotzea erabaki zuen. Supererstrukturaren iraultza lortzeko helburuz, Maok hasierako fronte kulturalaren borroka erabili zuen Estatuaren aparatu kulturalen aurka eraso egiteko. Polemika erabili zuen propaganda-instituzioei eta Estatuaren hezkuntzari erronka botatzeko tresna moduan, Iraultza Kulturala abiarazteko xedez. Horrenbestez, Iraultza Kulturalaren lehenbiziko jo-puntua Txinako Herri Errepublikaren estatu-aparatu ideologikoaren gailurra izan zen: unibertsitate sistema. Maoismoaren helburua gainegituraren borroka bat abiaraztea zen, hala ekoizpen harremanen erreprodukzioaren kontrol komunistari eusteko eta hura berbideratzeko.

Borroka kulturalaren aldi berean, Iraultza Kulturala Alderdiaren gailurrean izan zen botere-borroka baten bidez hasi zen. Maok Txinako Alderdi Komunistaren figuren artean purga zehatza abiatu zuen Iraultza Kulturala abiarazteko gai izango zen aparatu bat bermatzeko. Mugimendu bakoitzak bere esanahia zuen:

Lehenbizikoa dagoeneko aipatu dugu: Wu Hanen aurkako polemika zabaldu nahi zen (Peng Zhen Pekingo alkate eta Komite Zentraleko kide esanguratsuaren laguntzailea). Horrez gain, Peng Alderdiaren propaganda-aparatuaz ere arduratzen zen. Aparatu hori ahultzea bilakatu zen helburu nagusi 1965eko azaroaren eta 1966ko maiatzaren artean.

Eztabaida aurrea zihoan neurrian, bigarren helburua bere segurtasun taldeko kideak hautatzea izan zen. Pekinen Txinaren Askapenerako Herri Armadaren eta polizia armatuaren konfiantzazko eliteko unitateak zabaldu zituen segurtasuna indartzeko etor zitekeen deskontrolaren aurrean, baita Iraultza Kulturala aurrera joan ahala hari aurka egiten ahalegintzen zirenei aurrea hartzeko ere.

Jarraian, Luo Ruiqingen aurka egin zuen, zeina Gai Militarretako Batzordeko funtzionarioa baitzen (azken buruan Maok gidatzen zuen Batzorde hori); izan ere, bera zen Alderdiaren eta Askapenerako Herri Armadaren arteko lotura instituzionala. Horrek Alderdiaren gainerakoen eta Askapenerako Herri Armadaren arteko lotura eten zuen. Horrez gain, Komite Zentralaren informazio-fluxua kontrolatu nahian, Yang Shangkun Komite Zentraleko Bulego Orokorreko burua kargugabetu zuen. Maoren ustez, helburu argi bat zuen: alderdiko goi-karguen informazioaren joan-etorria zorrotz-zorrotz kontrolatzea.

Mugimendu horiek guztiak hasierako borroka-formak izan ziren, lerro maoistak Iraultza Kulturala prestatzeko eta hari eusteko gai izango zen aparatu zentral bat bermatzeko erabili zituenak. Aparatu horren barnean nabarmentzekoa da Iraultza Kulturalaren Talde Arduraduna izeneko erakundea, Txinako Alderdi Komunistaren Komite Zentralea ordezkatzeko zuena. Iraultza Kulturalaren Talde Arduraduna, beraz, Maok Estatuari eta Alderdiari zuzenean eraso egiteko erabili zuen erakundea izan zen; talde horrek bete zuen gerora sortu ziren erakunde errebeldeekin lotura egiteko funtzioa.

Iraultza Kulturalaren lehenbiziko jo-puntua Txinako Herri Errepublikaren estatu-aparatu ideologikoaren gailurra izan zen: unibertsitate sistema. Maoismoaren helburua gainegituraren borroka bat abiaraztea zen, hala ekoizpen harremanen erreprodukzioaren kontrol komunistari eusteko eta hura berbideratzeko



Gainera, Iraultza Kultural Proletario Handiaren masa-faseak iraun bitartean eta gutxienez 1969an Alderdiaren IX. Kongresua egin zen arte, bera izan zen Txinako Alderdi Komunistaren zuzendaritza-arganoa, *de facto*. Alabaina, esan dugun moduan, 1966aren lehen-biziko erdian egin zituzten mugimendu horien ondoren, garrantzizkoena zera zen: Iraultza Kulturala hasia zela.

Jarraian, *Maiatzaren 16ko Oharra* izenekoa argitaratu zen. Dokumentu hori IKPHaren hasieratzat hartzen da, haren bidez borroka azkar hasi baitzen Alderdiaren goi-karguetatik kanpora hedatzen^[4]. Iraultza Kulturalaren Talde Arduradunak borroka kulturalak jendaurrean gertatzen ari ziren eskualdeetara joan ziren, haietan esku hartuz

borroka horien gidaritza eta kontrola eskuratzeko. Horrela, mugimenduak Txina osoko parte hartze zabala lortu nahi zuen lerro maoistak.

Maiatzaren 25ean, Pekineko Beida Unibertsitatearen jangelaren erdiko paretan, karaktere handiko kartel bat agertu zen (*dazibao* estilokoa). Kartelaren egilea Nie Yuanzi zen, 45 urteko Alderdiko funtzionarioa eta unibertsitateko filosofia saileko kidea, eta unibertsitateko autoritateak kritikatzeko zituen (Lu Pingek zuzentzen zituen autoritate horiek), baita aparatuko kultural zentrala ere, *Hai Ruiren kargugabetzea* operaren bueltan zertu zen eztabaida bortitza erreprimitzea eta desitxuratzeko leporatuta. Hurrengo goizaldean, Pekineko Unibertsitateko paretak

kartel handiz josita agertu ziren, eta, handik gutxira, baita Txina osoko milaka ikastetxe eta hezigune ere. Nieren ekintzak Pekineko unibertsitateetako ikasle mugimenduaren eta Guardia Gorrien sorrera ekarri zuen. Guardia Gorriak ikasle gazteen antolakunde klandestinoak ziren; bateraezinak iruditzen zitzaizkien beren heziketan jaso zituzten sozialismoaren printzipioak jasotzen ari ziren hezkuntzaren printzipio eta praktikekin eta Txinako gizartearen oraindik ere bazeuden desparekotasun sozialekin. Lehenbiziko taldea Tsinghuako Unibertsitatearen filiala zen bigarren hezkuntzako ikastetxe batean sortu zen. Pekineko Unibertsitatean zen eferbeszentziak eraginda, maoista errebeldeek talde bat osatu zuten, eta «Guardia Gorri» izena eman zioten beren buruari (izen hori 1926an, Iraultzaren lehenengo egunetan, Hunan probintzian sortu zen erakunde zibil batetik hartu zuten). Haren pareko taldeak sortu beste ikastetxe eta unibertsitate batzuetan, lehenbiziki Pekinen ingurumarian, eta, gerora, alboko hirietan, hala nola Tiensinen. Hasieran «klandestinoak» izan ziren hilabete batzuez, baina mugarri izan zen Maok Tiananmen Plazako manifestazio batean publikoki haiei babesa eskatu izana. Ordutik aurrera, aparra bezala zabaldutako mugimendua Txina osora. Hiru hilabeteko epean, dagoeneko 15 eta 20 milioi gazte bat eginak ziren Guardia Gorriekin, nor bere hezkuntza-instituzioetako unitateetan antolatuta; nagusiki erdi- eta goi-mailako ikasketetako ikasleak ziren, hamar eta hogeit hamar bitartekoak, baina bazeuden irakasle gazte batzuk ere. Guardietako kide izateko baldintza bakarrak Maoren Iraultza Kultural Proletarioa militantziaz babestea eta jatorri proletarioa izatea zen –besteak beste langileen, nekazarien edota Askapenerako Herri Armadako soldaduen familietatik etortzea^[5]–.


Armadari eta segurtasun indarrei ez esku hartzeko agindu zitzaien, eta, kasu batzuetan, talde erradikal emergentei laguntza materiala emateko.

Alderdiak, hasieran, aurreko mobilizazio kanpainen lerro bereko ekintzat hartu zuen lerro maoistak fronte kulturalaren aurka abiarazitako erasoaldia. Aurreko kanpaina horiek nagusiki «susmagarrien» jazarpenean oinarritzen ziren. Ez zuten ulertzen Maoren helburua Burokrazia bera izatea. Beraz, erreakzio moduan, Alderdiko kideek erresistentzia handia erakutsi zuten mugimendu berriaren aurrean; ondorioz, lanerako ekipoak bidali zituzten zenbait ikastetxe eta institututara. Ekipo horiek alderdiaren koadroak ziren, eta zailtasunak zeuden uneetan «arazoak ebazteaz» arduratzen ziren. Ordea, Iraultza Kulturalak egoera berri bat sortu zuen, eta ekipoak ez zeuden ohituta heziguneetan aritzera, mugimendu berritzaile haren garrantzia gutxietsi zuten, eta ikasleen mugimenduaren aurrean hezkuntza-aparatu ideologikoekin bat egin zuten. Horiek horrela, matxinatuak kontrolatzen eta haien jarduna mugatzen ahalegindu ziren, eta, kasu batzuetan, beste talde batzuk ere xaxatu zituzten haien aurka jar zitezen. 1966ko udan, «berrogeita hamar egunak» izenez ezagutzen den aldi hartan, Pekineko unibertsitateko ikasleak eta lanerako ekipoak aurrez aurre borrokatu ziren loratzen hasia zen masa-mugimendu haren zuzendaritza nork hartuko. Ikasleek manifestazioak, kritika publikoak eta eztabaidak antolatu zituzten, eta talde propioak osatu. Lanerako ekipoek Iraultza Kulturalaren kontrol hertsia izatea izan zuten helburu. Handik gutxira, ikasleen independentziaren aldeko borroka sortu zen, eta kanpainen helburuak aukeratzen hasi ziren. Lanerako ekipoak hura geldiarazten eta mugatzen ahalegindu ziren, baina ikasleek presioa egin zuten oztoporik gabe lan egin zezaten. Ia bi hilabetez tira-biren intentsitatea handitu ondoren, lanerako ekipoak, herritarren babesik ez zutenak, erretiratu egin ziren uztailaren amaieran, Maoren aginduz.

Mugimendu berri haren aurkako oposizioak, zeinak errebisionismoaren krisi politikoa erakusten baitzuen,



**Guardia Gorriak ikasle gazteen antolakunde
klandestinoak ziren; bateraezinak iruditzen zitzaizkien
beren heziketan jaso zituzten sozialismoaren printzipioak
jasotzen ari ziren hezkuntzaren printzipio eta
praktikekin eta Txinako gizartean oraindik ere bazeuden
desparekotasun sozialekin**



Txinako Alderdi Komunistaren Komite Zentralaren Hamaikagarren Oso-ko Bilkura egitea ekarri zuen. Bertan, abuztuaren 8ko Iraultza Kulturalari buruzko erabaki bat hartu zen, *Hamasei Puntu Program*^[6] izenez ezaguna; haren erredakzioa aurrez aurre gidatu zuen Maok berak. Puntu horietan hau egitera bultzatu zituzten maila desberdinetako koadroak: guztiaren gainetik zuhurtziaz jokatzeari, karaktere handiko kartelak eta eztabaida handiak egin zitezela babestea, masetan konfiantza izatea eta haiengan babestea, haien ekimena errespetatzea, eta haiek animatzea ardura-karguetan daudenen lanaren hutsuneak eta erroreak kritika zitzaten. Puntuetan agindu zenez, Iraultza Kulturalan, metodo bakarra masek beren burua libratzea zen, eta ez zen inolako metodorik erabili behar haien protagonismoa ordezteko. Erabaki horretan, hau zehaztu zuten: «*Gaur egun, geure helburua da kapitalismoaren bideari jarraitzen dioten autoritateen aurka borrokatzea eta haiek kargutik kentzea; «autoritate» akademiko burges erreakzionarioak, burgesiaren ideologia eta beste klase esplotatzaile guztiak kritikatzeko eta gutxiesteko; eta hezkuntza, literatura, artea eta oinarri ekonomiko sozialistari erantzuten ez dioten gabe- gaturako gainerako atal guztiak eraldatzeko, hala sistema sozialista sendotu eta garatu dadin*»^[7].

Hamasei puntu horiek erabakitzeak baimen ofiziala eman zien estatu osoan Guardia Gorrien mugimendua sortu eta ugaltu zedin. Hilabete gutxitan, presentzia hartu zuten Txinako ia gune guztietan. Hori dela eta, fase horretan, masa gero eta handiagoak batzen hasi zen mugimendura, (gehienbat iraultza- ren indar intelektualak zituen gidari); Txinako Alderdi Komunistan paralizatuta eta parasitatuta zeuden egiturak dinamizatzea eta berriztatzea lortu nahi zuen elementu gisa jokatu zuen, eta *de facto* Estatuaren aparatu administratibo kudeatzaile bihurtu zen. Hala eta guztiz ere, hain azkar zabaltu eta ugaritu izanak masa-antolakunde plural ugari sortu zituen, eta horiek guz-





tiek Alderdi Komunista ordeztu zuten, zeina ordura arte sozialismoaren erakuntzaren eta komunismo iraultzaileen motor bakar modura ulertzen baitzen; izan ere, Alderdi Komunistaren zuzendaritza proletalgoaren diktadura bermatzeko elementutzat hartzen zen.

Iraultzaren garai horretan, Guardia Gorriek Iraultza Kulturalako ideiak transmititzen zituen langile klasearen eta nekazalgoaren artean, Alderdiaren aparatuaren kritika benetako erronka bilaka zedin. Antolakuntza burokratikoaren ordeztu, antolakunde demokratikoago bat ezarri zen, eta horrek helburu zabalagoak eta zuzendaritza hobia izateko aukera ematen zuen. Guardia Gorriek propaganda eta esku-lanak egiten zituzten herrietan, eta ibilbideen eraikuntza-lanetan aritzen ziren, bereziki Iraultzaren historian esanguratsuak izanak ziren ibilbideetan. Lehenbiziko etapetan, uztaillean eta abuztuan, izan zen biolentziarik. «Kapitalismoaren bideari jarraitzea-gatik» susmagarri zirenen etxeak arpilatu egin zituzten, eta erlijioari eta kultuari lotutako leku batzuk profanatu. Gorabehera horiek iraultzaileen masa-lerroei zehaztugabetasuna sortzen zien antolakunde ugaritako masak konkistatzeko.

1966KO UDAZKENA ETA 1967KO URTARRILEKO EKAITZA

Guardia Gorriek Txina osoan izandako aparteko hedapenak, hurrengo urrats gisa, Txinako langileen mobilizazioa bilatu zuen. Atzerabiderik gabeko mugimendu batean, maoisten asmo horiek, hots, kultur iraultza eskoletara edo Estatuko kultur aparatuetera mugatuta gera zedila, berehala deskontrolatu ziren. 1966ko udazkenak, zalantzarik gabe, ikasleen agitazioa lantokietara zabaltu zuen.

Shanghaiko Iraultza Kulturalan, proletarioek protagonismo berezia izan zuten, eta estatu mailako mugimenduan aldaketa erabakigarria ekarri zuen horrek. Hainbat hilabetez, ikasleen, udal gobernuaren eta langile-talde aurkarien arteko liskarrek egoera

kaotikoa sortu zuten, eta tokiko agintariek ezin izan zuten kontrolatu. Alderdiaren Shanghaiko barne-gatazkek gobernuaren kolapsoa ekarri zuten 1967. urterako. Langile-mugimenduarentzat (masa-fasean haiek egin zuten ekarpenik handiena politika erradikal komunistan), Shanghaiko Komuna izan zen iraultzaren unerik gorena (1966-1967ko abendu-urtarrileko "Urtarrileko Tormentu" izenekotik sortua). Bertan, langile eta ikaslez osatutako Guardia Gorrien koalizio zabal batek masak astindu zituen, burokraziaren barneko erradikalekin aliatuta, konkista politiko eta ekonomikoak lortzeko helburuz aurka eginez langile-antolakunde are-rio «kontserbadoreei» eta Alderdiko udal agintariei. Azkenean, Parisko komuneroek hasitako egitura politikoan nabarmen inspiratutako elkarketa baten bitartez hartu zuten boterea.

Klase-gatazka proletarioen eta burgesiaren arteko hil edo biziko borroka gisa hedatu zen. Maila eta etapa berri horren ondoren, Shanghain iraultzaren fase kualitatibo berri bat hasi zen. Alderdiaren zentroak (Iraultza Kulturalaren taldea, Pekineko Komite Zentralaren mendekoa) Komunaren tankerako botere-organoak proposatu zituen hirietan eta probintzietan. Bere programa Harbinen eta Shanghain jarri zen abian 1967ko urtarrilean. Helburua jada ez zen Parisko Komunako akats nagusia errepikatzea, alegia, burgesen estatu-makineria suntsitu gabe berenganatzea.

Proletalgoaren klase-borroka iraultzaileen lehen fasea Estatuaren boterea konkistatzeko zen; aldiz, Shanghaiko Komunak arazo iraultzaile bat izan zuen trantsizio-aldian: Estatuak nola-koa izan behar ote zuen fase gorenago batean eta bere behin betiko desagerpena bidean^[8].

1967ko urtarrilaren 5ean, «Shanghaiko biztanle guztientzako mezu bat» argitaratu zuten *Wenhui Bao* egunkarian. Honakoa irakur zitekeen bertan: «Guk, talde errebelde iraultzaileok, argi eta garbi ulertzen dugu iraultza proletario handia gauzatzen ez





1967ko udaren ondoren, Maok, berak deitutako masa-mugimenduaren deuseztapena martxan jartzeko, behartuta ikusi zuen bere burua ordura arte ia ukigabe zegoen Estatuaren zutabe bakarrera jotzera: armadara

bada, ekoizpenean dugun orientazioa galduko dugula eta atzera egingo dugula kapitalismoaren norabidera... Guk, talde errebelde iraultzaileko langileok, eredu bihurtu behar dugu 'iraultzari tinko eusteko eta ekoizpena sustatzeko' orduan^[9]. «Larrialdi-abisu» bat etorri zen horren ondoren: Langile Errebelde Iraultzaileen Kuartel Nagusiak eta beste 31 antolakunde iraultzailek ohar bat bidali zieten Shangaiko herritar guztiei, 1967ko urtarrilaren 9an.

«Larrialdi-abisuak» jarraitzaileei agintzen zien galaraz zezatela fabriketako nagusiek bat-batean primak ordaintzea, metodo horren bidez nagusiek babesa lortu nahi zutela uste baitzuten; fabriketako aktibo guztiak izozteko agindua ere ematen zuen oharra. Bidaiatzeko zorian zeuden pertsona guztiei dei egin, eta lanera itzultzeko agindu zien. Kapitalista guztien ondasunak konfiskatzeko agindua eman zuen, baina baimenik gabeko konfiskatzeak debekatu zituen. Eta Alderdiaren Udal Batzordeak boterea hartuko zuela iragarri zuen. Iraultzaileek, orduan, «demokrazia proletario hedakorra» edo masa-batzarren bidezko gobernua ezarri zuten administrazioeko organoetan eta lantegietan. Beste probintzia eta hiriburu batzuek Shanghaiko ereduari jarraitu zioten, Pekinekin eta Taiyuaneke kasu, eta komunak sortu zituzten.

Shanghaiko Komunaren aldarrikapenetik, asko larriagotu zen tentsio-gorakada: beste hiri batzuetako botere-hartzeak Alderdi Estatuaren jarduna etetea eta ia kolapsoa eragin zuen. Banan-banan, boteretik kendu zituzten tokian tokiko alderdiak. Hala ere, botere-hartze guztiak ez ziren matxinada herrikoien ondorio izan. Errebeldeen koalizio asko alderdietako buruzagiek osatutakoak ziren, Estatua boterea hartzeko egiten ari zen deiei erantzunez eginak; funtsean, beren burua salbatzeko eta aurkariak boterea hartzea saihesteko helburua zuten. Zentzu horretan, estatu-aparatu diziplinatu baten testuinguruan istilu masiboak sor zitezen presioa egiteko saiakerek ustekabeko ondorioak eragin zituzten. Ondorio horiek zuzentzen saiatu zen Alderdiaren zentroa, militarren esku-hartze selektiboek lagunduta. Ezker maoistak, baita Maok berak ere, masa iraultzaileen bultzadaren aurrean, Shanghaiko Komunak irekitako bidea ixtea erabaki zuen, Armadarekiko konpromiso-politika bat lortzearen alde hilabeteko ibilbidea egin ondoren^[10].

Masa iraultzaileen sormena, baina baita Iraultza Kulturaletik eratorritako energia suntsitzaileak ere, maoistek espero edo nahi zutena baino askoz ere harago joan ziren. Beren antolakunde pluraltasunak bide bat

irekitzen zuen txinatarrak Alderdiaren hierarkiatik kanpo antola zitezen hainbat arazori aurre egiteko, hala nola ustelkeria ofizialari, desberdintasun sozioekonomikoei eta kexa politikoei. Adierazteko eta elkartzeko askatasuna inoiz iritsi gabeko mailalara iritsi ziren 1949. urteaz geroztik, baina ez arriskurik gabe. Hala ere, 1966aren amaieran eta 1967aren hasieran, ezegonkortze orokorra eta Alderdi Estatu zibilaren kolapsoa etorri ziren aldi berean. Koadroen barne-mailako botere-hartzeak izan ziren kolapso horren indar eragileak (gerora sarritan botere-hartze «falsutzat» jo ziren). Iraultzaileek antolakunde politiko autonomoen gorakada eta protesta masiboak baliatu zituzten. Baina, hala ere, matxinada neurrigabe eta zatikatu horrek ez zuen Alderdiarekiko independentzia eta bere botere propio berria modu korrelatiboan finkatu. Aurki, gero eta suntsitzaileagoa eta despolitizatuagoa bilakatu zen fakzioen arteko talkak hartu zuen iniziatiba iraultzaileak izandako lekua^[11].

1967ko lehen hilabeteetan, ia eskola, lantegi eta bulego guztiak bitan banatuta zeuden. Txinako gizartea gelditu egin zen manifestazio, liskar eta borroka armatuen ondorioz. 1967aren lehen erdian, Alderdi Estatuaren goimailetako fakzioak gidaritza eskuratzeko norgehiagokan murgilduta zeuden. Masa-mugimenduaren aurkako ikuspegia hartu zuten beren politikak, hainbat alditan militarki esku hartzen baitzuten eta beste batzuetan Guardia Gorriek babesa adierazten baitziren. Ezker maoistaren seinale zalantzatiek (beti ahulak eta gutxiengoak ziren) Alderdiko autoritateak izaera aldakor eta anbibalentea izatea eragin zuen, batez ere borroka intraburokratikoaren ondorioz. Askatasunerako Herri Armadak (bera ere fakzio ezberdinen arteko talkak zeharkatuta), kasu batzuetan agintari nazionalen eta besteei tokiko agintarien esanetara jardun zuen, nahiz eta hasieran ikasleen eta langileen antolakuntzan ez esku hartzeko agindua zuen. «Ezkerra babeste» kanpaina, hain zuzen, aipatutako

botere-hartze «faltsuak» zuzentzeko modu gisa aurkeztu zen. Baina, kasu askotan, lortu nahi zenaren kontrakoa eragin zuen parte-hartze militarrek: indarkeria murriztu beharrean, area-gotu egin zuen.

Masa-mugimenduaren hedapena berehala bihurtu zen Guardia Gorrien arteko barne-borroken zurrumbilo, eta aurkako fakzioek elkar suntsitzea eragin zuen. Masa-mugimenduaren irismena handitu ahala, kideak onartzeko klase-irizpideak lausotu egin ziren, eta gizarte-ingurune ez hain «puruetatik» zetozen pertsonak ere mugimenduan parte hartzen hasi ziren. 1967an, pluralizatzeko prozesu sortzaile hori Guardia Gorrien eta langileen arteko barne-borroka basati bihurtu zen, eta fakzioen arteko gerra-fase luze bati eman zion bide. Ildo eskuindarrak kontraerasoa jo zien osaera sozial berdin-berdin zuten masa-erakundeei. Horrek klaseari edo *statu quo*ari buruzko jarrera politikoen arabera deszifratu ezin zitekeen gatazka batera eramanez zituen masak. Iraultza Kulturalaren fase gorena masa-erakunde pluralen beharrak markatu bazuen ere, aurrerantzean, «deuseztapena» izan zen nagusi. Kontua ez zen jada ikasle talde independenteak egotea, baizik eta etsaia deuseztatzea, eta helburu hori oinarrian interes politikorik ez zuen «boterea hartzeko» obsesio batek gidatzen zuen. Kasu gehienetan, eskolak, fabrikak eta bulegoak «bertikalki» banatu ziren «horizontalki» banatu beharrean; horrek esan nahi du klase-osaeraren zentzuaren aurka ari zirela, eta ez harekin. Ia fakzio guztiek Mao Zedongen pentsamenduaren arabera jarduten zuten, eta, ondorioz, elkarren aurkako bandoak izanagatik ere, kritika, akusazio eta gida-lerro antzekoak zituzten. Maoren irudia jaurtitzeko arma gisa erabiltzen zuten eskuineko zein ezkerreko lerroek.

Fakzioen arteko indarkeriak eta masen haserreak eragindako tentsioa puntu kritiko batera iritsi zen 1967ko uztailean, Wuhan hiriko armadak haustura ia hilgarria izan zuenean.

Eskuineko lerroaren aldeko kmandanteek ez zuten bete tokiko koalizio komunista babesteko agindu zentrala, eta, horren ordeztan, masa-antolakunde kontserbadoreak babestu zituzten. Wuhan Eskualde Militarra gerra ireki baterantz zihoan, eta horrek agerian utzi zuen Herri Askapenerako Armada objektiboki masekiko ezein loturatatik bereizitako antolakundea zela. «Wuhango gertakaria» inflexio-puntu izan zen Maoren Iraultza Kulturalaren garaiko politikagintzan. Iraultza Kulturala Askapenerako Herri Armadari esker sortu eta hil zen. Maok Iraultza Kultural Proletario Handiaren aurreko hilabeteetan Alderdiari kanpotik erasotzeko erabili zuen tresna nagusia izan zen, eta, paradoxikoki, 1966-1968ko istiluen ondoren ordena berrezartzeko tresna nagusia ere izan zen. Une horretan, Maoren aurkako estatu-kolpe militar bat benetako aukera bihurtu zen. Maoisten lerroak ordenara itzultzeko bidea hartu zuen aurrerantzean, iraultzaren garaipena gerrak ekarriko ez zuelakoan.

KOMITE IRAULTZAILEAK ETA IRAULTZA KUTURALAREN PIXKANAKAKO DESAKTIBAZIOA

1967ko udaren ondoren, Maok, berak deitutako masa-mugimenduaren deuseztapena martxan jartzeko, behartuta ikusi zuen bere burua ordura arte ia ukigabe zegoen Estatuaren zutabe bakarrera jotzera: armadara. Gerra zibil ireki baten mehatxuaren aurrean, jarrera zentrista hartu zuen Zhou En Lairekin batera, Alderdi Estatua berrekitzen saiatzeko. Horretarako, adiskidetzaren aldeko bide bat hartu zuen, baina, era berean, Iraultza Kulturalaren borroka zenbait frontetan mantentzea ahalbidetuko zuena. Bide hori koadro iraultzaileen, masen ordezkarien eta armadako ofizialen aliantza hirukoitzean oinarritutako komite iraultzaileek gorpuztu zuten. Hala ere, zona askotan, batzorde horiek militarrek menperatu zituzten. Komite iraultzaileak berehala hasi ziren Estatuaren

无产阶级文化大革命



planak betetzen, «iraultza ulertzen eta ekoizpena sustatzen», eta pizgarri ekonomikoak pizgarri moralekin ordezkatzeko; langileentzako prestakuntza-saioak fabriketako bizitzaren parte bihurtu ziren^[12].

Iraultza Kulturalaren konkistak gorabehera, 1968tik aurrera, lehenago matxinadan jarritako grabitate-zentroa ikasleen eta gazteen rola ahultzera eta politika eraikitzailean zentratzera igaro zen. *Borroka-kritika-eraldaketa*-ren garaia jarri zen abian, non langile-klaseari gero eta zeregin handiagoa eman baitzitzaion berrantolaketa politikoan eta ekoizpenaren kudeaketan.

Borroka-kritika-eraldaketa ideia 1968ko iraileko «azken agindu» batean laburtu zuten. «Fabrika batean, *Borroka-kritika-eraldaketa*, oro har, honako etapa hauetan egin behar da da: 'Hiru batean' konbinazioan oinarritutako komite iraultzaile baten ezarpena, kritika eta gaitzespen masiboak, klase-lerroen

purifikazioa, Alderdiaren antolaketa-eredua berbideratzea, antolaketa-egituraren sinplifikazioa, arau eta arautegi irrazionalak aldatzea eta bulegoetan lan egiten duten pertsonak oinarritzko mailalara bidaltzea»^[13].

Bazirudien *Borroka-kritika-eraldaketa*-ren helburua bikoitza zela. Lehenik eta behin, 'Hiru batean' Komite iraultzaileen boterea sendotzea, eta berrestea prestakuntza-saioen metodo egokia zela 'Niaren aurka borrokatu, errebisionismoa arbuiaitu' agindua praktikan jartzeko. Bigarrenik, Maok 1968aren hasieran emandako agindua betetzea («Estatuko organoak erreformatzeko printzipiorik garrantzitsuena haiek masarekin harremana izatea da»), baita aurreko agindua ere («Iraultza ulertu eta ekoizpena sustatu»). *Borroka-kritika-eraldaketa*, nolabait esateko, Iraultza Kulturalaren lehen amorrua agortu ondorengo «egonkortze aldirako» taktika zen, eta

1966ko abuztuko lehen «egonkortze aldiari» eta *Hamasei Puntuako Programari* zor zien jatorri teorikoa. Izan ere, *Borroka-kritika-eraldaketak* «oinarri ekonomiko sozialistarekin bat ez zetozen» gainegituraren zati guztiak eraldatzea zuen helburu, baita oinarri ekonomiko hori sendotzea ere, jarrera eta joera kapitalistak geldiaraziz.

«Langile-klasearen gidaritzan» enfasia jartzearekin batera, Txinako probintzia guztietako komite iraultzaileen ezarpen-prozesuak azken etapan zeuden. Honako hau argudiatu zen: «*Borroka-kritika-eraldaketarako* lana zientzia oinarri hartuta eta denborarik galdu gabe egiteko, nahitaezkoa da langile-klasearen lidergoari eustea»^[14].

Maok beste «azken agindu» batzuk eman zituen. Lehenengoaren bidez, 1968ko abuztuan, txinatar iraultzaileei exijitu zien «Iraultza Kultural handian eta lan-eremu guztietan, langile-klasearen gidaritza erabat jokoan jartze-

ko»; gaineratu zuenez, «borrokaren bidean, langile-klaseak beti handitu behar du kontzientzia politikoa». Urriaren 15ean beste agindu bat aldarrikatu zuen: «Gure boterea, nork ematen digu? Langile-klaseak ematen digu, nekazari pobre eta ertainbaxuek ematen digute, biztanleriaren % 90 baino gehiago osatzen duen langile-masak»^[15].

Bi agindu horien esanahia zen Iraultza Kulturean ikasleei eta gazteei emandako zeregina murriztu behar zela, eta matxinatzetik egiturak finkatzera igaro behar zutela; hor, arreta berezia jarri zion ekoizpena sustatzeari, Estatuko organoak erreformatzeari eta ekoizpenaren antolakuntza proletario diziplinatuari. Nabaria izan zen hori 1968ko irailean emandako aginduan: «Hezkuntzan Iraultza Kulturala gauzatzeko, funtsezkoa da zuzendaritza langile-klaseak izatea... Langileen propaganda-taldeek eskoletan jarraitu behar dute, eta kritika-lanak bete behar dituzte»^[16].

Agindu horiek aldaketa handia ekarri zuten ikasleen nahia matxinadarantz beharrean diziplinaratz bideatzeko (lehenago bezala). Iraultza Kulturala hoztu egin zen, eta bide eman zion berreraikitze estatista bati. Nahiz eta milioika pertsonak parte hartu zuten probintzietako agintarien, fabrikazuzendarien, teknokraten, «despota akademikoen» eta «intelektual burgesen» gobernu boteretik kentzean, indar maoistek kanporatu egin zituzten iraultza amaieraraino eramatearen aldeko korrante ultraezkertiarak^[17] zein «eskuindarrak» edo «bide kapitalistaren jarraitzaileak». Lerro maoistak sormen askea azpimarratzetik «diziplina iraultzailea eta herriaren, Alderdiaren eta nazioaren interesak mespretxatzen dituzten» horien aurkako erreferentzia etengabeetara igaro zen, eta disidenteei abisu eman zitzaizen: «joera anarkistak jarraitzen badu, diktadura proletarioak hainbeste ahulduko dira, non ekoizpenak eta iraultzak atzera egingo baitute»^[18].

1969tik aurrera, Alderdiaren IX. Kongresuak Iraultza Kulturala garaipentzat jo zuen^[19]. Hala ere, adierazpen horrek ezkutatu egiten zuen Guardia Gorrien eta mugimendu iraultzailearen porrota. Mugimendu horretako talde bakarra geratzen zen ordurako: «Lauen Banda». Une horretatik aurrera, Lin Biaoren eta Askapenerako Herri Armadaren boterea nabarmen handitu izanak markatu zuen aldi hori. Alderdiaren maila gorenetan zeuden gainerrako erradikalak, berriz, burokrataz betetako aparatatu batean harrapatutako errebeldeak baino ez ziren. Ondorengo «inbertsio estatista» IKPHren lehen urteen eranskin zabal bat izan zen. Gutxienez beste bi alditan bana daiteke aldi hori, 1971ean Lin Biaoren heriotza tartean. Lehenengo aldiaren ezaugarri nagusiak (gutxi gorabehera 1969tik 1971ra) estatuko eta tokiko gaietako protagonismo militarra eta Maoren «nortasunaren kultu» gehiegizkoa izan ziren. Horrek masa-mugimenduaren pluraltasun mugagabea eta bat-batekotasun iraultzailea ordezkatu zituen. Elkarren arerio ziren fakzio burokratikoak boterea lortzeko lehiari ekitean agertu ziren berriz purgak, eta, azkenerrako, estatu-makineria kontserbadorea nagusitu zen. Lin hil ondoren, armada, pixkanaka, galtzen joan zen esku-har-

1969tik aurrera, Alderdiaren IX. Kongresuak Iraultza Kulturala garaipentzat jo zuen. Hala ere, adierazpen horrek ezkutatu egiten zuen Guardia Gorrien eta mugimendu iraultzailearen porrota. Mugimendu horretako talde bakarra geratzen zen ordurako: «Lauen Banda»

tzearen ondoren lortutako nagusitasun nazionala. Linen erorketaren ondoren, Estatu zaharra berreraikitzearekin batera, eskuinerantzko joera hartu zen kanpo-politikan. Txinak Amerikako Estatu Batuen proposamen diplomatikoak onartu zituen (Richard Nixon buru), eta Augusto Pinochet diktadore txiletarra zoriondu zuen 1973an Txilen emandako estatu-kolpea zela-eta.

Ezker maoista programa propio baten eta mugimendu politiko garrantzitsuen bitartez maila ekonomikoan bereizi ezinik geratuta (aparatu ideologiko eta kulturalen gaineko kontrola baino ez baitzuten izan), IKPHren fase erradikalenean baztertutako koadro kontserbadore asko lehengo posizioetara itzuli ziren pixkanaka. Ezkerreko fakzio erradikalak ez zuenez, Maoz aparte, izaera teknokratikoko koadro erradikalik eta Deng Xiaopingek eskuinteko lerroentzat zuen adinako babesa zuten koadro estrategikorik Maok, zailantza handiz, erbestealdi politikotik atera zuen Deng, azken Iraultza Kulturalako aldi labur baterako. Mao hil baino lehen, baina, berriz kargugabetu zuten denbora labur batez. Aldi horretan, Maoren ekinbide nagusia Alderdi Estatuaren posizioa eta azpiegitura ekonomikoa egonkortzen saiatzea zen, lehen urteetako kolapso partzialak kalte larriak eragin baitzizkion. Hala eta guztiz ere, Iraultza Kulturalaren proiektua osotasunean eztabaidatzeko presioa egiten saiatu zen, baina koadro eskuindarrek ez zuten hori onartzeko asmorik^[19]. Azken fasean, 1976an Mao hil aurreko urteetakoan, geldialdiak eta higadurazko gerra burokratikoak izan ziren nagusi.

Laburbilduz, Iraultza Kulturalaren fase aktiboko masa-mugimenduak porrot egin eta kolapsatu ondoren, herrietatik erdigunera lekualdatu zen fakzioen arteko borroka. 1969ko kongresuaren ondoren, hiru fakzio nagusi bereizi ziren: erradikalak, burokrata kontserbadoreak eta Askapenerako Herri Armadako ofizialak.

Mao hil zenean, geratzen ziren bi fakzioek, kontserbadoreek eta erradikalek, tximista liskar bat izan zuten. Kontserbadoreek irabazi zuten eta Maoren proiektuak lurra jo zuen

Askatasunerako Herri Armadako ofizialak, Lin Biaoren heriotzaren (1971ko iraila) gertaera tamalgarriaren ondoren, kanporatuak izan ziren. Gertakari hori aitzakiatzat hartuta, Iraultza Kulturalaren fase aktiboa amaitu ondoren pisua hartu zuten ofizialak estatu-aparatutik kanporatu zituzten Maok eta bere aliatuek. Estatu-aparatu zibilean armadako elitea indargabetuta, erradikal zibilek («Lauen Bandak» ordezkatuak: Zhang Chunqiao, Jiang Qing, Yao Wenyuan eta Wang Hongwen) aurre egin zioten Zhou Enlai buru zuen burokrazia kontserbadoreari.

Fakzio bakoitza saiatu zen, Maoren aurrean, posizio onuragarri bat lortzen Alderdian. Barne-borroka izoztuek eta Iraultza Kulturalak Txinako Alderdi utzitako oinordetzari buruzko eztabaida esoterikoez ezaugarritu zuten garai hori. Baina, bitartean, bizitza arrunta lehengora itzultzen joan zen berriro.

Aldi horretan guztian, fakzioen arteko oreka bilatzen saiatzea izan zen Maoren zeregina, baita inor indartsuegi bihur zedila saihestea ere, beldur baitzen ez ote zen egoera erabat eze-gonkortuko edo proletarioen diktadura suntsituko. Baina denbora amaitzen ari zitzaion: parkinsona zeukan. Mao hil zenean, geratzen ziren bi fakzioek, kontserbadoreek eta erradikalek, tximista liskar bat izan zuten. Kontserbadoreek irabazi zuten eta Maoren proiektuak lurra jo zuen. Burokrata erradikalek IKPHaren lehen fasean jasandako kolpe latza tarteko, Dengen erreformek ez zuten apenas erresistentziarik izan aurrean. ●



IRAULTZA KULTURALAREN KRONOLOGIA

LEHEN FASEA^[20]

1965eko azaroaren 10a-1966ko apirila

- Wu hani kritika eta Peng Zhengen erresistentzia.
- 1965eko azaroaren 10a: *Hai Ruiren Kargugabetzea* obra argitaratzea.

1966ko apirila-ekaina

- Peng Zhengi eta Kuadrilla Beltzari kritika (*Maiatzaren 16ko Oharra*)
- Iraultzaren goraldia unibertsitateetan. 1966ko maiatzaren 27an, Pekingo unibertsitatean, nazio mailako lehen dazibaoa argitaratu zen.

1966ko ekaina-uztaila

Dengek eta Liuk gidatutako lanerako ekipoen garaia (50 egunen aldia). Uztailaren 17an Mao Pekinera itzuli zen.

1966ko abuztuaren 1a- abuztuaren 12a

- Komite Zentralaren XI. osoko bilkura: lanerako taldeen kondena. Liu Shaoqi eta Deng Xiaoping hierarkia ofizialek kanporatuak izan ziren.
- Abuztuaren 8an, *Hamasei Puntuen Adierazpena* sortu zen.

BIGARREN FASEA

1966ko abuztua-iraila

- Guardia Gorrien agerpena eta Tao Zhuren maniobrak. Hartu-eman iraultzaileak eta Guardia Gorrien lekualdaketak izan ziren. Kritika-mugimendua fabriketara heldu zen.
- Abuztuaren 18an Guardia Gorrien lehen kontzentrazio zabala izan zen, Tiananmengo plazan.

1966ko urria-abendua

- Langile klasea Iraultza Kulturalaren eszenan agertu zen. Liuk eta Dengek proposatutako bidearekiko kritika gautatu zen, eta horrek bide eman zion fakzio luistaren ondorengo erresistentziari bide emanez. Guardia Gorrien barruan zatiketak izan ziren. Istiluak Shanghain.
- Kontraeraso iraultzailea eta Tao Churen aurkako kartelak.

HIRUGARREN FASEA

1967ko urtarrila-otsaila

- Urtarrileko Iraultza Shanghai. Shanghain estreinatutako botere-transferentzia Txina osora zabaldu zen.
- Komite iraultzaileen sorrera: urtarrilaren 31n Heiliungkiango Komite Iraultzailea sortu zen, otsailaren 13an Kuitchevekoa.
- Otsailaren 5a: Shanghaiko Komunaren ezarpena.

1967ko otsaila-martxoa

- Masa-antolakundeek Zuzenketa Kanpaina. Eskuineko fakzioaren kontraerasoa otsailean. Erantzun iraultzailea.
- Agintaritzak aliantza handirako eta batasunerako deia luzatu zuen.
- Iraultza Kulturalaren Talde Arduradunen eta hainbat lerroren arteko talka agertu zen.
- Martxoaren 18a: Chansiko Komite Iraultzailearen sortu.

1967ko martxoaren amaiera-apirila

- Prentsa ofizialak Liu Shaoqiri eraso egin zion perifrasi bidez. *Masa-kritika iraultzailearen hastapena* liburua kritikatu zen.
- Martxoaren 22a: langileen kongresua.
- Apirilaren 20a: Pekingo Komite Iraultzailea sortu zen.

1967ko maiatzaren 1a-ekainaren 15a

Iraultza Kulturalaren Talde Arduradunen baitako ultraezker-tiarren eta Zhou En Lairen aldekoen arteko gatazka. Indar maoistek zatiketarako joera izan zuten. Masa-antolakundeek barruan ere zatiketak izan ziren.

1967ko uztaila-abuztua

- Joera espontaneistak eztanda egin zuen, zeina Iraultza Kulturalaren Talde Arduradunen zein masa-antolakundeetan egon baitzen ordezkaturak.
- Uztailaren 20a: Wuhango gertakaria.
- Abuztuaren 5a: Liu Shaoqiren autokritika.
- Abuztuaren 20a: Bortizkeriak goia jo zuen Cantonen. Askapenerako Herri Armadaren barne-zatiketak eta haren aurkako erasoak izan ziren. Pekinen Zhou En Lairi eraso egiten zioten kartelak azaldu ziren.
- Abuztuaren 22a: Pekingo kantzilergo britaniarrari su eman zioten.

1967ko iraila

Mao Pekinera itzuli zen eta garrantzi handiko zenbait agindu eman zituen: Zhou En Laiekiko eta armadarekiko babesa, Iraultza Kulturalaren Talde Arduraduneko ultraezkertiarrek baztertu ziren. Fakzio luistak porrot erabakigarria izan zuela adierazi zen.

LAUGARREN FASEA

1967ko iraila- 1968ko otsaila

- Ordenera itzulera. Bigilantzia iraultzailea berrindartu.
- Urriaren 1a: Lin Biao proposatuta, Mao Zedongen pentsamendua ikasten hasi, «liburu gorri txikiaren» bidez.
- Azaroaren 1a: Mongoliako Komite Iraultzailearen sorrera. Aldi berean, Komite Iraultzaile berriak sortu ziren, eta zeudenak sendotzen ahalegindu ziren.
- Urtarrilaren 28a: Armadaren egunkariaren *Ezkerra babestu*, ez fakzioak editoriala. Zatiketen aurkako borroka.

BOSGARREN FASEA**1968ko otsaila- apirila**

Bigarren kontrakorrontea. Sie Tu-Chek, hiriburuko taldeen erasoan eta beste batzuen defentsaren artean, antolakunde nagusien babesa jaso zuen. Ezkerkeriari eraso egin behar zitzaiola argudiatuta, errebisionistak birgaitzea helburu zuen korronte eskuindar bat garatu zen.

1968ko apirila-uztaila

- Martxoaren amaieratik apirilaren hasierara bitartean, Maok komite iraultzaileen aldeko defentsa egitera dei egin zuen. Zatiketarako joerarekiko beldurra uxatzera ere deitu zuen, hura klase-borrokaren parte zela esanda.
- Bigarren kontrakorrontearen aurkako borroka gauzatu zen. Unibertsitateen barruko zatiketak berpiztu egin ziren, eta administrazioan eta kultura zerbitzuetan kontrorako langile-ekipoak agertzea eragin zuen horrek.

1968ko uztaila-urria

Komite iraultzaileak ezarri ziren. Urriaren 1erako, Txina osoa komite iraultzailez beteta zegoen. Komite Zentralaren XII. osoko bilkurak Liu Shaoqiren kargugabetzea aldarrikatu zuen, eta Iraultza Kulturalaren balorazio bat gauzatu.

SEIGARREN FASEA**1968ko urria-1969ko apirila**

Irakaskuntzaren, bizitza administratiboaren eta enpresen kudeaketa moduen eraldatzerako kongresuaren prestakuntza-fasea. Alderdiaren berrantolaketa. Komite iraultzaileak berrindartzea.

1969ko apirila

Alderdi Komunistaren IX. Kongresua. Apirilaren 23an Komite Zentral berri bat eta estatutu berri batzuk aukeratu ziren.



ERREFERENTZIAK

[1] Mugimenduon informazio gehiagorako, ikus Jacques Guillermazen *Historia del Partido Comunista Chino* bi liburukiak.

[2] Wu Han Mingen garaiari buruzko intelektual burges nabarmena izan zen, eta Peng Zhenen (Pekingo alkate eskuindar boteretsuenetakoa) gizonetako bat.

[3] Maoren lerroa ez zen obra horren erasoez bakarrik aritu, ezpada arteari buruzkoez, oro har.

[4] *Maiatzaren 16ko Oharrak*, «Bosten Taldeak» idatzitako «otsaileko zirriborroa» dokumentua baliogabetu zuen *ad hoc*. Dokumentu hori Pengen lerroko kideek Peng bera buru zutela idatzi zuten Iraultza Kulturala eteteko helburuz bi urte lehenago. Maiatzaren 16ko Oharrak figura horien guztien eta haien diputatu batzuen ezabapena eta kondena ezarri zuen.

[5] Informazio gehiagorako, irakurri K.S.Karolen *La segunda revolución china*.

[6] Informazio zehatzagoa jakiteko, irakurri *Chinese Road to Socialism*, Wheelright&MacFarlane, 100.or.

[7] Ikerketa sakonago bat irakurri nahi izanez gero, irakurri Hongsheng Jian idazlearen *The Paris Commune in Shanghai: The Masses, the State, and Dynamics of `Continuous Revolution*.

[8] Urgent Notice, "The Great Proletarian Cultural Revolution in China" 10, 13-19.or.

[9] Maurice Meisner, *Mao's China and after*, 348.or.

[10] Yiching, *Cultural Revolution at the margins*, 126-127.or.

[11] Fabriken eragin zieten aldaketei eta lanaren banaketari egindako erasoei buruzko analisi sakonago bat irakurri nahi izanez gero, irakurri Charles Bettelheimen *Revolución Cultural y Organización Industrial*.

[12] *Chinese Road to Socialism*, 124.or

[13] Yao Wen-Yuan, *La clase obrera debe ejercer el liderazgo en todo*, Pekin Review, 1968ko abuztuaren 30a, 30.or.

[14] *Hupei Daily*, 1968ko otsailaren 13a.

[15] *Along the Socialist or the Capitalist Road*, Peking, 1968.

[16] Sheng-wu-lian, "Whither China".

[17] Berrezarkuntza kapitalistaren garaiari buruzko analisi zehatzagorako, ikus Charles Bettelheimen *China después de la muerte de Mao*.

[18] Lin Piao, "Bederatzigarren Txostena Txinako Alderdi Komunistaren Kongresu Nazionalari", *Documentos importantes sobre la Gran Revolución Cultural Proletaria*.

[19] Gai honi buruzko azterlan sakonago bat nahi izanez gero, irakurri *La última revolución de Mao*.

[20] Koadro kronologikoa Jean Daubierren *Historial de la revolución Cultural Proletaria en China* lanetik aterea da.

Argitalpena
2023KO APIRILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia


无产阶
级文化
大革命
万岁

arteka